


BERTSO GUZIAK

Pedro Mari Otaño



Pedro María Otaño Barriola
(1857-1910)

Auspoa Liburutegia (218)

AURKIBIDEA	2-3
PEDRO MARIA OTAÑO BARRIOLA (1857-1910)	
Antonio Zavalaren testua	4-9
ZENBAIT BERTSO	(11-26)
On Fidel Lizarraga'ri (1879)	11
Eskutitzak	12-14
Nere amigo Vegari	15
Amerikatik osaba Jose Bernardori biralduak (1889)	16-19
«Bera jaio zan oiaren eske»	20-22
Aotik ahora	23-26
DONOSTIKO BERTSOAK (1890-1898)	(28-102)
Amets bat (On Ramon Artola euskal-izkribilari zarrari ordaiñez)(1891)	28-34
Nasketak (1892)	35-37
B'rekiñ (1892)	38
Ordañak (1892)	39-41
Ama euskara (1892)	42-43
Perrando Amezketarra (1893)	44
Republika ta Fueroak edo Mendiburuko maiztarra (1893)	45-46
Bastilla (1893)	47-48
Españolak eta moruak (1893)	49
Limosnatxo bat (1893)	50-51
Beti-betiko (Nere adiskide maite Buenabentura Soroa'ren doñurako egiñdako letra)	52-53
Elizakoak edo au mundua !	54-56
Gu ta gutarrak (Antonio Esponda-k eskatu ta egiña)	57
Ernani	58-59
Azpeitiko premio zala-ta (1894)	60
Txepetxa (1894)	61-62
Donostiya uxua (1894)	63-66
Oroitza (1895)	67
Karidadea ! (1895)	68-72
Karidadea ! (1895)	73
Larriya. <i>Romanza de Oñate</i> (1895)	74
Larraldeko Magdalena (1895)	75-76
Iru apustu baten birez	77
Tolosar biursari gazteari (1896)	78-80
Aitona gizagaisoa (1896)	81-83
Kubako gure anaiai (1896)	84-89
Maitaro (On <i>Migel Oñateren musikan</i>)	90
Aur gurgarriari (1896)	91-92
Aitona eta illoba	93-95
Anaitasuna (1897)	96-101
Legazpi aundiari (1897)	102
ARJENTINAKO BERTSOAK (1898-1910)	(104-175)
Lastan edo musurik onena (1899)	104-105

Zugandik urruti (1899)	106
Urolari	107-108
Amari	109
Nere kabiya (<i>Baztandar bati</i>) (1900)	110
Eder bati	111
Perrando Amezketarra-ren aterakari bat (1900)	112
Aita-semeak (1900)	113-114
Zazpiak-Bat (1900)	115-116
Amerikako panpetan (1900)	117-118
<i>Orfeon Donostiarra</i> -ri Agur (1900)	119
Urte zar (1900)	120
Ongi-etorriya (1901)	121
Noizbait (Ordañetan) (1902)	122-127
Iñuzente-eguna ! (1902)	128
«Urte berri» (1903)	129-130
Auntza larrera. <i>Euskal biursari denai donkituba</i> (1903)	131-135
Berri on bat (1903)	136-137
Maisubari (1903)	138-139
Amatxo laztana (1904)	140
Bidañia-ko Labaka (1904)	141
Urdaneta-ko Andres Aundiari bere talluntzaren agerkeran (1904)	142
Bukatu bedi (1904)	143
Julio 21 de 1876 (1904)	144
Beregandua (<i>Ensimismado</i>)(1904)	145
Egurretan (<i>De hacer leña</i>) (1904)	146
Laurak-Bat	147
Batasuna (1904)	148-149
Nere adiskide Bonifazio Latxa-ri sendagaia (1905)	150-152
Iritzi bat (<i>Zamarripa-ko Paulo-ri</i>)(1905)	153-154
«Bukatu bitez gaiztakeriak...» (1905)	155
Gaztelu-gorriya oroitza (1906)	156
Oroitza (1906)	157
Gure aritza (1906)	158
Biyotza (1906)	159
Oroitza (<i>Orfeón Donostiarra</i> -ri)(1906)	160
Orra! (1906)	161
Gu ta guk!(1906)	162-165
Arana eta Goiri'tar Sabin zanari bere eriotzaren irugarren urtemugan (1906)	166-167
Aitor-en semeak eta Erroma	168-171
Euskaldunak Arjentinan diერი onen lokabetasunaren lenengo eunki-mugan(1910)	172-175
ARTZAI-MUTILLA (Opera)(1900)	176-206
LORA (Opera) (1907)	207-239

PEDRO MARIA
OTAÑO BARRIOLA
(1857-1910)
Testua : Antonio Zavala

Errekalde-Zaarra (1803-1883)

Pedro Maria Otañoren jatorria Larrauldik zetorren, Larrunbide-Labakaenea baserritik. An jaio zen beraren aitona, Pedro Maria Otaño Tapia. 1803-IV-2-an. Baiña, noiz ez dakigula, familia Zizurkilko Errekalde baserrira aldatu zan.

Pedro Mariren aiton ori ere bertsolaria izan zan *Errekalde-Zaarra* esaten zioten. Aren bertsoak, bildu aal izan ditugunak, *Auspoaren Sail Nagusia*-ren seigarren liburuan arkituko ditu irakurleak.

Maria Mikaela Lasa Rotetarekin ezkondu zan. Seme alaba auek izan zituzten : Juan Pedro, Josefa Antonia, Jose Inazia, Juan Jose, Maria Josefa, Jose Bernardo, Maria Bautista, Juana Martina eta Juana Mikaela.

Errekalde-Zaarra 1883-XII-27-an il zan, Zizurkillen.

Juan Pedro Otaño Lasa

Errekalde-Zaarraren seme zaarrena, Juan Pedro, 1829-XII-28-an jaio zan. Zizurkilko Errekalde baserrian.

Juana Bautista Barriola Arregirekin ezkondu zan, 1854-XI-27-an. Errekalde baserrian jari ziran bizi izaten.

Seme-alaba auek izan zituzten: Juana Bautista, Mikaela eta Pedro Maria bizkiak, Juana Mikaela, Josefa Antonia, Jose Bernardo, Juan Pedro, Jose Frantzisko eta Jose Domingo.

Senide auetan irugarrena izango zan Pedro Maria Otaño bertsolaria. Zizurkilko Errekalde baserrian, 1857-I-26-an jaio zan.

Bera eta bere arreba bizkia medikuak etxean bataiatu zituan, nunbait ere il-arriskuan ziran eta.

Pedro Mariren arreba bizki ori amairu illabeterekin il zan, 1858-III-1-ean.

Pedro Mariren aita, Juan Pedro, Donostian il zan, 1901-I-4-ean.

Jose Bernardo Otaño Lasa (1842-1912)

Juan Pedro orren anai bat, Jose Bernardo, 1842-X-11-n jaio zan, Zizurkilko Errekalden.

Klara Inazia Odriozola Urbiztondorekin ezkondu zan, 1866-1-13-an.

Seme-alaba auek izan zituzten: Plazida, Pedro Maria, Inazio Maria, Juana Bautista, Josefa Antonia, Maria Katalina, Adriana, Frantzisko Maria, eta Delfin.

Jose Bernardo au Zizurkilko udal-gizona izan zan bein baiño geiagotan, eta erriko alkatea ere bai, 1883 urtean.

Telleria eta igeltsotegia izan zituan Errekaldetik urrean, langilleak artuta; eta langintza oietatik ateratzen zuan bizimodua, nekazaritzatik baiño geiago.

Oso bertsolari famatua izan zan bere denboran, Pello Errota eta Udarregirekin batera. Aren bertsoak, guk bildu ditugunak, bai aotik aorakoak eta bai bertso-paperetakoak, *Auspoaren Sail Nagusia*-ren seigarren liburuan ditu irakurleak.

Irurogei ta bederatzi urterekin il zan, 1912-I-8-an.

Karidadeko benta

Errekalden bi familia bizi ziran, Juan Pedorena eta Jose Bernardorena, biak ere lagun askorekin.

Ala, noiz ez dakigula, baiña edozein moduz 1863 urtea baiña leenago, etxe berria egin eta ara aldatu zan Juan Pedro bere familiarekin, bertan taberna edo benta jarritz. Karidadeko benta eman zioten izena. Errekaldetik kilometro erdira zegoan, Zizurkildik Billabonara zijoan kamioaren bazterrean. Gaur botea dago.

Benta artan sarritan biltzen ziran bertsolariak. Ona nola dion bertso batek:

Karidadeko bentan
gu sei bertsolari:
Errekalde-Zarra ta
Juan Jose Udarregi;
Bernardo Zizurkilko,
Gazteluko Gorri,
Erreterikua da
Xenpelar jaun ori,
ni Astiasukua,
Pello Errotari.

Batean, bertsoan asiak ziran Jose Bernardo eta beste bertsolari batzuk, eta arek esan zien bera baiña ohea bazegoala etxean bertsolaria. Pedro Mari gaztea, alegia. Deitzeko, ba, besteak. Ala, ekarri zuten eta onek bertso au kantatu zion bere osabari:

Geiagua naizela
nik ez derizkiyot,
gero zer pasako dan
eziñ esan iñork;
deitutzen badigute
joango gera biyok,
edozein lekutara
lagunduko diyot.

Ameriketara leenengo joanaldia

Pedro Mariren ezkontzako paperetan, emezortzi urterekin Arjentinara joan zala esaten da. Gauza bera dio periodista batek, 1900 urtean. Ala, 1857-an jaioa baitzan, emezortzi erantsi eta 1875 urtea degu. Orduan karlisten bigarren gerra (1872-1876) beroenean zan.

Zizurkildar bertsolaria pakezalea zan eta igesi joango zan ura, soldadu ez joatearren. Orixe esan naiko du berak bere bertso-sail batean:

Argatik gerok batere kulpik
ez gendubela ezertan,
txit urrutira juan biarra
izandu nuben batetan;
oso gazterik arkitu nintzan
Amerikako Panpetan...

Ortaz gaiñera, Otañotarrak liberalak ziran eta Zizurkil karlisten mende zegoan orduan. Soldadu joatekotan ere, beraz, bere iritzien aurka joan bearko zuan.

Ameriketan langintza askotan saiatu zan: artzai, perratzaille, eskribiente eta abar. Baita zenbait nazio pasa ere: Arjentina, Uruguay, Brasil...

Berriz ere Euskal-Errian

Aldi artan Pedro Mari laster itzuli zan Euskal-Errira, leen aitaturako periodistak dionez beintzat. Ala, 1879-an emen zegoala gauza segurua da. Urte artan Billabonako alkate Fidel Lizarraga egin zuten, eta Otañok, lagun-talde batekin joan eta bertso batzuk kantatu baitzizkion.

Ameriketara bigarren joanaldia

Baiña, noiz ez dakigula, berriro ere Arjentinara joan zan. Ordukoa izango da bertso ezagun au:

Amerikara nua
nere borondatez,
aspertu naizelako
emengo suertez;
onetara ezkerro
joan biat det nai t'ez,
emen gelditze'iranak
ondo bizi bitez.

Beraren aitonak, Errekalde-Zaarrak alegia, onela erantzun ornen zion:

Lenago're seme bat
badet Amerikan,
ogei urte badira
joan zala emendikan.
Argana billatutzen
badek biderikan,
esaiok bizi dala
aita oraindikan.

Leenagotik Ameriketara zegoan beste ori Juan Jose zan, Errekalde-Zaarraren semea eta Pedro Mariren osaba.

Zenbat urte egin zituan Otañok Ameriketara aldi ontan? Ori esaterik ez daukagu, noiz joan zan ez dakigun ezkerro.

Baiña 1889-an an zan beiñepein. Osasunez gaizki zebillen, ordea. Ogei ta amabi urte zituan orduan. Urrengo urtean etorri zan Euskal-Errira, 1890-an.

Donostia (1890-1898)

Etorri zanerako, familia Zizurkilko Karidadeko benta utzi eta Donostira aldatua zan. Amaran bizi ziran.

Etorri eta andregaia egin zuan Pedro Marik: Maria Magdalena Alberdi Deskarga, donostiarra, Amarakoa, ogei ta zazpi urtekoa; eta 1891-VI-11-n ezkondu ziran, egin berria zan Artzai Onaren elizan.

Sei seme-alaba izan zituzten. Donostian iru mutiko: Bernardo, Juan Migel eta Jose; eta Arjentinan iru neska: María Teresa, Magdalena eta Juanita.

Ezkonberriak emaztearen etxean jarri ziran bizi izaten: Amaran, *Fábrica de Gas* dalakoan.

Udal-agiri batean, Pedro Mari *dependiente* zala adierazten da. Dendaria esan naiko du. Baiña zer dendatan ez dakigu. Beste paper batean, berriz, *empleado* esaten zaio. Taberna ere jarri omen zuan Euskalerrira kalean.

Azken bizilekua *General Jauregui* kalean, 10 zenbakian, beeko bizitzan, izan zuan.

Donostian euskal giro beroa arkitu zuan Otañok. Euskaltzale mordoa bizi baitzan orduan Gipuzkoako iriburuan: Martzelino Soroa, Biktoriano Iraola, Artolatarrak -Ramon, Pepe eta Rosario-, Antonio Arzak, Jose Zapiain, Frantzisko Lopez Alen, Felipe Kasal Otegi, Alejandro Berroa, Kaietano Sanchez Irure, Juan Inazio Uranga eta abar. Pedro Mari berealaxe urbildu zan aiengana, eta ondo artua izan zan.

Ordurarte bertso gutxi jarria zan. Baiña andik aurrera gogotik ekin zion. Ezin asiko gera orain aren emengo lanak izendatzen, luzeegia litzake eta. Ala ere, liburu ontako zati bat Donostian moldatutako bertsoekin osatu da, eta oiek zein diran or ikusiko du irakurleak. Geienak *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu ziran. Sariak ere bein baiño geiagotan irabazi zituan. Liburu bat ere argitaratu zuan 1895-an, *Zerbait* izenarekin.

Baiña emen bizimodua ateratzea zail egiten zitzaion nunbait, eta berriz ere Ameriketara joatea erabaki zuan.

Pasaia

Pasaian itxas-ontziratu zan Pedro Mari, bere emazte eta iru semeekin, osterara ere Ameriketara joateko, 1898-I-26-an, berak berrogei ta bat urte betetzen zituan egunean.

Aurretik bertso au kantatu omen zuan:

Ez nua borondatez,
bearrak narama,
nerekin daramazkit
iru ume ta ama;
iñork inguratu nai
badu neregana,
pozik egingo diyot
posible dedana.

Ameriketako bidai oiek zer ziran berak ondo baitzekian, besteei bere laguntza eskeintzen zien.

Jendetza aundia bildu omen zan ari azken agurra egitera, Txirritaren bertso batek ere adierazten duenez:

makiñat jende Antxo aldera
pausua eman deguna,
Amerikara dijudalako
gure Pedro Mari ona...

Jendearen artean, izan ere, iru bertsolari zeuden: Gaztelu-Gorria, Txirrita eta Urnietako Jose Maria Arregi. Intxasontziaren ondoraiño etorri eta bertso batzuk kantatu zituzten. Baiña Pedro Marik ezin erantzun izan zien. Berak esaten digu: «*No pude contestarles porque la emoción me embargaba*».

Ain mingarria izango zan noski arentzat Euskal-Erria utzi bearra, Jeronimo Elizegi bertso-jartzaille egokiak onela esango zion andik urte batzuetara:

gogoratzen naiz nola joan ziñan
negarrez urtzen Pasaitik...

Arjentina (1898-1910)

Arjentinan Pehuajó errian jarri zan Pedro Mari bizi izaten. Bizimodua ateratzeko zeri eldu zion ez dakigu.

Urtebete pasea egin zuan bertsozik argitara eman gabe. Baiña gero, Buenos Airesko euskaldunak *La Vasconia* izeneko aldizkaria ateratzen zuten eta antxe asi zan. Liburu ontako beste zati bat Arjentinako saillekin osatu degu. Angoak zein diran ortxe ikusiko du irakurleak.

Azpeitiar musikalaria bat ere an ezagutu zuan: Félix Ortiz y San Pelayo. Arek musika eta Pedro Marik letra asmatuz, alkarren artean bi opera osatu zituzten: *Artzai-mutilla* eta *Lora*.

Beste liburu bat ere orduan argitaratu zuan Otañok bere bertsoekin, *Alkar* izenekoa, 1904-ean.

Urte ortan, euskera-irakasle izendatu zuten Buenos Airesko *Laurak-Bat* elkartearen, eta iri ontara aldatu zan bizi izatera. Gustoko langintza izango zuan ori. Baiña, andik urtebetera ikasle gutxi zetorkiola eta utzi egin zuan.

Ondoren zer egin zuan illun samar dago. *La Baskonia* aldizkariak ere etzuan aren bertsozik argitaratzen. Baiña 1909-ko martxoan Santa Fe-n bizi zan.

Urrengo urtean il zan, 1910-ko maiatzaren 7-an, orain arte esan danez, berrogei ta amairu urterekin. Baiña il agiria bialdu digute andik, eta onek maiatzaren 6-an il zala adierazten du. Etxeko eskalleretan erori egin zala diotenak badira. Ala ere, mundu ontatik zerk eraman zuan ez dago oso argi.

Liburuak

Pedro María Otañoren bertsoak sarritan argitaratu dira aldizkarietan eta bertso-paperetan.

Baiña leenengo bilduma, esan degunez, Donostian egin zan, 1895 urtean, *Zerbait* izeneko liburuan.

Urrena, berriz, Buenos Aires-en, 1904-an, *Alkar* izenekoan.

Ontan oiñarrituz eta *Alkar* izenburua errespetatuz, Donostian egin zan irugarrena, 1930 urtean.

Laugarrena I.Unzurrunzagak prestatu zuan, eta 1959-an argitara eman, *Itxaropena* argitaletxean.

Gurea bostgarrena da. Liburu pare bat atera degu *Auspoaren Sail Nagusia* deritzaion ortan, Pedro Mariren bizitza aztertuz eta ezagutzen diran aren bertso guziak bilduz.

Liburu pare ori, ordea, adierazpenez eta oarrez beteta dago. Azterketak ala eskatzen zuanez, oiek danak argitara bearrak ziran noski. Baiña denbora berean garbi ikusten genduan orrelakoak irakurle askorentzat alperrik zeudela: bertsozale askok Otañoren bertsoak bakarrik naiko zituztela; jende ikasiak ere etzuala errez izango liburu pare aundi ori erabiltzea. Ala, beste liburu bat argitaratzea pentsatu genduan, komentario guziak kendu eta aren bertsoak soil-soillik izango zituana, itzaurrean bizitzaren gora-beerak itz gutxitan esanez.

Beste liburu ori esku artean dezuna da, irakurle. Bera prestatzerakoan, elburu bakarra izan degu: zizurkildar bertsolari aundiaren bertsoetara irixteko bidea erreztea, zenbat eta aixago irakurri, orduan-eta atsegin aundiagoa artuko zendualakoan.

A. Z.

ZENBAIT BERTSO

On Fidel Lizarragari

(1879)

On Fidel Lizarraga, atenditu beza:
bedorregana gatoz soñu eta dantza,
ezagaturik dala, komeni dan gauza,
ematia merezi duben alabantza.

Juan dan aspaldiyan desiotan geunden
gure alkate jauna ikusteko emen;
eziñ konsideratu progradu baño len,
erri au zertaraño konsolatu duben,

Jakiñik bedorrekiñ kontentuz gaudela
ez gaitu utzi biar bakarrik bezela,
gu emen geldituko gerade bestela
artzayikan ez duten ardiyak, bezela.

Bedorren anparua, gauza biarra da
bakarrik gelditzia guretzat txarra da
zuzen argi egingo digun izarra da
onorez beterikan Fidel Lizarraga.

Erri onen karguba aurten artu badu
gradu andigua-re merezituba du:
probintzi onek ondo luzituko badu
oraiñ alkate da ta laxter diputadu.

Fidel ikusi naia, emen bazeguan
joan dan aspaldiyan espero genduan;
ez berriz gugandikan apartera jua;
danok bizi nai degu bedorren onduan.

Bedorregana oso itxutubak gaude
aurrera ala izango gerade;
gertatzen baldiñ bada zerbait nobedade
gurekiñ konta beza kuidadorik gabe.

Biba on Fidel jauna, gure nagusiya;
gradu ori daduka ondo mereziya;
biba gero segitzen diyon justiziya.
Jaunak diyela urte askoko biziya.

Bertso auengatik onela dio Pedro Mari Otañok bere esku-idatzietan: «Oraiñ amasei urte, On Fidel Lizarraga jaun zanari (R.I.P.), alkate egiñ zuten ondorian, Villabonan, gaubaz eta soñubarekin batian, kantatu ginduzkan kopla koskorak».

Alkate ori 1879-an izendatu zuten. Ordukoak, beraz, bertso auek. Pedro Marik ogei ta bi urte zituan orduan.

ESKUTITZAK

Bertso asko bialdu ornen zituan Pedro Marik Ameriketatik eskutitz gisa. Saillik bikaiñena, 1889-an osaba Jose Bernardori bialdu ziona izango da. Baiña ori beste toki batean eskeintzen diogu irakurleari. Ona orain emen gure eskuetaraiño iritxi diran besteak.

Otañoren esku-idatzietan eta *Zerbait* liburuan onela irakurtzen da:

«Mikela, nere arreba maitiari, emendik Amerikara karta baten barrenian biraldua:

Ire gustoko gauzak zer diran
nere ustez bazekiñat,
gaztiatuko dizkiñadala
argatik agintzen diñat:
asko esan nai nizkiken eta
guztiyak ezin dizkiñat,
ainbeste ditun, auxen da lana!,
nondik asi etzekiñat».

Onako au ere esku-idatzietatik eta *Zerbait* liburutik artua:

«Amerikatik aitari Mikelak (nere arrebak) izkribatutako karta baten barrenian biraldua:

Aita, bai al daukagu
esan biarrikan
maiz aipatzen dirala
berok Amerikan?
Gure artian ez da
beste okerrikan,
aparte bizitzia
bakar-bakarrikan».

Beste au ere bi iturri oietan arkitua, esku-idatzietan eta *Zerbait* liburuan alegia:

«Jose Leon-i biraldutakuetatik bat (andik):

Kafia artzen diat
egunian bi aldiz,
eta nai detanian
pasiatu zaldiz;
obeto izatia
zalla uke agitz,
baldiñ bizimodu au
Donostiyan balitz».

Esku-idatzitik eta *Zerbait* liburutik bederatzi puntuko au ere:

«Nere adiskide Axintxio, Aduna-ko Sonola-kuari, Amerikatik biraldua:

Eziñ geiago triste
dago Buenos Aires,

adituko zenduten
norbaiten birez;
kanpotarrak millaka
zetozenak igez,
aurten lezakianak
egiten du iges;
aupen geiegiyez
bete da langillez,
denok gaure miñez
gaurko buruzpirez;
bañ'ez gera aztutzen
geren aixkirez.

Beste iru bertso auek, Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna zanari zor dizkiogu.

Leenengoa, Pedro Marik bere amonari-edo Ameriketatik bialdua ornen da:

Guztiyoi nai diyotet
ni maite nautenai,
endemas nere odol
beretik dutenai;
nola guztiyoi batek
eman digun danai,
nik bedorri maite det,
bai, amañia, bai.

Erantzuna onela artu omen zuan bere jaiotetxetik:

Laister ilko naizela
du askok esaten,
plazo fijorik ez du
gauz orrek izaten;
igez bajutxo nintzan,
eskaxago aurten,
laister Españiara
ez bazera etortzen,
alkar ikusi biarko
degu Josefaten.

Beste eskutitz batean onela esaten zioten Pedro Mariri:

Aitona Pedro Mari
ta amandre Mikela,
ez pentsatu aiek zutzaz
aztuta daudela;
orain ere ez daukate
memori motela,
ikusi nai baituzu
etorri beriala.

Beste bertso au ere Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jaunarengandik degu. Jose Bernardok-edo Pedro Mariri bialdua omen da:

Illoba, zaitutelako
nik maite biyotzez,
zu ondo izatiak
betetzen ñau pozez;
izan Jainko mendean
beterikan pakez,
au konpondu artean
euskaldunen bidez.

Nere amigo Vegari

Iru bertso auek ere eskutitz gisa moldatuak dira. Baiña etziran Ameriketatik Euskal-Errira edo emendik ara bialduak izan, Arjentinako erri batetik bestera baizik. Onela dio Pedro Marik bere esku-idatzietan eta *Zerbait* liburuan :

«Nere adiskide Vegari, Rosario de Santa Fe-tik Plata-ko errira biralduak:

1/ Gure Donosti eder artatik
irten nintzan ezkeroztik,
nik ez nekiyen non ziñan, urez
onontzik edo aruntzik:
zure berriyak etorri zaizkit
Plata ta Buenos Aires-tik,
ondo zerala esan dirate
Juan Berra-k eta Aristik;
len kuidadotan nebillen, baño,
pozkiroz nago gerostik.

2/ Aristi emen ikusi eta
lendabiziko galdeera
egiñ giñukan, bazekiyen non
ta nola zebillen Vega.
Erantzun zigun: —Platan dago ta
txit ondo bizi da bera;
aspaldi gora igo zan eta
nekez jatxiko da beera,
zergatikan guk korri bezela
arek egiten du ega.

3/ Besarkada bat biraltzen diyot
nere amigo Vega-ri;
animatikan sentitutzen det
eziñ emana berari;
bañan besuak eziñ iritxi
urruti daguenari;
nik oraiñ ere igual nai diyet
len maite nitubenari;
nai dezunian etorri zaitetz,
emen dago Pedro Mari».

Amerikatik osaba Jose Bernardori biralduak

(1889)

1/ Milla zortzireun larogei eta
bederatziya da aurten;
orra ogei ta amabi urtek
nola arrapatu nauten,
ni Illbeltzaren ogeita seian
Errosariyo Santa Fen:
nere osaba barkatu bizait
ixilik egon banaiz len.

2/ Zer kontatuba pranko badaukat
ondo esango banitu;
bañan guztiyak karta batian
eziñ litezke kabitu;
sekulan ez naiz oraiñ aldiyan
beziñ nastuba arkitu;
Joxe Leoni galde bizaio
notizi denak ark ditu.

3/ Ai, zer ote da goitikan beera
gizona beñ amiltzia!
Beñere ez naiz arrua izan,
bañan au da umiltzia
ez nuben uste bazeikiala
gaizkiyago ibiltzia;
azken aldera errematxatu
zait len nedukan iltzia.

4/ Rosario-tik Córdoba-raño
Joxe anaiarengana
joan ta, izan naiz lau illabetez,
bizi naiak eramana;
osasuna ta esperantza zan
aruntzian neramana;
oso estutik eskapatu naiz
iya galdu nuben dana:

5/ Nola aparte bizitu giñan
biyok denbora luzian
ai! ura gure eziñ asia
elkargana bildutzian;
Joxek etzuben itzik somatzen
nik lepotik eldutzian;
orduban etzan poza besterik
lengo penak galdu ziran.

6/ Zegon tokira ni joan baño len
irten zitzaidan bidera
burnibideko estaziyuan
izan zan gure billera;
alkar topo an egiñ genduben
ura gora ta ni beera;

etzait aztuko bañan nol'esan
gau artako ibillera.

7/ Guk ere anbat izan gintzake
geren alderdi flakuak:
bañan senide guztiyak gera
elkarrentzat alakuak:
Josek botatzen zituben pozez
ginga añako malkuak;
maite nola ez izan anaiak
ura dan bezelakuak.

8/ Bañan luzatu etzezakian
gau artako umoriak;
urruti zeuden aita Juan Pello
eta gure senidiak;
beti bezela maite ditugun
aide ta adiskidiak;
au pentsatzian illundu ziran
gure pozaren biriak.

9/ Bakarrik ez dan siñalia da
pena bat agertutzia;
andikan laxter sortu zitzaidan
gaitz bat txarra ta luzia:
asko du jakiñ nai dubenian
pasa detan gurutzia,
Joxe Leoni biraltzeiotan
papera irakurtzia.

10/ Nunbait betiko erori ez ta
noizbait jarri nintzan txutik;
bañan bizi gaizki nebillen
burutik eta petxutik;
Mikelak eta Juan Marik gero
deitu ziraten etxetik:
Errosarion sendatu naute
an sortutako gaitzetik.

11/ Zizurkildikan Madrilla añã
bide gutxi gora-bera
ni engañatzen ez banaiz dago
Cordobatan onera:
anaia Joxek lagundu ziran
kotxiarekiñ trenera
anparo billa etorri nediñ
nerien aldamenera.

12/ Penaz bete ta pozaren billa
etorri nintzan aruntztik;
nere arrebak zer esan ziran
goguan daukat geroztik:
—Berso ederrak, ordañen truka,
osabak biraltzen dizkik,
oien bueltak jarri bialtuk
denak aitu ez bazaizkik.

13/ —Txit artakotzat artzen natxion
osabak bere noblezan
eta sentitzen deran guztiya
nik etzekiñat nol'esan;
bañan zedozer jarriko diñat
seguru idukiezan,
borondatia falta zaidanik
iñork sinistu ez dezan.

14/ Iduritutzen zaidan batzubek
duda badabilkitela
ikusirikan nik aiei aña
kaso egiten diratela;
bañan ixilik egonagatik
ik ondo dakiñ, Mikela,
guk nai diyegun baño geiago
eziñ nai izan leikala.

15/ Beron gañian izaten dira
gure izketa geienak:
nola ez ditu maiz aipatuko
onenbeste nai diyenak!
Guretzat oraiñ aundiyak dira
orko gauzik txikiyenak.
Au esaten det jakiñ dezaten
lenago etzekitenak.

16/ Lenago anbat aiñtzat artzen ez
ginduzen gauza guziyak,
aiñbesteraño edertzen ditu
oraiñ eziñ ikusiyak:
Euskal-erriko mendita zelai
ibai arkaitz ta sasiyak,
beñere eziñ aztu litzake
aien tartian aziyak.

17/ Gu geienian gabiltza emen
esna ere ametsetan,
beti pentsatzen berengan eta
Euskal-erriko gauzetan
askok diyonez bizi gerade
txit toki aberatsetan,
bañan ez dago Donostiya-rik
gure lurrian bestetan.

18/ Ameriketan ikusten ditut
zenbait euskaldun «andaré»
bizi diranak beren lurrari
aitormenik eman gabe...;
bañan ez dute ezagutzen, ta
oielk barkatubak daure.
Nik Donostiya eskatuko det
Paraiso-ra, joanta ere.

19/ Euskal-lurreko lore-baratza
Zeruko intzez bustiya
beste izar ta argi guztiyak

itzaltzeko eguzkiya;
zure berdiñik iñun ez dezun
biyotzeko Donostiya...
Nork du mingaña zu gortitzeko
merezi dezun guztiya!

20/ Donostiyako *ciudadia*,
Irutxulo-ko uriya;
Etxian zuben perlik onena
Jainkuari ixuriya
zartzen diranen alaitzallia
gazte guztiyen nobiya;
Zeruba zer dan ez dakit, bañan,
zu zera nere gloriya.

21/ Urruti zaude eta zalla da
ni zugana irixtia;
onenbeste nai dizun batentzat
zer bizimodu tristia!
Alaipire bat bakarra daukat:
ametsetan sinistia;
Zu ikusteko noiznai asko det
nere begiyak ixtia.

22/ Nere osaba Joxe Bernardo
iritxi naiz ontaraño
ta ixiltzera nua, zer esan
asko badaruzkat baño.
Gure berriyak zabaldu bitza
derizkiyon lekuraño
esanaz bere illoba dala
Pedro Maria Otaño.

Amabigarren bertsoan esaten danez, arrebak eskatzen dio Pedro Mariri bertsoak jarri distan, osabak bialdu dituanen erantzuteko. Zorionez, osaba Jose Bernardok bialdutako oietatik, bertso bat osorik eta beste baten bukaera ezagutzen ditugu, beraren alaba Adriana zanak emanda :

Sasoi onenak aldegin zigun,
ez gaude lengo tamañak,
eta len ere, egia esan,
ez giñan oso bikañak;
memoritikan notizi txarra,
trabak daduzka mingañak,
dijuazenak bañan obiak
esperatze'itut ordañak.

Eta bestearen bukaera:

ia etortzen ote zeraten
nere anaia ta biyok.

«Bera jaio zan oiaren eske»

Otañok, bere esku-idatzietan eta *Zerbait* liburuan, onela esaten du :

«...osabarekiko partieran, abotik abora botatako bat, aditzalliak ikasiya:

Agur nere osaba
ta parientiak
ariyo adiskide
ta lagun maitiak;
pena ematen dit zubek
utzi ta joatiak;
berriz etortzen bañáis
ez itxi atiak».

Bigarren aldian joan zanean katatua izango da.

Urrengo au Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jaunari zor diogu. Idazki batean onela zion :

«Pasaian, Jose Bernardok legorretik, barkuan zijoan Pedro Mariri :

Nere illoba, egin bazaizu
Amerikara joan naia,
desio dizut izan zazula
gutziz biaje alaia;
ara joatian eiten bazaizu
onera etorri naia,
Errekaldian an egongo da
zu jaio ziñanden oia».

Urrengo bertso au, bere aurreko argibidearekin Pedro Mariren esku-idatzietatik eta *Zerbait* liburutik artua degu.

Onela dio :

«Amerikatik etorri, eta, bere etxeko atia joaz, osaba Jose Bernardori, abotik abora botia, oroiturik nola berak ni aruntz joaterakoan esan ziran kantuz: «Oraiñdikan an dago, jaio ziñan oia...»

Osaba baldiñ ez badaduka
eiteko aundiyen bat or,
gizon bat dago bedorren galdez,
ate ondoraño betor:
bedorrek ondo dakiyena da
agintzen dana dala zor:
bera jaio zan oiaren billa
illoba orantxen dator.

Baina Pedro Mariren etorri-aldi ontan bina bertso kantatu zituzten osaba Jose Bernardok eta biak. Bertso oien leenengo aitamena or goien ezarri degun bertso ori da, Pedro Marik berak ematen duan testigantza, alegia.

Beste testigantza bat badegu une artan antxe bertan zegoan batena: Jose Bernardoren alaba Adrianarena. Bera neska koskorra zan orduan. Onelatsu esan zigun 1960 urte inguruan:

«Nik an aditu nituan. Atea piska bat iriki zutela uste det, eta aitak barrendik eta Pello Marik atez kanpotik. Aurretik Pello Marik kantatu zuan:

Nere osaba, ez baldin badu
eginkizun aundin bat or,
gizon bat dago berorren galdez,
ate ondoraño betor.
Bedorrek ondo dakiena da
agintzen dañã dala zor,
bera jaio zan oiaren billa
illoba oraintxen dator.

Ni aditzen nengoan. Eta aitak onela erantzun zion:

Nere illoba, esaten dizut
ongi etorri zerala,
jaiotako oia jantziko dizut
gusto aundiz beriala,
arropa zuri ederrenakin,
parpallak darizkiola,
sinistamena eman deizudan
biotzez nai dizudala.

Besterik ez dakit kantatu zuten. Orduan atea iriki ta barrena sartu ziran.

Ama sukaldean eta ni sukaldera joan nintzan korrika, berari esatera:

- Ama, ama, bertsotan ari dira!

Eta amak esan zidan:

- Bai, bai. Ixo, ixo. Egin dezatela.

Bitartean kantatuko zuten geiago. Baiña ez nituan aditu. Ala bearko zuan. Ni neska koskorra orduan».

Adriana au 1880-ko iraillaren 8-an jaioa zan. Bede-ratzi edo amar bat urte izango zituan, beraz, orduan.

Esan bezela, bina bertso kantatu zituzten aldi artan osaba-illobak Errekaldeko atean. Manuel Lekuona apaiz jaunak bere *Literatura oral euskérica* liburuan dakarzkian bezela jarriko ditugu emen:

- Osaba, baldin ez badaduka
eiteko aundiyen bat or,
gizon bat dago berorren galdez,
ate-ondoraño betor.
Berorrek ondo dakiyena da

agintzen dana dala zor:
bera jaio zan oiaren billa
illoba oraintxe dator.

- Nere illoba, esaten dizut
ongi etorri zerala;
jaiotako oia jantziko dizut
gusto aundiz bereala,
erropa zuri ederrenakin
parpallak darizkiola,
sinistapena izan dezazun
biyotzez nai dizudala.

- Esperatutzen nuan bezela
egin nau errezibitu:
gizon on baten sentimentuak
zeñek bedorrek baditu.
Mesede asko egin izan dit
denak esango banitu;
bañan memori simple askotan
ezin litezke kabitu.

- Eskerrik asko esaten dizut
aitormen ori dalako;
orregatikan gure etxian
ezer etzaizu faltako;
edari onak izango dira,
aukera, berriz, jateko;
zure aitzekin biyok ederki
tripak ditugu beteko».

Lekuonak ez du esaten bertsoak eta aurreko argibideak noren aotik jaso zituan. Baiña Otañotarren kastakoa zan Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna izango zan bertso oiek eman zizkiona.

AOTIK AORA

Pedro Mari Otaño eztarri txarrekoa ornen zan. Orregatik, *Katarro* edo *Kattarro* esaten omen zioten gaitzizenez. Orrek galerazi zion plazetan kantatzea. Eztarri txar orren erruz, aren aotik-aorako bertso gutxi iritxi zaigu. Banaka batzuk bai, ala ere. Plazan jende aurrean ez kantatuagatik, lagun artean-eta bertsotan egiten baitzuan.

Atal ontan Pedro Mariren alako bertso batzuk eskeiñiko ditugu, aotik-arorakoak alegia, bildu aal izan ditugunak.

Otañoen *Zerbait* izeneko liburuan (Donostiya, 1895), atal bat badago aotik aorako bertsoentzat. Aurretik onako oar au idazten du:

«Abotik abora, leku ta aldi banatuetan botatako batzuek, aditzalliak ikasiyak».

Trekurenian:

Fermiñak ura bota
dit deskuidatuta,
eta utzi nau indar
geienak kenduta;
bañan nik esperantza
ez daukat galduta,
oztu dubenak aisa
berotuko du ta.

Norbaiten aotik argibide auek jaso nituan bertso oni buruz: Donostiko San Jeronimo kaleko taberna batean gertatu omen zan pasadizo au. Bertako neskamea suilla urarekin omen zetorren, eta Pedro Marik, artean gaztea, zirri bat egin, eta neskameak orduan suilla aren gaiñera.

Bartolo-enian:

Jaun abek beti jantzi oi dute
zeru-koloreko kapa,
esku bat jarri petxuban eta
bestiarekiñ arrapa;
munduko gauzai itsasten zaizka
nola arrokari lapa...
Oiek dirade diszipuluak
ta maisuba Carlos Chapa.

Bertso ontan apaizengatik ari da noski Pedro Mari. Carlos Chapa, berriz, Karlos zazpigarrenari esaten zioten isekaz liberalak.

Treku-enian:

Iñulabarrerako
asten gera iñoiz,
esanaz etxera joan
biar degula goiz;
bañan eziñ giyatu
gerade arrazoiz,
muatuko al gera...

bañan ez dakit noiz.

Patraman-en etxe aurrian:

Beraz, etxe onetan
bizi da Patraman?
Laxter aberasteko
zer martxa daraman!
Nik zerbait utzitzeko
asmoa neraman,
ortxen konpon dedilla
nai ez badu eman.

Bertso onen gertaera onela eman zidan izena artu ez nion batek: Herreran, Patraman-enean taberna zegoan. Bein batez, Donostitik Iruna edo Irundik Donostira kotxean zetorren gure Pedro Maria. An ezaguna izan eta gelditu. Deitu eta iriki nai ez. Orduan bertsoa kantatu zuan.

Bertso ontan apaizengatik ari da noski Pedro Mari. Carlos Chapa, berriz, Karlos zazpigarrenari esaten zioten isekaz liberalak.

Café Norte-n:

Serenuen kabua
asi zaigu gogor,
gu etxera bialdu
nayian derrigor;
onen esanagatik
ez da joango iñor,
ez kasorikan egiñ,
konpon dedilla or.

Rosario de Santa Fe-n:

Sasi tarteko lore eder bat
bezela dago euskera,
eztakit nola konformatutzen
geran txokuan uztera;
esku on batek beiñ aterako
baluke erakustera,
ez det bildurrik larperatuko
litzakianik ostera.

Billabonan:

Etorritzen danian
Agustín Beloki,
leiora tirako du
zerbait poliki;
onek deituko dizu
biziro egoki,
zuk belarriyak erne
orduban iduki;

azkar oitik naiki
ta jantzi ederki,
beera jatxi aurki
t'atia iriki;
ortik aurrerakua
berak badaki.

Jose Leon-i biraldutakuetatik bat (andik):

Kafia artzen diat
egunian bi aldiz,
eta nai detanian
pasiatu zaldiz;
obeto izatia
zalla uke agitz,
baldiñ bizimodu au
Donostiyan balitz.

Bertso au Emeterio Arresek eskeintzen digu, *Olerki loretegian, Pello-Mari Otaño* idazlanean (*Euskal-Esnalea*, 1931). Onela dio:

«...jai-artsalde batean Jose Treku, Pio Bizkarrondo ta beren lagun batzuek Ernanira joan ziran.

Aldi atsegiñez an egurastu ondoren itzul bidari ekiñik, oñez, Donostira jo ta Kalenea deritzon sagardotegira eldu ziranean, ustegabezko poza! Otaño an...

Trekuk bereala:

- Aizazu, Pello-Mari: ona emen Bilintxen semea. Zerbait esan nai badiozu, orain abegune.
- Benetan ari al zera?
- Bai; bene-benetan ari naiz.

Pello-Mari orduan, Trekuren sorbaldagain eskua ezarri ta Piori begira, onela jardun zan:

Zu Bilintxen semea
zera nereko,
onek ezpalira esan
ez nun igarriko.
Arren aurrean guzik
beti belauniko,
emendik joan zan baña
sekulan ez da ilko».

Beste bertso au ere Emeterio Arreleri zor diogu. Leen aitaturako *Olerki-loretegian, Pello-Mari Otaño* idazlanean (*Euskal-Esnalea*, 1931), onela dio:

«Beste bein, amaikide (*consonante*) zalleko bertsoari asiera geok eman ezkerro larri xamar ibilliko zanaren ustez, neurtitz eresgogor, biyurri au otu zitzaigun:

Nere etxeak baditu
makiña bat krixket...

Buruari azka alditxo batean egon zan; ixildu ez orratio:

Zure etxeak titula
makiña bat krixket?
Lapur bildurrez nunbait
oinbeste karrasket.
Nik etxalari txuri bat
biotzean dagert,
t'ate zabal-zabalik
ortxe bizi nai det.

Aren erraztasunak etenik ez beñere»

Bertso au Ernaniko Pablo Zubiarrain Ernani-Txikia bertsolariari zor diogu. Onela esan zigun:

«Gure aiton difuntua eta Txirrita-eta, bildu kuadrillan Ernaniko Karabelen. Pedro Maria Otaño ere ara etorri. Onek azkeneko bertsoa, etxera joateko despedira, onela kantatu ornen zuan:

Herrerako onduan
antxen dago Pasai,
aurrak eta emaztia
antxen daduzkat zai,
beste egun batian
kantako deu lasai.

Puntu bat falta du orrek, baiña etzait orain gogoratzen»

Urrengo bertso au Otañotarren famili artekoren bati jaso niola badakit. Baiña aren izenik apuntatu gabe utzi nuan. Onela esan zidan:

«Pedro Mari Andoaingo Bastero tabernan zegoan eta kantari ari zan. Entzule batek iseka edo parrari eman zion, aren eztarri txarrarekin. Eta orduan Otañok berari:

Iduki izan bazendu
nere katarrua,
etzenduen egingo
olako marrua;
jakinduri gutxi ta
au gizon arrua,
ontzia izan baziñan
ai zer kankarrua!».

DONOSTIKO BERTSOAK (1890-1898)

Amets bat

(1891)

(*On Ramon Artola euskal-izkribilari zarrari ordaiñez.*)

Ni jaio nintzan Euskal-lurreko
leku pozgarri abetan
eta euskera irintsi nuben
lenbiziko arnasetan
amak siaskan nedukanian
edo bere besuetan,
kontu politak esanaz beti,
kantatuaz batzuketan,
geren aitona moldatutako
itz neurtu ta bersuetan.
Neri begira eziñ aspertuz
antxen, ordu osuetan,
semetxuaren bizigarriya
berak bere petxuketan
emanaz, azi ninduben aiñ
izaera goxuetan,
non egundaino etzaidan aztu
geroz nere pausuetan,
iñoiz arkitu izanagatik
bizitza erosuetan;
ainbesterañ baturik negon
neronen gurasuetan
ta txikitatik. nere onduan
ikusitako gauzetan;
bañan etsaiaz miñ artzen nonbait
gure poz ta jolasetan,
argatik gerok batere kulpik
ez gendubela ezertan
txit urrutira-joan biarra
izandu nuben batetan;
oso gazterik arkitu nintzan
Amerikako Panpetan,
ta bizimodu txit erosua
iduki arren an bertan,
nere biyotzak etziran uzten
sekulan ere paketan,
iduri zuben berriz eguak
neukazkiyela anketan;
esaten da, bat bizi leikela
ondo alderdi danetan,
—bai asetzia beste gauzarik
ezpadu artzen arretan—;
bañan gizonzk odol pixka bat
baldin badu erraietan
eta txikitan bizitu bada
esan dan modu aietan,
egunaz zerbait atzendu leike
darabiltzkiyen lanetan,
bañan pentsatzen jartzen danian
bakardadian gaubetan,
zenbateraño supritutzen dan
nik ondo progatu det an:
iñola ezin pentsatu nuben

nere lurrian bestetan,
eta, ara zer gerta zitzaidan
arrats batez ametsetan.

Amets eragiñ ziran
neukan desiuak;
non artu ordurako
arrats artan luak,
beriala zabaldu
zizkiran eguak,
ta lagundurikan
betiko leluak,
ixtan, patez igaro
nituben leguak,
mendi eta zelaiak
tontor da zuluak,
legor eta bustiyak,
lur ta itsasuak,
laño eta odeiak,
erri ta basuak,
batere neke gabe
egiñaz pausuak,
neretzat bide denak
ziran erosuak;
inbiriya ziraten
aideko usuak,
atzian gelditutzen
ziran balazuak,
ta etziran segitzen
tximistaren suak;
eziñ busti ninduben
euri erasuak,
aitu ziraden traba
eta arazuak;
urruti egon arren
nere gurasuak,
Amerikan zabaldu
orduako besuak,
biyen tartian artu
nituben gaxuak.

Nik.— Ama!... Aita!... Amatxo!

Amak.— Nere seme!!... Semetxo!!

Nere besuetan... o!

Aitak.— Mutill, emen aiz?

Nola ago?

Amak.— Ai! Eutsi, nere xeme...

Muxu bat, onlaxe:

Má, má, berriz, ere bai,

má, len bezelaxe...

Jango zinduzket dana,

aren nago gose...

Auxen da zoramena,

ni eziñ naiz ase...

Nere seme laztana,

ondo zaude noski?

Ni illko ninduke zu

ikustiak gaizki...

Sekulan ez det izan
ai! onenbeste poz,
argatikan begiyak
bete zaizkit malkoz;
bañan biyotzetikan
aiñ eztiro datoz,
farrez baño geiago
gozatu det askoz;
nere seme ederra,
eldu berriz, atoz.

Nik.— Ama, aita....

aparte bizi beraz
onenbeste naita!!

Aitak.— Mutill auxen nai nikan,
oraiñ emen ago
ta ez dek noski berriz
asmorik izango
gure aldamenetik
joateko geiago;
ez aldiguk orlako
penarik emango!

Amak.— Zer da, nere senarra,
zer da kontu ori?

Geiago orlakorik
begira gero neri
aipatutzen banazu!
Atoz; Pello Mari,
laztan gozo bat, muxu....
orlaxen... amari...

Nere seme ederra,
au poz eman diak!
Iya ler eguiñ nikan
nere barrunbiak!
Ama guztiyak gaituk
semien zaliak,
bañan nork izate'izkik
onlako aliak?
Nik egiñgo nizkikek
millaka galdiak,
nekatuba ez baldiñ
baeuka biriak,
bañan nola egongo
aizen logaliak,
ondo gobernatuta
oiera joan biak.
Denak lotan zioztik
ire senidiak,
—i ezkeroztik sortu-
tako landariak—⁽¹⁾;
bigar gonbidatuko
dizkiyat aidiak
ta inguru-mari-
ko adiskidiak,
pobre izan arren ez

gaituk eskaliak,
zer jana bazedukak
gure sukaldiak;
bañan nik badizkiyat
mokaru obiak,
armariyo txokuan
iretzat gordiak,
umotutako sagar
eta udariak,
jarri ezkeroz iñork
ikutu gabiak...
Ia, semetxo, muxu
bat eman akiak,
goxatzen aukanian
oieko pakiak,
aiek janaz kontubak
esango nazkiak...

Aitak:

Zer goguangarriya
dan gaurko eguna!
Auxen da suertia
izandu deguna,
etortziaz gañera
gure seme ona,
guk etxian ostatur
daukagun amona!...

Amak:

Iya ez nintzan artaz
oroitzen, gizona;
gure mutillak eman
digun poztasuna
dala meriyo, neukan
burutikan juna.
Uraxen da xarra ta
polita zegona!
Begiyetan aldizka,
zer alaitasuna!
Bañan galdu xamarra
dauka osasuna,
edo barrenen zerbait
berak nai eztuna.
Suspiriyo batzubek
ixilik entzuna
nago berari, eta
pentsatzen egona:
«Atso xar polit onek
zer ote du Jauna?
Semien bat agiyan
aldegiñ dubana?»
Ainbeste begiramen
neukan beregana,
ikusirik aiñ xarra,
garbi ta txukuna,

berrogei arabakiz
konponduba gona,
alde danetara aiñ
modu polit duna,
diruri aingeruben
kolkoko kutuna.
Kontatu digu bere
bizitza astuna
- guk zer baliyo degu?
Ura da iztuna! –
ai aiek gauz ederrak
esan dizkiguna!,
bañan erana dago
nonbait beazuna;
negarrez aipatutzen
du etorkizuna.
Nik oro nola deran
txit biyotz biguna,
berialaxen artu
diyot naitasuna,
eta galdeturikan
al beziñ leguna:
- Ama, berori zein da,
anbat alarguna?
Erantzun dit esanaz:
- Ni naiz *Euskalduna*.

Onen ondoren, amak
agindu bezela,
eskuban arturikan
piztu ta kandela
ta esanaz Jainkuak
gaubon ziyotela,
zai nedukan oiera
joan nintzan berela,
amona xar on ura
goguan nubela.
Erantzi ta maindire
tarteko onela
goxatzen, iya luak
artuban neguela,
ta begiyak itxiyak
nedukazkiyela,
golpez ikusi nuben
argituba gela,
eta erdi-erdiyan
txutik zeguela,
amona xar bat diz-diz
egiten zubela,
zeña izketan asi
zitzaidan onela:

— Ama Euskera naiz, Pello Mari,
etzaitzezela bildurtu;
kezketan nator beste aldera

ote zeraden biurtu.
Ainbeste semek iges egin dit,
iya naiz negarrez urtu!
Ez ote dezu zuk ere naiko
nere malkorik legortu?

Au aditzian odol guztiyak
ur biurtu zitzaizkian,
eta saltatu nintzan oietik
zergatik negon gaizki an,
esanaz: «Ama, bere lurrian
beraz berori eskian?
Beria nau ta agindu bizait
nik zer egiñ nezakian».

«Gauza aundirik etenezake,
ezagututzen det ori;
urruti izan dan batentzako
franko lan zalla diruri;
bañan eztiyot nik eskatutzen
eziñ dubenik iñori,
eta ara zer agindutzeko
asmoa daukadan zuri.»

Eskutik eldu ta muñ emanaz
bertan belaunikaturik,
erantzun niyon: «Ama, agindu,
ez izan nitzaz ardurik.
Beraz bedorren lurrian dago
euskera iya galdurik?
Ni beria nau eta ez det nai
kontzientziko kargurik».

«Diyozun aña maite badezu
zartu dan Ama Euskera,
billa ezazu *Euskal-Erria*
izendatzen dan papepa;
ura da nere bizi-lekuba,
ez det nai andik atera;
seme leialak an biltzen zaizkit
joan zaiztez aien artera».

Ama Euskerak au esan ziran
jarririk begi alaiak
orreatikan nakar onera
berari lagundu naiak.
Gutxi nezake, oso txikiyak
dira nik dauzkadan gaiak;
bañan pozkiroz egiñgo ditut
gaubak egun, aste jaiak:
leku pixka bat *Euskal-Erria*'n
eskatze'izutet, anaiak.

Bertso-sail luze au Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artu degu.

Onek egun bat du saillaren ondotik: «Donostiyan, Marchuaren 20an 1891n». Baita bertso au ere:

Lan onen ondorian
egiñ nitubenak
nere memoritikan
joan dira geienak;
emen ipiñi arren
buruban daudenak,
motxak irteten dira
nere *Oroimenak*.

(1) Pedro Mari, leen esan degunez, senideetan irugarrena zan. Aurretik, bere arreba Juana Bautista zuan; eta Mikaela, bere arreba bixkia, umetan illa. Beste guziak, berriz, «i ezkeroztik sortutako landariak».

Nasketak

(1892)

Lengo egun batian
Juan eta Andres,
inguraturik beren
umez eta andrez,
asi ziran izketan
bullan eta oska
bazirudiñ norbait jan
zutela ozka.
Andre eta umiak
gero etxera jua
ta bakarrik gelditu
ziran Andres ta Juan.
Biyak mintzatzen ziran
ainbesteko suban
jende ark nunbait txit miñ
izan biar zuban.
Andresek onla ziyon:
«Adi ezazu, Juan:
lengo oitura onak
nora zaizkigu jua?»
«Lengo oitura onak
nora jua diran?
Baziñaki bada zer
su ematen diran... »
«Zu ematen dizula? »
«Su esan dizut, su;
zer euskaldun andaluz
zerade berriz zu?»
«Nik ori esan arren,
euskaldun bikaña,
lur au maite detana
agiyan bik aña.
Nola esan nik zenbat
maite detan bera!
Ikusten deranian
dijuala beera,
negarrez urtutzen da
nere biyotz beraa.
Gure ontasun danak
dizkigute ostu,
gero sutan gaudela
nola ordia oztu?
Guri bildu zaizkigu
urtiak gañera
ta semiak soldadu,
eraman gañera.
Eziñ gusto emanaz,
ainbeste erori,
guk, zer egingo degu?
Lurpera erori!
Nere emaztiari
begira negon atzo,

gazia dalarikan
biurtu zait atso.
Txardiña zarra jan ta
gañetikan ura,
nola onduko zaio
kolore txar ura?
Ezurretan barrena
sartu-zaio otza,
gau guztiyan badegu
eztularen otsa.
Seme bat du ta bera
soldaruskan sartu,
bat denbora baño len
nola ez bada zartu ?
Oraindik gaztia da
urtez eta illez,
buru dana betia
biar zuben illez,
ortzak ere juan zaizka
indar danak illez.
Aren kolore onak
zeduzkanak igez,
egiñ diote noski
sekulako iges.
Len pozez mendiraño
oi zana atera,
gaur ozta azaltzen da
etxieko atera.
Beldur nintzan gaitz ura
geiegi eltzia,
ta salda onarekiñ
jartzekoz eltzia,
biarrezkua nuben
zerbaiti eltzia.
Ill nituben lau ollo,
ollarra ta atia,
bañan nere andriak
eziñ pasa atia.
Beiak ere esnerik
etzedukan iya,
zergatik jaten zuben
zingirako iya.
Onelakoxe danak
etorririk guri
iya igartu gera
len geundenak guri».
«Zure koitak ixilik
dizkitzut aditu,
esan dezu nekian
zerala aritu,
lengo ondasun danak
ala ere aitu,
sinista zazu ez naiz
batere arritu.
Ni gauz oien gañian
izketan astian,
ari neike ixildu

gabe bi astian.
Nik guztiyak esango
banizkitzu zuri,
izubak ipiñiko
zinduzke aiñ zuri,
non egingo zenduken
zuk, ezikan eze,
ikararen indarrez
balantz edo ese,
ta lurrera erori
igar eta eze.
Nik ere banituben
lau bei ta bi ari,
gañera berdumenak ⁽¹⁾
zenbait libra ari;
nere andria beti
ardatzian ari,
semeari esanaz
«Mutill, saia ari»;
danak eman giñuzkan
zure etsai ari.
Nik ere banituben
ala ta botia⁽²⁾
diana dadukat aiñ
urruti botia,
gomak ez luke egiñgo
aiñ luze botia.
Oraiñ etorri zaigu
bizi-modu zalla,
galdu gendubelako
len gendukan salla.
Lo egiteko daukat
oirik ez ta aska,
alperrik da nai arren
memoriya aska,
ill arte bizi biar
burubari azka».
Izugarrizkua zan
gizon aien miñtza,
argatikan ziraden
era ortan mintza,
aserrez gorriturik
aurpegiko mintza.
Aiek esango zuten
geiago're anbat,
bañan ezin zeikian
beti egon an bat.
Argatik ez nioten
geiago aditu,
ta neronek somatzen
ez det nai aritu.

Donostiaan, Ilbeltzaren 21-ean, 1892-garren urtean.

(1) berdumenak : *hilo crudo*, Azkuen iztegiak dakarrenez

(2) *Ala* txalupa mota bat da, txikia; eta *botia* erderazko *bote* da emen

B-rekiñ

(1892)

Baldiñ bizi baleike
bat bakarrik, berez,
besteren biarrikan
bage, bakardadez,
baliteke buruba
berotzia birez;
bañan bakoitzak beti
biar badu bestez,
beti baldiñ bagabiltz
biarren biarrez...
begiratu biagu
bi begiz biyotzez;
burlarikan beñepeñ
bajuai beñerez,
bestela bildu biar
baletorke... baietz;
baldiñ begiramenik
bage, banidadez
bagabiltz bekokiya
biurturik beltz.
Bagebiltake beiñ beren
besteren bildurrez
biar bezelakuak
bagiña barrunbez?

Onen ondoren jarritakuak
beste batzubek baziran;
bañan etzaizkit bururatutzen,
ai, zenbat aztu zaizkiran...!

Ordañak

(1892)

1/Beti oitura deran bezela
juan dan larunbatian,
lantegitikan atera eta
afaltzera bitartian,
Lenguxu-nera juan nintzan ta
sartu orduko atian,
Pakok sei berso eman zizkidan
papertxo txuri batian,
ezanaz: «Ia asmatzen dezun
zeñek moldatubak diran»

2/Aiñ griña aundiz gelditu nintzan
begira paper artara,
non irakurri nitubeneko
bost edo sei errenkara,
eranzun nion: «*Pako*, kantu au
izugarri ederra da,
ta nere ustez etzitzakian
Sarituak bestek para;
nik dakidanik ura bakarrik
irixten da orretara».

3/«Asmatu dezu - zion far-irritz -
ark berak ipiñi ditu,
ta badiruri ederragorik
eziñ leikela aditu;
or ezagun da nola etzaizkan
oraindik indarrak aitu,
bañan txit onak arek jartziaz
eziñ giñtezke arritu,
sinisten zaill bai izango zala
txarrak azaldu balitu».

4/Askok aitortzen ez du dubela
euskerak edertasunik,
ezagutzen ez dakitenentzat
ezer ez baita gauz onik;
bañan paper au irakurrita
zuri esaten dizut nik:
kantu doaiez betetako au
bear bezela entzunik,
ez nuke nere lagun izan nai
limurtzen ez dan gizonik.

5/*Sarituaren* muñetan suba
Musak zuten irazeki,
ta pentsaerik aundientzat
badu bear aña toki;
jakintsu danen gisara egiten
du bere buruba txiki,
aiñ maite duben Ama Euskera
nairik lurretik eraki,
biursarien galdezka dator

ta berak aña nork daki?

6/Ama Euskera maite dutenak
zenbait euskaldun onradu
oraindik ere arkitzen dira,
ontan suerte ona du;
bañan aiñ ego motxak dauzkagu,
eziñ jua gera gora gu;
zu *Saritua* zuaz aurretik
eta bandera zabaldu,
nik desio det ibillitza
zure atzetik soldadu.

7/Beste izkuntzik galtzen saiatu
ez bada Ama Euskera,
zertako datoz atzerritarrak
oso zegona austera?
Pixti gaizto bat balitz bezela
sartu naian austera?⁽¹⁾
Nola ez gera gu altxatuko
Amari txutik eustera?
Izan gaitezen seme leialak
goitu dediyen ostera.

8/*Sarituari* nik opa diot
esan dedan aña sari,
batek bear du ta, zergatikan
au ez izan buruzari?
gañera emen badaude onak
beste zenbait biursari,
buru ta biotzezko lan ontan
oi diranak tajuz ari,
Amak eskerrak emango dizka
seme danen laguntzari.

Ordañak izeneko zortzi bertso auek Pedro Marik Biktoriano Iraolari zuzentzen dion erantzuerara dira. Ona, Iraolaren beste olerki ori, *Euskal-Erria* aldizkarian, 1891 urtean, ageri danez :

PEDRO MARI BIURSARI GOZOTSUARENTZAT

1/ Dakidalarik, kasikan iya
ezin sinistu dt nik, ai!,
Aitorren seme biursariyak
eztubela kantatu nai;
zerubak zuri euskal izkuntzan
emanik ainbeste doai,
Ama Euskara zu entzuteko
gaisoa or daukazu zai,
poztu deriyen esan zaiozu:
"Bai, kantatuko dizut, bai!"

2/ Esan zaiozu bete-beterik
petxu leiala su-garrez,
kanta zaiozu iruki gabe
Ama maitia negarrez,

arranoaren egaa moduan
goiturikan indarrez,
estali zazu berdin gabeko
itz gozo garbi ederrez,
nola zeruba estalitzen dan
gau garbiyetan izarrez

3/ Txoriyak bere umearentzat
eztu hainbeste naitasun,
nola zuk, Pedro, mantxa gabeko
lur santuari diyozun;
saroi tarteko txori-egazti
danak nai zaituzte entzun,
euskera zarren edertasunak
nola goititzen dituzun...
Zuk eztakizu izkuntz arrekin
zenbat poztutzen gaituzun.

4/ Kantatu zazu saroi berdean,
kantatu mendi grietan,
baso beltzean, errekatxoan,
zelai ta bordatxoetan;
kantatu zazu ibai ertzean,
arbol tantaien gañetan,
usai gozoko baratza loraz
ederki apainduetan,
baitare ibar alaitsu eta
atari garbi aietan.

5/ Zure itz eder eztitsu aiek
esanaz alako bigun,
biyotzeraño allegatutzen
dira eztiro ta legun;
eztakit zuri zer jaungoikozko
graziyak sartu zaizkitzun,
beti oparo argiratzeko
orrenbeste edertasun,
Pedro, uste det neurri gabeko
doaiak ote dituzun.

6/ Ondar txe-txea milizkatuaz
goititzen dira ur meak,
goititzen dira nagirik gabe
pizti ta beren umeak;
modu berean astindu eta
kanporaturik nekeak,
ala gainduko dituzu gure
izkera eta legeak,
esanaz zer dan euskal lurra ta
zer diran bere semeak.

(1) Lerro au, dagoan bezela, neurrian motz dago. Gure iritzirako, *naiean* edo *nayian* bearko luke

Ama Euskara

(1892)

Esan beldurrik gabe
Euskaldunak gera.
Iparragirre

1/ Bizi lekutxo txiki batean
berez toki zekenean,
bañan ala ere pozez semeak
bildurik zeduzkanean,
bizi zan ama biyotz samurra
berien aldamenean;
danak alkarri lagun egiñaz
saiaturikan lanean,
iritxi ziran larreak baratz
biurtzera azkenean.

2/ Jaungoiko onak ikusirikan
jende aren ontasuna,
beti oparo ematen zien
indarra ta osasuna;
lanaren birez berendu zuten
lur zallaren erantzuna,
urrutietan ere izan da
geroz askotan entzuna,
nola mirariz artu oi zuten
ango ugaritasuna.

3/ Ainbeste zuten lur zikoitz ura
landu eta ongarritu,
non eman zuben jankaiarekiñ
danak oi ziran arritu;
bañan jatunak ere geiegi
nola ziran ugaritu,
ta leku txiki edertu ura
eziñ zeikian aunditu,
norabaitera joan bearrean
asko ziraden arkitu.

4/ Lur txiki artan guzien diña
gauza nola etzegoan,
seme batzuek txit urrutira
bear izan zuten joan;
bañan, ai! nola arkitzen ziran
andik aldegindakoan!
itz bat bakarra zebillen aien
biotzean ta aboan:
ama gaxoa beste gauzarik
etzeramaten gogoan.

5/ Atze-errian noizean beiñka
beren aldeko berriak
artzen zituzten seme on aiek,
bañan txit negargarriak;
alako batez bat altxatu zan

malkoz bustirik begiak,
esanaz: - Ama galdu ez dezan
norbaiten gaiztakeriak,
ekairazute besarkara bat,
beragana joan nai diat.

6/ Batzuek penaz utzi ta pozek
besteen aldamenera
abiyatu zan seme leial au
bide luzean aurrera;
noizbait, azkenik, inguratu zan
bera jaio zan lurrera,
egualdi otzak ziran denboran,
Egoarriak aldera,
ai zer barrendik egiñ zion bati
bere amaren galdeera!

7/—Adiskidea: bai al dakizu
gure ama ona non dan?
—Bai alafede, eta, nola ez,
gaur gaubean bere onran
festa degu ta? Begira zazu
apaiñduta nola noan;
etziñan bada galdez asiko
aldi egokiagoan,
atoz nerekiñ ikusitzera
zeñen alaia dagoan.

8/Anai leial ta seme on ura
bestien ondora pozik
joan zan bilguma eder batera,
eziñ geldituz biotzik;
nola etzuben ikusitzea
espero alako gauzik,
«ama» deadar egiñ nai zuben
ta eziñ somatu itzik,
barren barrendik Jaungoikoari
esker ematea baizik.

9/Ama onratzen ikusirikan
bere anai ta lagunak,
au esan zuben urrutitikan
etorri zan euskaldunak:
—Euskaragatik albiste txarrak
guri eman dizkigunak,
ez ditu ondo ezagututzen
gure itz ezti legunak;
alkar maiteak izan gaitezen
izen santu au degunak.

Perrando Amezketarra

(1893)

Egon oi dira gordiak
Loriak;
nik nai det billatzen saya
usaia,
eta arki leike errez
berez,
nola dakarkiyen legez
loriak usaia berez.

Zenbat gauza on munduan
txokuan
daude lurpian galdurik
azturik,
eta gelditzen dirala
ala!
Ez ditzagun utzi bada
txokuan azturik ala.

Sasipietan egonak
gizonak
diamante ta urrien
lorien
antzera oi dira izan
gisan.
Ai! zenbat ote dabiltzan
gizonak lorien gisan.

Azaldu gabia ondo
Perrando,
zabaldur arren usaia
artzaia,
bañan lezateke esan
nor zan
Amezketan da Tolosan
Perrando artzaia nor zan.

On geiena dan lekutik,
zerutik,
ez eskolan ikasiya
jatxiya
zebilela ardi ondoren
zuben
Perrandok suba barrumen,
zerutik jatxiya zuben.

Arek etzekiyen asko
moldezko
ta esku-izkribuetan
letretan;
bañan ura zan euskera
bera.
Argatik nai det atera
moldezko letretan bera.

Republika ta Fuegoak edo Mendiburuko maiztarra

(1893)

1/ Alaba, sua eta illobak
ikustera aita zarra,
puxka maiteak emen, kalean,
daduzkan baserritarra,
urte luzeai gallen egiñaz
gazte bat beziñ azkarra,
Donostiyara etorri zaigu
utzirik bere baztarra,
Tolosa bañan goragotikan,
Mendiburuko maiztarra.

2/ Igaro dira egun batzuek
sekulako azkarrena,
eta aitonak or azaltzen du
len barrenen zekarrena:
zortzi urteko rnutill koxkor bat
Joxe, illobik zarrena,
eskatutzen du eramateko
- ai! ura amaren pena!-,
esanaz zorrotz kalea dala
gaztientzako txarrena.

3/ Bere ait'amen baimenarekiñ
Joxetxo au goierrira
joan zan oitura onak artzera
aitonaren baserrira.
Geroztik ama gaxua beti
alde artara begira,
eziñ bizi zan bere semea
joan zanetik urte bira;
bañan azkenik bere aitona
zarrarekiñ etorri da.

4/ Lenbizi utzi diote egiten
amarekiñ milla jolas,
bañan txandikan nola ematen
etzuten oiek iñolaz,
ta aitak ere begiratutzen
ziyon benaz ta ajolaz,
galdetu ziyon aiton zarrari
far-irriyan, erdi burlaz:
—Mutill ederra dakarki, bañan,
nol'ote dago eskolaz?

5/ Ori aditu zuben denboran,
aitonak altxarik garboz,
erantzun ziyon: —Eskol'oberik
eziñ eska leike aboz;
euskalduna da eta *pueroak*
maitatzen ditu oraingo;
nola karrika beterik dagon
erreplurikano gaiztoz,
eraman nuben ta obe luke

berriz an balego askoz.

6/ —Republika zer dala uste du?

Aitona betor onuntza;
eztegu ondo entenditutzen,
ez baita gure izkuntza;
bañan eskatzen du egiteko
denok elkarri laguntza,
beren modura gobernatubaz
probintzi t'erri bakoitza,
ortik fuerora, zer diferentzi
dago, aitona? Zer? Utsa.

7/ —Zure tokiyan beste zenbaitek

itzegiñ balit orrela,
animatikan aitortzen dizut
sinistuko ez nubela;
bañan zu, suia, nik ondo dakit
egitiya zeradela,
eta diyozu *erreplurikak*
puerua dakarrela...
Orduban saia gaitezen denok
ta lenbailen datorrela.

Bastilla

(1893)

1/ Jakitearen argitasuna
iritxi zaioten denak,
nola itsasoz aruntzkotarrak
ala onontzik daudenak,
eta geiago oien tartian
biyotz altxia dubenak,
gaur Frantziyari biraltzen dizka
eskumuñ bereztubenak;
gutxiyagorik ez du merezi
Bastilla'ren oroimenak.

2/ Bastilla deitzen zitzaion etxe
tzar bat Parixen gaiñduba,
agintariyen josta-lekuba,
mendekuan infernaba,
jende «txe» dena oiñperatubaz
luzaruan egonduba;
gaur eun ta lau urte, altxarik
aserre erri miñduba,
onen indarrez izan zan ura
purrukatu ta kenduba.

3/ Erriya ala ikusitzian
agintariyak atiak
itxi zituzten; bañan aitubak
zeuden aien agintiak;
Parixko seme alkar maitiak,
samiñtusunez betiak,
autsi zituzten beren anaiak
lotzeko zeuden katiak,
eta len goien zeudenak izan
ziran azpira botiak.

4/ Nola itsaso aserretua
iñoiz biurtzen dan apar,
gisa berian altxatu ziran
aiñbeste milla atzapar;
txikiyak laxter aunditu ziran
artu zutenian alkar,
aundiyak berriz, -eta nola ez!-
txikitu ziraden azkar;
Frantziyak daukan aunditasuna
egun santu arek dakar.

5/ Uztaillaren amalaubian
gaur eun eta lau urte,
frantzesak azañ izugarri au
egiñ izan ez balute,
etorkizuna etzitekian
daukan aña argiz bete.
Bai, animako ogiya denoi
bidean jarri digute;
agur ditzagun gure maisuak
guztiya merezi dute.

(Donostiyan, Uzta-illaren 14'an, 1893'an)

Españolak eta Moruak

(1893)

1/ Erdi lotan bezela
joan dan aspaldiyan,
iñoren parragarri
geunden Españiyan;
argatikan moruak,
ausardi aundiyan,
artu nai zuten legoi
zarra oñ azpiyan,
ta gaztiak azaldu
zaizkate kabiyan.

2/ Zar itxuran dague
legoia tximutzat
artuko zuten bada?
Oiek astaputzak!
Berak nola diraden
animali utsak,
izan arren Koran ta
Mahoma laguntzat,
astinduko dizkate
txilabako autsak.

3/ Españiyan biyotzak
daude txit jasuak,
legoia esnatu du
tximu erasuak;
baleudezke seguru
joan diran gaxuak,
aientzako dauzkala
beren gurasuak
malko bat illentzako,
bizintzat besuak.

Limosnatxo bat

(1893)

1/ Mutill koxkor bat itxu-aurreko
zubela aldamenian,
gizon burusoill bizar-zuri bat,
bi makuluren gañian,
kale eskiñan ikusi nuben
iñora eziñ joanian;
ta bera nor zan jakiñ nayian
inguratu nintzanian,
limosnatxo bat eskatu ziran
Jainkuaren izenian.

2/ Zerbait ernanaz galdetu niyon,
altzan modu onenian,
jayotzatikan al zeukan ala
gaitzak artuba mendian;
erantzun ziran: «Ez, semia, ez,
nik sasoya nubenian,
ez nuben uste iritxitzerik
onetara azkenian ...
Gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren izenian».

3/ Eta segitu zuben esanaz:
«Lengo gerrate denian,
ni aurren xamar ibiltzen nintzan
beti edo geienian,
nekatu gabe aisa igoaz
aldapik luzienian;
etzan burura asko etortzen
gu ala gebiltzanian,
gero limosna eskatutzerik
Jainkuaren izenian».

4/ Odolak bero eta buruba
arrua daguenian,
edozeiñ moduz sartutzen da bat
alako itxumenian;
atsekabe ta negar-samiñak
badatoz ondorenian;
nola erebait batek biziya
utzitzen ez dubenian,
limosnatxo bat eskatu biar
Jainkuaren izenian.

5/ Iñoiz pentsatzen nere artian,
ni jarritzen naizenian,
gaur ere asko dirala joango
lirakenak zuzenian,
ez luke iñork sinistatuko
zer pena ematen diran.
Ai!, orla nintzan ni ere sano
ta gazte nenguenian...
gaur limosna bat eskatutzen det

Jainkuaren izenian.

6/ Ai!, txorakeri asko egiten
da zentzurik ez danian,
sinista zazu ur au pasia
daukanaren esanian;
obiago da sasoi dan arte
saiatutzia lanian,
negar egiñaz ibilli gabe
gero denbora joanian,
limosnatxo bat bildu eziñik
Jainkuaren izenian».

Beti-betiko

Nere adiskide maite Buenaventura Soroaren doñurako egiñdako letra.

Galaiak:

Zure aita ta amari
-trantze estua-
izandu naiz eskatzen
zedorren eskua;
egiña zendukazula
amarekikua,
zuk esan eta nedukan
sinistua;
aita berriz mintzatu zait
aiñ prestua,
baietz agiñdu dit eta
-au da gustua!-
nere biyotz gaxua dago
birpiztua

Damak:

Nola dezun zuk barren bat
danik onena,
beti izan dizut nik
zure sinismena;
baña falta zitzaigun
lanikan zallena:
nere aita prestuaren
aitormena;
aspalditik banekiyen
amarena,
ta oraiñ badegulako
biyen baimena,
badakizu ni zuretzako
naguena.

Galaiak:

Nola mundu onetan ez
dezun berdiñik,
eziñ arki nezake
nik zure ordañik;
neretzako zeradela
sinistu eziñik
aspaldiyan igaro det
gau samiñik;
bañan ez da mudakorrik
biyotz fiñik;
oraiñ lengo traba denak
alderagiñik,
biziko gorade gu biyok
bat egiñik.

Galaiak:

Ai, nik zenbat nai dizudan!

Damak:

Eta nik zuri?

Galaiak:

Mingañez eziñ esan
genezake ori.
Biyotzak aiñ alkartu
zaizkigu biyori,
nola bildu etzaiozkan
len iñori,
petxu batian daudela
badiruri.
Ori egiya izanik...
muxu bat neri
ez al nazu bada emango?

Damak:

Tori, tori.

Elizakuak edo Au mundua !

Illunak nabarturik
bideko tiñua
zeukan, ta ixildu zan
txorien doñua;
odoi tartetik iñoiz
izarren keñua
senti zan, bañan bian
sortu zan lañua;
argi baten aurretik
kolpez errañua
azaldu zan, ta laxter
—eliza-siñua—
gugana iritxi zan
txintxarri-soñua.

Txilin-txilin jo zuben
berriz txintxarriyak,
aditzera emanaz
gauza mirariyak,
beti txit onak, bañan
iñoiz miñgarriyak,
izaten diranian
gaitzak ekarriyak.
Oso tristetu ziran
gure aurpegiyak
ta beria azaldu
zuben illargiyak;
eskuban arturikan
buru-estalkiyak,
lurrian belauniko
an geuden jarriyak
ta parte-artu zuben
Zeru-gau argiyak:
an pasa biar zuben
Jaungoiko aundiyak!

Eukaristi Santua
jarriya Maisuak,
zijuan pasatzen, ta
beraren pausuak
umill agurtzen ditu
kristau fedetsuak;
ta nola emen ala
geron geientsuak,
gertatzen diranian
alako kasuak,
burubak makur eta
biyotzak jasuak,
barrendikan egiten

dira errezuak,
meserez izan ditzan
miñ duben gaxuak.

Pentsatutzen munduko
izate aulian,
kasikan lorik egiñ
ez nuben gaubian,
ta urrengo goizian
zortziyak aldian
joan nintzan, Jauna artu
zunaren galdian.
Ezkaratz zar batera
sartu ondorian,
kanta-otsa senti zan
etxe-barrunbian,
gutzizko doñu alai
eta ederrian.
Pozez bera aditzen
negola an bian,
biziro berri onak
ziraden idian,
gizon bat azaldu zan
ate-brinbalian,
eta nere galdeera
egिñ niyonian,
malko bi zerorizkan
bere masallian,
ta ziyon: «Ortxen dago
gaxu'iy'illian! »
Bere ama maitia
zedukan oyian!
Arriturik gelditu
nintzayon aurrian,
ta kanta otsa nola
senti zan artian,
esan niyon: «Or nola
daude umorian,
agoniya arkitzen
bada etxe berian?
Ori ez da kabitzen
kristauben legian».
Eta erantzun ziran
erdi negarrian:
«Ai! Or famili asko
nola bizi dian,
anbat jakingo ere
ez dute ordian
desgrazi au arkitzen
danikan gurian.
Eziñ biziya gauzka
aiñ bakardadian,
ixil-ixilik geren
bartzartxo pobrian,
beste guztietatik

kasikan gordian,
ez bagiña bezela
jaiuak lurrian!...
Illtzia obe izan
liteke, aldian,
bizi ez danarentzat
itxura obian...! ».
Zenbat onlako oi da
mundu zabalian!!

Adiñeko jendeak argibide bearrik ez du bertso sail au ondo ulertzeko. Baiña gazteentzat zerbait esan dezagun.

Gaur egunean, elizakoak ixillean eta izkutuan eramaten zaizkio gaixoari, etxeakoak bakarrik jakiñaren gaiñean dirala. Garai batean, ordea, erri osoak jakiten zuan. Apaiza elizatik ateratzerakoan, kanpai ots ezagun bat jotzen zan. Gero, kale edo bideetan barrena, eliz-mutil bat edo sakristaua joango zan aurretik, esku batean argi-parola zuala eta bestearekin txintzarria joz. Urrena, geienetan behintzat, lagun batzuk kandela piztu banarekin. Ondoren apaiza, Jauna eskuetan zeramakiala. Kanean edo bidean zijoazenak, txintzarriaren otsa aditzean, txapela kendu eta belaunikatu egiten ziran, Jauna pas bitartean. Baita ere geienak. Otañok dion bezela, otoitzen bat gaixoaren alde egin.

Oitura ori erabat galdu da. Baiña lengo oiñean jarraitzen du bertso sail ontan esaten dana: familia batean kanta otsa eta umorea, eta bestean agonia eta tristura. Zizurkilko baserrietan edo Arjentinako Panpetan baiño nabarmenago ikusiko zuan ori Pedro Marik Donostiko bizitza askoko etxe aundi oietako batean, teillatupe berean gauza oiek biak gertatuta; eta bertsoarako gaia ortik bururatu.

Gu ta gu-tarrak

(Antonio Esponda-k eskatu ta egiña)

«Zer da Euskera, nor euskaldunak,
zeiñ, ta nongotarrak dira?»
galdezka daude atzerritarrak
alde ontara begira,
mundu guztiyan bere berdiñik
ez duben Euskalerrira.
Eziñ ikusi gaituzte ondo,
irten gaitezen begira,
iñork mantxarik sortu ez dezan
gure jatorri garbira.

Bertso hau Otañok bere *Zerbait* izeneko liburuan sartu zuan, izenburuaren azpian adierazpen au egiñez : «Antonio Espondak eskatu ta egiña». Baiña jaun ori nor izan zan ez dakigu.

Ernani

1/ Urbietta-ko Juanen
sorterriya, orra
seme leial askoren
siaska jatorra;
biyotz biguñekua,
gudari gogorra,
zure izen maitia
ez liteke borra,
zergatikan zeraden
euskaldunen onra.

2/ Ez izanagatikan
aundi ta bikaña,
aiñ zerade polita,
txukun ta apaña,
gañera euskalduna
besterik ez aña;
lur ontan biyotztsuak
denak dira, baña,
nere ustez, Ernani,
zu zera estraña.

3/ Euskaldunen oiturak
ta gure izkuntza
jakin nai ditubena
joan bedi aruntza;
nola euskara dagon
iya umezurtza,
au sapai txarrekuak
nai diyote bultza...
Ernani, zu zerade
ezti onen eultza.

4/ Inguruan daruzkan
menditxuak berriz,
aiñ alakiyan ez det
nik ikusi begiz;
betiak gaztañez ta
sagar muxu gorriz,
denetan politena
tontortuba arriz,
Santa baten izena
dauka edergarriz.

5/ Begira zaiozute
Santa Barbarari,
ardiyak zaitzen dagon
artzaia diruri,
beti ernai «otsorik»
ote dan agiri;
ez diyo txarkeririk
egin nai iñori,
baizik lagundu bere
erri maitiari.

6/ Asko lezakiana
edo indartsua
bezela da Ernani
prestu ta mantsua;
bartzartutzen dubena
etsai setatsua,
bizi da lagunduaz
jende biartsua;
nik agurtutzen zaitut,
erri doatsua.

7/ Ernaniko alaba
eder ta txukunak,
zubek zerate egi-
azko euskaldunak;
oraiñdikan zautenak
aiñgeru kutunak,
gero izan zaitezte
andre t'ama onak,
beti sortu ditezen
seine biyotzdunak.

Azpeitiko premiao zala-ta

(1894)

Azpeitiko premiao zala-ta, Udarregi eta Pello Errotak alkarrekin bertso-burruka sortuta, sartu bearra izan zuan Jose Bernardo Otañok aien artean pakeak egiteko. Ortarako, bere bertsoak Pedro Mariri biali zizkion, aurrez ikus ta ver iritzia emateko. Ara emen Pedro Mariren erantzuna :

Egondu naiz bedorren
bertsuei begira,
t'ez pentsatu nuala
inbusterira.
Famatu bearrikan
ez dutenak dira,
nik aitortuko niyon
koxkorak balira.
Azpetiko jira
ta aren segira
orain etorri da
aear dan tokira,
arrazoizko gizonak
baldin badira.

Txepetxa

(1894)

1/ Askotan esan izandu dute
gizon ikastun argiyak,
nola pixtiyak izan litezken
gure erakuslariyak; .
erlia da bat aipatzen dana,
oi zer lan arrigarriyak
jartzen dituzten gure aurrian
onek eta txingurriyak!
Txepetxak berriz erakusten du
aiñbeste nola aik biyak.

2/ Euskal lurreko txoriyetan dan
txikitxuena da bera,
gaztañ kolore bakarrekua,
nai bada ez da ederra;
begi argiyak, buru xanpala,
moko ttenthia aurrera,
gorputza motxa, anka laburrak,
xaltokako ibillera,
xalapartako egalariya
eta kantari ergela.

3/ Txotx batek aisa jasoko luke
nola karga gutxi duan,
bañan gustatzen zayo jartzia
adar sendoxiaguan;
amildu arren ez leike galdu
dakiyelako eguan;
bañan arkitzen baldin bada ere
burnizko aldamiyuan,
iru-lau aldiz xanpatutzen du
seguru ote dagan.

4/ Udaberriyan lendabiziko
kabiya txepetxarena
azaldutzen da ta ezaguna:
goroldiyozkua dena;
arbol-gerriyan, untza-tartian
du lekuri maitiena,
ta gizon askok ikusitzian
irixpirian daguena,
osan oi dute: «Zer konfiantza,
txori txar onek dubena!».

5/ Ta edozeñek esan lezake,
berari begiratzian,
arretarikan ez dadukala
egiañ leyoken gaitzian;
ez-iduriyan ark kabiari
beste zulu atzian
egiten diyo, andik joateko

aurrerakua tapatzian,
erakutsiyaz pentsa zagula
nola atera sartzian.

Donostiya Uxua

(1894)

Nola gizon guztiyak
txit aundiyak diran
eta oso txikiyak
denbora berian,
batek asko pentsatu
eta ondorian,
igartzen diyo nola
gauz'asko lurrian,
ainbeste itsasuan
ala legorrian,
egonagatik anbat
gugandik urrian,
Jaungoikuak daduzkan
betiko gordian.

Argatik dago txutik
betiko galdeera:
«Zergatikan da gauz au,
beste ori zer da?»
— Iñoiz erantzuteko,
izaten da era,
gizona iritxi da
zerbait jakitera,
Illunpetatik gauza
asko du atera;
bañan jakintsunetan
geiena dan bera,
erortzen da maizena
galde egitera:
«Zergatikan da gauz au,
beste ori zer da!»

Ixiltzen diranian
gizon jakintsunak,
izketan asten gera
gutxi dakigunak;
aientzat bide asko
daude txit illunak,
estrapozoz betiak
eta trabadunak;
guretzat berriz denak
liraiñ ta legunak,
gañera geren ustez
oso ezagunak;
ez bestek erakutsi
izan dizkigunak,
edo ikasbiretik
datorkizkigunak,
baizikan ametsetan
sortzen zaizkigunak.
Naiz farra egiñ iñoiz
aditzen digunak,

beti izango dira
guretzat lagunak.

Argatik, galdetzian:
«Donostiya zer da?»,
ikusten da, lenago
diyotan bezela,
jakintsu aundi denak
ixilik daudela,
edo geienaz ere
mintzatzen dutela
lan ori erabaki
eziñ ditekela;
ametsgilliak berriz
kolpian, berela,
bere erantzuera,
ematen dubela,
esanaz: «Donostiya?
Kantauriko perla»,
ta beste izen asko
errezki, orrela,
txit ondo datozenak
jartzen ditubela.
Nork ukatu doaya
berez datorrela!

Naspillaturik beren
pisuz eta neurriz,
mundu guztiya bete
nai dutenak egiz,
bete oi dutena da
kopeta izerdiz,
gauzak ezagutzeko
arreta geiegiz.
Nik agurtutzen ditut
begiramen aundiz,
naiz berak farra egiñ
gure umekeriz.
Or konpon ditezela
beren jakinduriz,
neretzat Donostiya,
ara zer dan berriz:

Uso bat biralduba
Noeren arkatik,
iñon legorrik bazan
jakitiagatik;
pixti leial gaxua,
al zuben lekutik,
izpi bat txintxilika
zubela mokotik,
aditzera emanaz
argiro gogotik
azaltzen ari zala
lurra ujalpetik,
biurtu zan atzera
urditza artatik,

lokabetuaz denak
zeukaten dudatik.

Putzuban emanikan
len ainbeste jira,
uso ona biraldu
zutenak urdira,
noizbait iritxi ziran
Ararat mendira,
lenbizi egokitu
zan legortegira.
Noe buruzariyak,
irtenik erdira
ta eskerrak emanaz
zerura begira,
itza bireztu zuben
bere familira,
esanaz: «Sem ta Jafet,
egun'etorri da,
ta Jaunak agindubak
egiñ bear dira.
Zeron emazteakiñ
biyak urrutira
joan bear dezute
bizitza berrira;
Kan ta bere andrea
nerekiñ baitira;
ait'amak zarrak gaude
ta izan kupira,
ez lotsikan biraldu
gure aurpegira.
Oraiñ bendiziyua
ar zazute, tira!»
Eta agindu zuben
beste alderdira:
«Pixti denak bjoaz
al duten tokira».

Aiñ leial legor billa
joan zan egaztiya,
ekarririk birpiztu
zituben izpiya,
pixti denak bezela
izan zan utziya;
bañan argitasunez
nola zan jantziya,
aurrera eramanik
bere iritziya,
laster igaro zuben
legordi guztiya.
Oroitutzen zan leku
on bat ikusiya,
eta bera izanik
txit egalariya,
alderdi artara zan
berela abiya,
topatzera goguan

zedukan tokiya.
Iritxi zubenian
berriz Kantauriya,
ementxen autu zuben
beretzat kabiya;
etziñ zan, eta ez da
geroztik jaikiya;
begira non dagan
gaxua jatxiya:
len uxua zan eta
oraiñ Donostiya.

Buruba ageri du
Gaztelu orretan,
korputza Donostiko
etxe ederretan,
ta isatsa Loiola-
ko erriberetan;
eskuiko egua
Ategorriyetan,
eta ezkerrekoa
Antiguan bertan,
edo alde artara
dauden birietan.
Beste pixti batzubek
egope onetan
ikusten dira iñoiz
uda-egunetan,
beren lumak bustiyaz
Kontxako oletan,
pozkidaz dabilzala
jostatzen uretan...
Sartu gabe kondaira
luziaguetan,
orra nere iritziz
Donostiya zer dan.

Donostiyan, 1894'garrenian

Oroitza

(1895)

Saiatutzen da billeltera zar au
Ondo egiten denari
Ceñ dan askotan galdetu gabe
Inguratzen zaionari.
Eskalerikan ez du utzitzen
Datorrenik negargarri,
Au da ematen diaona beti
Dena laguntasunari.

Umore ona doakabeak
Nai baldin badu arkitu,
Iyo dedilla gela ontara
Ori bakarrik aski du.
Nola oz leiken emen tristerik

Alaitu gabe gelditu,
Rau!, kolpez, miñak joango zaizka
Ta aurpegia argitu.
Emen mintsuak sendatu dira,
Sanorik ez da gaizkitu,
Argatikan au zerua dala
Neri oi zait iduritu,
Agurrak merezi ditu.

Lerro bakoitzaren leenengo izki edo letra berezi eta goitik beera irakurrita, *Sociedad Unión Artesana* irakurriko degu. Erderaz esaten danez, *acróstico* bat da, beraz.

Karidadea!

(1895)

Españi triste ontan
aspalditik geunden
atsekabe gogorak
sentirik barrunen;
munduko mirariyak
izan giñanak len,
ez dakit ontara zerk
ekarri gaituben.
Aiñ gauza miñgarriyak
pasa dira emen
ta ez gentzake ezan
kulpa zeñek duben.

Lagun bear ditugun
urak eta suak,
nola biyak diraden
gauza indartsuak,
pixti gogorren gisa
kalparrak jasuak,
zelatatzen dituzte
gizonen pausuak,
balirake bezela
etsaien lazuak;
bestela esan bitza
Santander gaxuak
guztiyok memoriyan
dauzkagun kasuak,
ta beste Españiko
famili osuak,
ondata zitubenak
ujal erasuak.
Aien ondoren oraiñ
berriz, itsasuak,
erakutsiyaz bere
zelaidi mantsuak,
zabaltzen balizkigu
bezela besuak...
orra zer egiñ digun
betiko paltsuak.

Zan Martxoko illaren
amargarrenian,
oraiñ arkitzen geran
urte barrenian;
guda-ontzi bikaiñ bat
Kadiz-ko urian,
zisne bat bezin liraiñ
itsas bazterrian,
aiñ itxura egoki
eta ederrian
arkitutzen zan jende
askoren aurrian,

aruntz-onuntz txiki bat
egiñ bearrian.

Ikustera jauregi
ur-gañeko ura,
ainbeste lagun bildu
ziran ingurura,
mirariztera berak
zedukan itxura,
iritziyak emanaz
nork bere modura.
Askok goititutzean
begiyak zerura,
eguzkiya par-irriz
zeguan lekura,
ta gero ikustean
itsasoko ura,
urdiñ ta geldi, belar-
soruen modura,
lasaitasun bat sartzen
zitzaien petxura;
ta, zenbati etorri
zitzaion burura
pozik egiñ zeikela
juan etorri ura!

Ontan azaldu ziran
itsas gudariak,
ontzi eder artako
jaun agintariak,
ondoren zituztela
beren mirabiak,
ta inguruan moro
biyotzik gabiak:
oiek Marrueko'tik
etorri berriak,
guri erakustera
Koran-en legiak;
emen janik, an baño
mokadu obiak,
esker gabeko gizon
erdi aberiak,
laguntzalle emanaz
Españi nobliak
berak ainbeste maite
zituben semiak,
utzirik ama, aita,
andre ta umiak,
beren lur maite, lagun
eta senidiak,
pixti-tzar aiekin joan
ziraden jendiak,
par irriz alaiturik
beren aurpegiak.
Eta andikan laxter...
A..., doakabiak!!

Lareun eta geiago
gizon biotztsuak,
menderaturik uste
etzan erasuak,
Reina Regente eder
artako maisuak,
nagusi eta morroi,
guztiyak osuak,
gorde ditu asetzen
ez dan itsasuak.

Oraiñ or daruzkagu
oien gurasuak,
buruak makurturik
miñ ezin jasua,
eta alargundurik
emazte txintxuak,
negarrez, ikusirik
umezurtzatxuak,
malezirik oraiñdik
ez duten uxuak,
luzatzen dizkatela
beren eskutxuak,
amatxori esanaz
onla, kontutxuak,
purrakatuaz onen
biyotz ta petxuak:
«Aitak noiz ekarriko
dizkigu goxuak?»
Amak, aurreraturik
orduban besuak,
biltzen ditu, esanaz
«Ai aingerutxuak!»,
ta partituaz malko
tartian muxuak,
ez daki zer erantzun,
ezin du gaxuak!!!

Joan ziran itsas-gizon
prestuak Tanger'a,
moro zatarrak bizi
diran parajera,
egualdiyak emanik
alako aukera,
Mahomaren illobak
pakian uztera.
Jiratu ziranian
Españi aldera,
lurretik aldegiñez
itsas zabalera,
onek kolpez galdurik
lengo urdinkera,
beltza ta itsusiya
azaldu zan bera.
Eguzkiya sarturik
lotsaz odoipera,
aizeak altxa zuben

alako kolera,
non zirudien goiak
zetozela beera,
ta itsasuak beren
oitik irtetera;
olatuak igoaz
elkarren gañera,
egiñik suge amo-
rratuen papera,
«Aitak noiz ekarriko
bazetozen bezela
guztiyak jatera,
saltatutzen ziraden
Reina Regente´ra:
iduri zuben mundu-
aren bukaera.
Ta ala ere gure
gud'ontzi ederra,
beldur gabe sartu zan
guztiyen tartera,
esanaz: «Bire; bire!
Españolak gera,
ta iritxi nai degu
geren lur maitera»,
Ta kapitanak ziyon:
«Aurrera, aurrera!».
Trafalgar inguruan
gutxi gora bera
uste da joan zirala
denak itxaspera!!

Trafalgar...! O, zer izen
goguangarriya,
Odolezko letrakiñ
kondairan jarriya!
Nork ez daki au dala
Txurruka aundiya
egun batez betiko
galdu zan tokiya?
Bañan gerran illtzia
gizon gudariya,
irabazten dubela
betiko gloriya,
tristea dalarikan
da alaigarriya.
Oraiñ gertatu dana
da negargarriya,
argatikan bete da
lutoz Españiya.
Ez balira bezela
diña gure penak,
galduarekiñ *Reina
Regente*´n zeudenak,
ontzi *Carpio*´kuak
ito dira denak,
beregaturikan
itsaso zekenak.

Guztiyak ziran seme
Españiyarenak
eta gure anaiak,
galdu diradenak.
Nola ez negar egiñ
biyotzik dubenak!

Erregutu dezagun
ito zan jendea,
Jaunak iduki dezan
berekini gordea,
eta eginik bizi
diranen galdea,
lagun dezagun triste-
en bakardadea.
Au da egiñ bearra
daukagun tarea.
O, zer gauza ederra
dan Karidadea!!

Reina Regente dalako ori gerra-itxasontzi bat izan zan; 1895'ko martxoaren asieran Kadiztik Tanjerra joan zan, Madrillen izana zan Sidi Brusha Marruekosko ordezkaria eramatera.

Andik Españi aldera martxoaren 11'n abiatu zan, baiña itxasoak irentsi zuan. Lareun lagun zijoazen itxasontzi ortan, eta aietatik bakar bat ere están bizirik atera.

Asi eta laster samar Santanderko ezbearren bat aitatzen da. Ango kaian, izan ere, 1893-an, dinamitaz kargatutako itxas-ontzi bat leertu zan. Illak seireun izan omen ziran; eta zaurituak, millatik gora.

Karidadea!

(1895)

Ea, ea, euskaldunak,
malkuak legortutzera,
tristeak alaitutzera,
atozte, bada, lagunak.

Denak, denak itsasuak
berekiñ eramanak,
Reina Regente'n ziranak
illak dirade gaxuak.

Umezurtzak eta alargunak
daude lagutzaren eske;
gu nola egon gitezke
lertu gabarik barrunak?

Gaxo aien bakardadea
alaitutzen ote degun,
aurreratu zaiotegun
guztion karidadea.

Zer gauza ederra
dan karidadea!!

Larriya

Romanza de Oñate
(1895)

Uxo ego txuriya,
jatxiya zerutik,
izate guziya
emango det zugatik.

Entzun nazazu arren,
aingeru kutuna,
nai dizun biyotzak
gaur esaten dizuna.

Adoratutzen zaitut,
ume zoragarriya,
belauniko zugatik
emen nago jarriya.
Atoz munduko illunkentzalle,
izar argiya;
atoz kentzera, maitea,
nik daukadan larriya.

Zerutikan mundura
jatxi zerade Egan,
ta gloriyaren puxka bat
nola zerori ala zeran,
- nik ez dakit au zer dan! -
txoratzen naiz zure aurrrean...
Urrikaldu zaitea
ta barkatu, maitea,
nik zuregandik aldegitia.

Illko naiz miñez
zu gabe, ederra;
atozkit onera...
Ez, ez...
Joan zaite meserez.

Agur, laztana,
bai, betiko agur,
deitutzen dit Jaunak,
Jaunak,
bere ondora gaur.

Jaungoikoak nai du
ni ara joatia,
maitia!
Egiñ bedi bada Jaunaren
borondatia.

Larraldeko Magdalena

(1895)

1/ Frantzes euskara itzegiten dan
mendi tantaien artean,
Sara deritzan uri kutuna
dago ibartxo batean;
erri leial au edertutzen da
bere kondaira maitean,
irakurriaz edo entzunaz
zer gerta zan jakitean,
milla zazpireun larogei eta
amairugarren urtean.

2/ Erri ontako aingerutxo bat
Larraldeko Magdalena
zan, amazapi urte besterik
oraindik etzitubena,
guraso onak eska lezaken
alabarik leialena;
ikusirikan inguru artan
apaizik etzeguena,
konfesatzeagatikan sartu
zan Españian barrena.

3/ Fedeagatik joan ta egondu
zan Naparroako Beran,
an konfesatu eta gaxoa
etxeruntzko etorreran,
Españia ta Frantzia nola
zeuden gudan edo gerran,
katibaturik gelditu zuten
bere lurreko sarreran,
ta koitaduak zion: «Ez dakit
zertan gaizki egin deran!».

4/ Arrano tzarren atzaparretan
mantxa gabeko uxua
arkitutzen dan bezela zegon
Magdalenatxo gaxua;
gudari aien agintaria
izanik errukitsua,
esaten zion: «Uka ezazu
gaur eman dezun pausua».
Erantzun zuben: «Ez det egiño
nik juramentu faltsua».

5/ Ibilli izan balitz bezela
ixpi edo zelatari
aur maite ura, gaitzik beñere
egit gabea iñori,
aurkeztu bear izan zioten
Pinet buruzagiari;
onek berela agindu zuben
«*Gillotina* jaso bedi

eta lepoa kendu bizaio
Magdalena Larralderi».

6/ Jesus maiteak guruzpidea
igaro zuben modura,
barkazioa ta naitasuna
banatuaz ingurura,
«Salve, Regina» kantatuaz ta
begiratuaz zerura,
gillotinara igo ta ill zan
zoragarrizko aur ura,
ta aingeruak eraman zuten
santuen bizi-lekura.

Iri apustu baten birez

Batek iri obiak zeuzkala ederrez,
pisuban ta neurriyan eta indarrez;
bestiak geiaguak berriz leialtarez,
ankaz ta intentziyoz, lepoz ta bularrez;
biyak alde aurrez
urrutitik farrez,
aldetik bildurrez,
nola etzan errez
jakiten irabazi zeiken edo ez.

Tolosar biursari gazteari (1896)

1/ Irakurririk zure itz neurtu
eztitsuak *La Voz*'ian,
oraiñ dirala egun batzuek
joan dan igande goizian,
barka zaidazu, on Emeterio,
orren denbora luzian
erantzun gabe ni egotia;
sentitzen det biotzian.

2/ On Emeterio Arrese, zatoz
zu argi billa nigana,
ez al dakizu pittina dala
nerekin dakarkidana?
Zer ikasiko dezu nik esan
arren zuri dakidana,
zerorri baldin bazera neri
argi egiten dirana?

3/ Asmo senduak izanagatik
askok oi dute gogaitu,
landarerikan onena ere
beti bear da jorraitu,
bestela nai dan etorkizunik
eziñ lezake garaitu;
zer esango det zure izkuntzak
denok arritzen bagaitu?

4/ Illargiaren gisara askok
besterengandik argiya
artu oi dute, nola alperrak
langillien izerdiya;
bañan zu zera, on Emeterio,
aiñ euskal iltun garbiya,
gure illobak autan izango
zaituzten biursariya.

5/ Eguzkiaren irteera da
aiñ pozgarri ta alaia,
gisa berean azaldu zaigu
gaur Tolosako galaia;
zayikan gabe iriñ fiñ utsa
iragazten duben baia,
ez dezazula galdutzen utzi,
oraiñ da zure garaia.

6/ Aipatzen dezun lore-baratza,
Pollitena deritzana,
da arrats batez oso pozkiroz
zurekin bildu nintzana.
Zerbait'en billa *uso* argiya
da Ararat'en izana,
osatu gabe geldi etzediñ
ordu an itzegiñ zana.

Tolosar biursari gazte ori, bertsoetan esaten danez. Emeterio Arrese olerkaria degu (1869-1954). Lau bertso eskeñi zizkion Otañori, La Voz de Guipúzcoa egunkarian, 1896-II-23-an, eta onek or goien ezarri ditugun oiekin erantzun.

ZERBAIT

1/ Zerbait'engatik, on Pello Mari,
milla kezka eta naspill
biotz barrendik dauzkatalako
zori gaiztoaz narabill;
kolko agorra dedan bezela
egarriya nairikan ill,
nere gogoa iturri billa
*zerbait'*en galdez darabill.

2/ Eskeñi on bat egin zitazun
alkartu giñan gabian,
lore gozozko baratzatxoa
politena dan batian.
Uso txuriyak bere egatzetan
Ararat'eko atian
euki ninduben, eta geroztik
nago *zerbait'*en ustian.

3/ Gaban itzala asten danian
illuntasuna zabaltzen,
ta goizeko eran lañu zuriya
mendi zokotik altxatzen,
buru gaisoa zoramen aundiz
jarririk beti pentsatzen,
*zerbait'*en billa dabillearik
ez du ezertxo billatzen.

4/ Ez nazazula egun geiagoz,
biursari on garbiya,
zerbait' orrentxen esperantzetan
euki luzaro arriya.
Arren!, ekatzu, on Pello Mari,
gogo detan pozgarriya;
itxu dagonak zer nai lezake
baldin ez bada argiya?

Tolosa, 20 febrero 1896

Ikusten danez, Arrese jakiñaren gaiñean zegoan Otañoren *Zerbait* liburua agertua zala; eta, beraren izenburuarekin itz joko batzuk egin ondoren, leenbaileen bialtzea eskatzen dio.

Baiña Emeterio Arresek berriro erantzun zion Pedro Mariri, beste sei bertsoekin. *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian agertu ziran, 1896-III-9-an. Onela diote:

UTSA

1/ Nundik irten da on Pello Mari
doai aundizko iztuna?
Nundik irten da nere biotza
zorionez bete duna?
Au da zerubak omengarritzaz
guri bialtzen diguna,
Amatxo zarren titi gozoa
erandako euskalduna.

2/ Irudimenez, lagun Otaño,
anbat zerade bizkorra,
goiko zabalde miragarriyan
nola izar igeskorra,
ega biziya iragoturik
zeru, itxas ta legorra;
aize biguñez egala zera,
biursari on jatorra.

3/ Arrazoiakin esaten dezu
askok dutela gogaitzen;
asmo sendoak izanagatik
bada etzait iduritzen,
ega motxakin erreza danik
aize gogorra llabaintzen:
eralki nai ta ezin eralki
emen nabill ni zoratzen.

4/ Odoi tartian egon ez nediñ
eskatu nizun argiya,
Zerbait onakin eman dirazu
neretzat leiken guztiya;
baño naigatik eziñ ikusi
aiñ dago dizdizariya,
nola nezake aurre-aurretik
begiratu eguzkiya?

5/ Aurpegin suba arrazidazu,
ez dakit zer esan iya,
La Voz'ko zure itz neurtuak
lotsaz naukate jarriya.
Igande ezkeroz emen narabill
goitik astinduaz baia,
zeñak ez daki fiñ iragazten,
baizik autsa edo zaia.

6/Besarkera bal bialtzen diot
nere lagun Otañori,
besarkera bat Euskal-Erriko
seme leiala danari;
zure *Ametza* irakurririk
malko bi zaizkit ixuri,
Zerbait'en ordez artu nazkizu
lartan batez, Pello..., tori.

Aitona gizagaisoa

(1896)

Udaberriko usai gozozko
ilunabartxo betian,
Donostiyatik urruti gabe,
uri ontako partian,
baserritikan onontz datorren
bidetxigor politian,
sagar ta gaztaiñ, aritz, elorri,
urritz ta lore tartian,
azpi aldiaren errekaxua
marmariyaz ostopian,
eguzkiaren azken dizdizak
aruntzko mendi tentian,
kuku ta beste txorien kantak
baso guztiak betian,
kabi batian lau txorikume
txillar tarteko otian,
gauz abei denai beriratuaz
emen, gure lur maitian,
«iñon ez dago onelakorik»
esanaz nere artian
netorren, eta alako batez,
jiratxo bat ematian,
aitonatxo bat arkitu nuben
eserleku arlotian,
berekin zeukan penaren kargak
lurrera iya botian.
Garai ta leku pozgarri artan
gizon ura ikustian,
alaitasunez inguratua
aiñ egoera tristian,
beregianatu nintzaion zerbait
itzegiteko ustian.
Iruditzen zait gaur oraindikan
bera ikusten naguela,
arri tontortxu baten gañian
eserita daguela,
belaun nekatu bien tartean
urritz makill bat dubela,
beraren puntan ipiñirik len
buruan zuben txapela,
bi eskuakin gogor elduaz
kontu egiñaz onela,
eta kokotza oien gañean
lotan balego bezela.
Nola jostatzen pill pill zebillen
egoaizetxo epela,
buruko ille txuri bakanak
egara zijoazela
esan zeikian, uste det berak
sentitutzen etzubela.
Antxen nenguan, bere onduan,
zer egiñ ez nekiyela,

laguntzarik nai zuben galdetu
edo aldegin bestela;
itzegiñ zuben eta kezkatik
atera nintzan berela.

Asnas lodi bat irten zitzaion
petxu estutik jasua,
ta lenbiziko au esan zuben:
«Nere euskera gaxua!! ».

Esan onetan ezaguturik,
aitonak zedukan miña,
erantzun nion: «Jauna, euskara
ez dago aiñ aldegiña,
oraindik ere lur maite ontan
bada zeñek itzegiña... »
Bañan nere itz motxak etziran
bera lasaitzeko diña,
ta zion: «Ondo ikusitzen det
datorkigun erasua;
ez da biziko; laster, illko da
gure Euskara gaxua».
«Jauna, ez edi orla tristetu,
ez dago Euskara juna.
Ez du sentitzen inguru ontan
dagueen alaitasuna?
ez du ikusten ez dala gaitza,
baizik dena Osasuna?
Euskal-erriko txorien kantak
ez dago pozez entzuna?»
«Bai, len bezela saiatzen dira
kukua eta xoxua;
oiek or daude, bañan galdu da
gure euskara gaxua».

«Jauna, barkatu bizait, berriro
gogor egiten badiyot;
euskara orain baño txarrago
egon dala derizkiyot.
ez du ikusten nola izkuntza
ontan ari geran biyok?
Gaur, Donostiyan ez dakiyenik
ez du aitortu nai iñork».
«Bañan erderak betiak dauzka
erriya eta basua;
alferrik zabiltz, galdua dago
gure euskara gaxua».

«Jauna, alaitzen asi gintezke
Euskara maite degunak,
badatoz, ustez iya betiko
galdutzat zeuden egunak;
len aintzakotzat artzen etzuten
damatxo txapela-dunak,
gaur erantzuten dute biotzez:
Gu gerade euskaldunak»
«Bañan ainbestek jartzen diote

traba edo Aragua,
Nola nai dezu indartutzia
gure euskara gaxua? »

«Jauna, badaki nola lenago
ez genekiyen erderik,
eta guraso leial on askok
umiak argitu nairik,
aldi batean non ikusi da
izkuntz au gabeko mairik?
Orrengatikan dago euskara
lotsaz txokuan gorderik».
«Bukatu bedi oitura orren
epea edo plazua,
izan zazute maitexiago
gure Euskara gaxua».

«Jauna, ez beza negarrik egiñ;
osan diotan bezela,
ikusitzen du lenago baño
askoz obeto gaudela;
luza lezake, zergatik zaill dan
oso indartzen berela...».
Ontan malkuak kolpez kendurik
erantzun ziran onela:
«Nik erderarik ez dakit eta
nere illobak... - au sua! -
ni bezelaxe burlatzen dute
gure euskara gaxua».

Au mintzatzian arkitu zuben
nonbait aiñ estu barrena,
non altxarikan eserlekutik
alzezaken azkarrena,
esan ziran: «Ai! Denak nai dute
lege zarrak dakarrena,
eta ez dute ezagututzen
izkuntza dala aurrena.
Miru gaiztoak menderatutzen
duten bezela uxua,
etzazutela illtzera utzi
gure euskera gaxua».

Eskuarekiñ agur egiñaz,
arturik makillatxua,
etxe aldera, abiatu zan
aiñ euskaldun doatsua.
Geldi-geldika jarraitu nion
neurtuaz bere pausua,
illobetara biurtu zediñ
aitona gizagaixua

Kubako gure anaiai

(1896)

1/ Gure lenengo guraso aita
Adan ta ama Ebaren
lendabiziko semeak Kain
ta Abel izan ziraden;
bañan, kondairan ikusten danez,
biak anai sortu arren,
beñere eziñ bizitu ziran
txit adiskide elkarren;
orra guda ta gizon illtzeak
sustraia nondik dakarren.

2/ Ez al diruri gauza gogorra,
izanik bi anai bakar,
nola etziran oiek iritxi
obeto artzera alkar?
Kain gaiztoak Abel prestua
ill zuen al beziñ azkar,
geroztik onuntz esan liteke
bizi gerala su ta gar,
oraindik ere zuzendutzeko
itxura gutxitxo dakar.

3/ Mundutar danak ibillitzeko
geroztik esan dan gisan,
guk ez dakigu zergatik, baño
nonbait ala komeni zan;
iya sei milla urtez ondoren
begira nola gabiltzan,
bañan beartu izan geranez
gerran edo gudaritzan,
españitarrak añekorikan
ez da beste iñor izan.

4/ Nork entzun ez du txit antziñako
Altabizkarko kantua?
Zeñek ez daki Ronzesballesko
Carlo Magno'ren patua?
Navas de Tolosa'ko musulimen
indartza purratua,
ta Numanzian eta Sagunton
espanolai gertatua?
Gauz oien jabe dan dierria⁽¹⁾
izan zagun maitatua.

5/ Ezagaturik *Guzman el Bueno*'k
zer egin zuen Tarifan,
atzerritarrak ikusten dira
oraindik arriturikan;
eta *Isabel la Católica*'k
moroak Granadatikan
biraltzen ditu kristandadea
indartutzeagatikan,
gero Kolon'i lagundutzeko

bere patrikaratikan.

6/ Arerioak edo etsaiak
gu estali nai arren loiz,
Españiako leoi portitza
nol'ez dan izutu iñoiz,
ez du galdetzen zenbat diraden,
nondik datozen edo noiz;
sorterri ontan beti bizirik
daude Velarde ta Daoiz,
zeren biotza azitzen zaion
dabilenari arrazoiz.

7/ Ixil erazten dizkit gauz asko
bukatu bearrak laster;
español denak orla izanik
euskaldunakgatikan zer
esan nezake, oien laguntzik
gabe iya iñon ezer
egitiñ ez bada? Ematen diot
Jaungoiko onari esker,
guretzat gorde dituelako
orrenbeste gauza eder.

8/ Zenbat erauntsi ⁽²⁾ sartu diraden
Españiko errietan,
asko iritxi izandu dira
agintzera egietan,
Ebrotik aruntz ezagututzen
ditugun alderdietan;
bañan Aitorren arrazak bere
lurra maite du ziñetan,
ta euskaldunak libre bizitu
dira beren mendietan.

9/ Nola Erromak mundu geiena
arturik zeukan mendean,
gutziz sinismen aundia zuen
bere gudari jendean;
ta *Octavio Augusto* asi
zan euskaldunen galdean,
esanaz bere gerra-gizonai:
«Oraindik libre daude an!
Ea ekarri zaizkidatzute
auntzak bezela taldean».

10/ Lekobide zan buruzagia
orduko euskaldunena,
eun urte eta anbat geiago
igaroak zituena;
gero Otzoal bere lagunak
agintzen zuen urrena,
Lartaun gaztea oien esana
zintzo egiten zuena,
ta ondorengo jende guztiya
aien antzekoa dena.

11/ Sartu ziraden erromatarrak
gure lur maite ontara,
bañan etzuten euskaldunikan
menperatzen iñontara;
Lekobide ta bere mutillak
belaun bat lurrean para
eta tiratzen zuten etsaiak
illtzen zituen *dardara*;
azkenerako berak joan bear
izan zuten Erromara.

12/ Erromatarrak talde gogorrek,
lur asko zuten berendu,
ta Lekobidek zarrai deituaz
onela itzegiten du:
«Jaunak, Ernion denok luzaro
eziñ gintezke mantendu⁽³⁾
nere iritziz obe genduke
alperrik gaudenak kendu,
ta sasoikoak saia litezke
ori egingo bagendu».

13/ Gerrari zarrak erantzun zuten:
«Ederki dago gauz ori,
eta bertatik prest gaude emen
denok jarraitzeko zuri;
gu Ernioko aitzetan beera
bosteun gizon buruzuri
amil gaitezen, eta lenbailen
geren odola ixuri,
ondorengorik erromatarren
mende ez dediñ erori».

14/ Beren semeak artzen bazuten
erromatarren morrontza,
emazte eta alabentzako
seguru zetorren lotsa;
aiton aientzat au pentsatzea
aiñ zan samiñ ta zorrotza,
non naitasunen indarrarekin
altxarik beren biotza,
ondorengoak bizi zitezen
autu zuten eriotza.

15/ Erromatarrak egonagatik
oituak ateratzen jaun,
ikusirikan ezin zutela
lur ontan geiago iraun,
esan zioten aien errira
bost ogeikoren kontra eun
zijoazela; eta arturik
larogei t'emeretzi *laun*,
joan zan ta gallen an gertatu zan
Oiartzungo seme Lartaun.

16/ Beñere bestek ez du izandu
euskaldunak ainbat barren;

zeñek ez daki zer gertatu zan
bein batez Beotibarren?
Orduan ere arerioak
indar aundiya zekarren,
bañan geienak gelditu ziran
illik, maingu edo erren;
oraindik ere lengoak gera
askok ezetz uste arren.

17/ Miñberatzea gerta liteke
zenbait egiak esanez,
bañan ez dute kejakizunik
Aitorren semeen lanez;
gure dierri edo patria
beartu izandu danez,
naiz serbitzeko orain bezela
premesia'rik⁽⁴⁾ izan ez,
Euskalerrriak lagundu dio
bere odola emanaz.

18/ Noiznai arkitu izandu danez
Españia bearrean,
naiz emen bertan edo urruti,
munduaren bazterrean,
leku beroan edo otzean,
itsasoan, legorrean,
beti azaldu zaio laguntza
kantauritarren lurrean,
ta euskaldunak ikusi dira
beste guztien aurrean.

19/ Tubal'en kastak ezin kontaala
oroimen badadukazki,
mundu guztiak aitortutzen du,
ez da esatea aski:
Okendo, Lezo ta Idiakez,
Txurruka eta Legazpi,
ta beste askok duten omenik
etzuten izango noski,
beren ekintza mirarietan
akindu⁽⁵⁾ baziran gaizki.

20/ Orain, azkenik, Españiak txit
berea duen Habana,
erregiñ batek Kolon'en bidez
eskuperatu zubana,
da lotsik eta zentzurik gabe
gure kontra altxa dana.
Nonbait ez daki españitarrak,
bildutzean elkargana,
beti arrazoiz guazela ta
bentzut-eziñak gerana.

21/ Kubako kastak, orain dirala
lareun urte zer ziñaten?
Pixtien gisa jazkairik gabe
biluzgorri zebiltzaten;

ta erakutsi ondorenean
jazten, izketan ta jaten,
ari zerate zeren amari
garratzasunak ematen!
Ikusiko da beiñ betirako
aspertzen ote zeraten.

22/ Ondo dakigu oraingo ontan
etzeratela bakarrak,
zirikatutzen zaituztelako
atzetikan yankeetarrak,
egazti arraparien gisa
luzaturik atzaparrak;
bañan leoia ez du izutzen
basakatuen kalparrak,
eguzkitara guk aterako
ditugu zuen zatarrak.

23/ Zenbat guraso zuekgatikan
gaur negarra dariola
arkitutzen da, ikusirikan
semea falta zaiola!
Zenbat emazte eta andregai
eziñ alaituz iñola!
Ta ala ere ezagutzen da
ez dizutela ajola;
errespetatzen ez dezutenak
inozenteen odola!

24/ Agur, gudari españitarrak,
batez ere euskaldunak;
zuei begira gaude guraso,
senide eta lagunak,
gerok urruti egonagatik
biotza or daukagunak,
beti kontatzen gure ondotik
falta zeraten egunak,
bizi geraden arte beñere
aztuko etzaizkigunak.

25/ Ikusirikan ama negarrez,
semeai laguntza eske,
geren odola eskeñi gabe
gu nola egon gintezke?
Ez, ori eziñ gerta liteke,
beldur gabe bageundezke;
beragatikan, anai leialak,
beti saiatu zaitetze,
progratu dediñ bageradela
izena degun ainbeste.

26/ Seme maiteak, joan zeratenak
gerrara Kuba aldera,
proga zazute gure sorterri
au dala lengoa bera;
eta omen au zabaldurikan
laster mundu zabalera,

otoitz ta malkoz apaindurikan
illtzen diranen galera,
aurki atozte zai daukazuten
amatxoren magalera,
goititurikan milla lekutan
bentzutu duben bandera.

27/ Beraz, manbisak —ja, ja, ja!— guri
artu nai digute goia?
Oiek oiñpean sartu nai dute
Españiako leoia?
Mundu guztia begira dago,
eta oraiñ da sasoia
erakusteko aukeratutzen
degula betiko oia,
botatzen utzi baño lenago
geren aurpegira loia,
zergatik gure alde dauzkagun
indarra ta arrazoia.

- (1) Nación. (Otañoaren oarra)
- (2) Invasión. (Id.)
- (3) Bazkatu. (Id.)
- (4) Obligaziorik. (Id.)
- (5) Portatu. (Id.)

Maitaro

(On Migel Oñateren musikan)

Agertzen zeranean
goizean goizetik,
illeak apainduaz,
zere gelatxotik,
atarira begira,
leiotxoan txutik,
eguzkiak agurtzen zaitu
mendiaren ertzetik.
Txori txiki politak,
arboletan iyuak,
bidaltzen dizkitzute
pipirripiyuak.
Azkenik, denak joanik,
eziñ utzi
leku au nik.
Izan zaite nitzaz
erruki,
ez beti penatzen
eduki.
Beti, beti...
Zenbat gau eta egun
pentsatuzten zugan!...
Biotza
erretzen
dadukat
nik suban...
Nere biotz gaxua
puska bat zugana
dijoa, maite laztana.
Esan zaidazu itz alaiez:
Baietz, baietz...
Alkarri egiñikan
anparo,
biziko gera biyok
luzaro
maitaro.

Aur gurgarriari

(1896)

1/ Eguzki argitsua
zeru urdiñean
dizdiztuaz Sarako
mendien gañean,
ta gero egi eta
ibar berdiñean,
azaldu zan goiz batez
gis atsegiñean.

2/ Irteten dan bezela
uxoa kabitik,
aingeru txit garbi bat
Sarako erritik
atera zan goiz artan
ait'amen ondotik,
fedearen bidea
jarraitzeagatik.

3/ Konpesatu ta Jauna
Naparroko Beran
artu ta zijoala
Frantziko sarreran,
nola España ta
biak zeuden gerran...
Ai, Magalentxo, zeñen
kupigarri zeran!

4/ Gaitzik egiñ gabea
zu zere bizitzan,
katibatu zinduzten
lapur baten gisan,
ta eguzkia laster
odeiz estali zan;
oben⁽¹⁾ aren testigu
etzuen nai izan.

5/ Errukiz gezurtxo bat
eskatu zizuten,
gaitz gabea ziñala
ikusten baitzuten;
ta nola etzenduen
baitetz erantzuten,
Pinet gogorragana
eraman zinduzten.

6/ O, Pinet! Zuk amarik
bear etzenduan!
Aingerua illtzeko
agindu zenduan!
Magdalena Larralde
txit alai zeguan,
eta Salve Regina
kantatu onduan,

Doni-Juandik irten ta
sartu zan zeruan.

(1) Crimen. (Otañoren oarra)

Aitona eta illoba

1/ Esaera zarra da
gizona zartzean,
eta bere semeak
guraso jartzean,
gero illobatxoak
bereganatzean,
aiton buruzurien
sallean sartzean,
berriz arkitzen dala
gazteen antzean.

2/ Aita batek semea
zenbat maite duan
argiratzeko itzik
ote da munduan?
Bañan aitona on bat
illoben onduan,
etxean, atarian,
oian, otorduan...
Maitetasunak ez du
izenik orduan.

3/ Jaio balitz bezela
seme bat bi aldiz,
aitonak illobari
aiñ naitasun aundiz
begiraturtzen dio,
ta beti par-irriz;
pozkidaz betetzen da
aren gaiztakeriz,
esanaz: «Ondo dago;
egiñ zazu berriz».

4/ Illunabartxoa zan
—ain daukat goguan!—,
mendi-bide batean
erriruntz nijuan;
baserri txuri baten
ate inguruan,
aritz baten azpian
aiton bat zeguan,
erdi negar ta farrez
txit desoseguan.

5/ Aitona maitatia
etzegoan lasai,
begiratuaz bere
inguruko gauzai,
eguzkiaren agur
ta azken dizdizai,
eta izar goiztarren
argite eskasai,
eskolara joandako
illoba baten zai.

6/ Alako batez sasi
aldamenekotik
xoxo bat atera zan
presaka gogotik,
sartu zitzaiolako
arri bat ondotik,
ta txakur salatia
saltatu zan goitik;
orduantxe zetorren
aurra eskolatik.

7/ Aitonak, egiñ nairik
benazko papera,
esan zion: «Illoba,
etorri al zera?
Eskolara bidaltzen
zaitut ikastera,
ta oraiñ noa zuri
galdetzen astera;
ez dago afaririk
alperra bazera».

8/ «*Buenas tardes*, aitona;
Pinto, ago geldi.
Nik berorri maite det,
konsolatu bedi;
no me frunza Vd. el ceño
baldiñ al baledi,
gaur maisuak esan dit
noizbait gizon aundi
ni egiñgo naizela
jaten badet ongi».

9/ «Erakusleak ori
esan dizu beraz?
Gustatu egingo zan
zure izaeraz;
bañan ni arritzen naiz
daukazun izkeraz,
beragatikan emen
jakiñ nai det benaz,
esazu: maisuak bai
al daki euskeraz?».

10/ «*Cá, hombre!* Ni...». «Ixo!... O!
Jaungoiko aundiya!
O Tubal ta Aitorren
izkuntza garbiya!
Iya gaur iñorekiñ
ez gintezke fiya...
Ta zer erakutsitzen
dizute, txikiya?».
«Estudiatzen ari
naiz jeografiya».

11/ «Jeografiya⁽¹⁾ nola

gauza ona baitan,
zuk ez dakizu zenbat
gustatutzen zaitan.
Esan zazu euskara
zenbat probintzitan
mintzatutzen dan, zenbat
kale ta erritan,
eta al baldin bada
zenbat baserritan».

12/ «Ori erakutsitzen
ez digu maisuak,
nik beste gauzak dauzkat
goguan jasuak».
«Alderdi ona dauka
euskara gaisuak!
Bañan zuk oker eman
dituzun pausuak,
zuzenduko dituzte
zure gurasuak.

13/ Atoz, nere illoba,
goazen afaitera,
zure guraso eta
senide tartera;
aita ta amatxori
noa esatera,
len zabiltzan ortatik
lenbailen atera
ta bidaltzeko beste
eskola batera.

14/ Gu argitasunaren
etsaiak ez gera,
bañan, ai!, zu, illoba,
zuaz buruz-beera
zere jatorritikan
ezkutatutzero...
Beti saia zaitez au
buruan artzera:
euskera da lenengo,
ta gero... euskera».

(1) Luziazalda. (Otañoren oarra)

Anaitasuna

(1897)

Ikusirikan arrai zatarrak,
arrapatutzean aula,
erruki gabe bizi-bizirik
sabeleratzen duala,
gisa berean pizti gogorrek
menderaturik argala,
onen karraxiz kupitu gabe
puskatzera daramala,
gizonak oei begiraturik
esaten du bereala,
ikaraturik nola indarrak
daukan agintea ala,
«arrazoiaren argirik eta
zentzu gabeak dirala»;
ta sinisturik bera askozaz
biotz obekua dala,
jakiñik Jaunak zentzua eta
kupira eman dizkala,
pentsatutzen du alako lanik
egiñgo ez lukeala...
Aitortutzen det lotsa aundi bat
barrenen sartzen zaidala,
iduriturik iñoiz gizona
piztiak beziñ zitala.

Arrazoiaren argi gabeak
nola diran pizti denak,
ta ezagutu ez litzateken
ematen dituzten penak,
oiek dirade barjakindeko⁽¹⁾
kargatik libre daudenak;
bañan ez dira orla arkitzen
gizonikan lotuenak,
atzera dauden basati, edo
salbajerik gualduenak,
zergatik diran Jainkoak bere
antzez egiñ zituenak.
Alaxen ere barkatzekuak
dira okerrik geienak,
ume traketsak beste gauzarik
ez diran gizon aienak.
Nola arritu, ez egiteaz
obra on eta zuzenak,
Jesukristo-ren Lege Santua
iritxi etzaiotenak!

«Aita nerea, barka zaiezu,
ezdakite zer egiñ duten!».
Begira emen Maisu aundiak
nola digun erakusten,
ezaguerarik gabeak zenbat
gaitz gutxiago dituzten,
saiatu arren beste iñoren

zaiñ eta ezurak austen.
Nor arrituko da itxua ez
ibilliagatik zuzen?
Bañan gu oitu baldiñ bagera
txikitandikan ikusten,
zuzen-bidea jarraitutzeko
argidotu baginduzten,
argaltasun ta zitalkeriak
zertan ez ditugu uzten?
Ondamutasun ta griña txarrai
zergatik diegu eusten?
Gerra kontua beste gauzarik
iya ez degu entzuten...
Agintariak, begira gero,
zer lan egiten dezuten!

Kristau jatorrak izanagatik
asko daude gelditurik,
beren bizitza ta izaerak
orretara bearturik,
irakurritzen ez dakitenak
ta ez aditzen oiturik
gizon argidotarren artean
maiz izaten dan konturik.
Orregatikan ikusten dira
askotan txit beroturik,
ezer balio ez duten gauzak
oso aunditzat arturik,
edo aundiak ezerezera
beren ustez biurturik;
erabaki nai eta iñola
itzikan eziñ neurturik,
beren antzeko aditzallea
bullaka iya gorturik;
ta berak duten trakeskeriaz
azkenean asperturik,
altxatzen dira eserleikutik,
atzaparrak goititurik,
ta asten dira elkar zanpatzen
ukabilltzarrak loturik.
Ustez jakite zerbait duena
oieri begiraturik,
egiten duten baldarkeriaz
gelditzen da arriturik,
esanaz: «Nola ezagutzen dan
daudela atzeraturik! ».
Bai, egia da, ori geienak
daukagu ezaguturik,
bañan, au errez eraman leike,
ez balitz okerragorik;
aiengatikan, gutxitan oi da
familietan lutorik;
gizon aundien iñozokeriz
gaude onetaraturik.
Nola nai dute ez izatea
berentzako errenkurik?

«*Pax in terra hominibus bonae voluntatis*» len esanik;
«ez degiozu besteri
zeretzat nai ez dezunik;
gizon-guztiak anai zerate;
jakiñ zazute azkenik
ez dala iñor Jainkoarentzat
aztuta gelditzen danik.»
Badago kristau egiazkorik
txit ondo ez dakienik
oiek Jesus-en itzak dirala
Berak legetzat emanik?
Gañera denok barjakindean⁽²⁾
dauzkagun gauzak izanik,
da jakiñik ontzaz kanpora
ezdala bide zuzenik,
nola liteke arkitutzea
aiñ dollorrik, aiñ zekenik,
arrazoiaren lege santura
erori nai ez duenik?
Begira nago, ta ala ere
eziñ det sinistatu nik
kristau artean arkitutzea
orrelako txartasunik.
Zertako dira erakusleak,
zertan egiñ ortan lanik
araudeari⁽³⁾ ez ematekoz
jakintsuak aitormenik?
Aundi gaiztuak diran tokian
ez eskatu, txiki onik!

Leundu gabe oraindik dauden
gizon illun ta zakarrak,
bizi diranak atzeratuak
diralako basatarrak,
ikusten dira beren artean
luzaturik atzaparrak,
lagundutzen ez diotelako
izketan mingaiñ baldarrak,
edo trakestu dituelako
arduak edo pattarrak.
Bañan orien egiñpideak
izanagatikan txarrak,
bestek gutxitan nozitzen ditu,
baizikan beren bizkarrak.
Aserretzera iritxitzean
gizon aundi ta azkarrak,
utsa litzake ortaratuko
balira berak bakarrak;
ordea oiek jotzen dituzte
gerra-soñuko adarrak,
deituaz gazte sasoi dutenai,
utzirik ume ta zarrak,
ta emakume indar gabeak
kendurik beren senarrak;
kupitu gabe ama gaisoen
zizpuru eta negarrak,

ta gizonari deitzen dioten
emazteen deadarrak...
Gisa orretan naspillaturik
pakean zeuden baztarrak,
bukatzen dira dama kutunen
abo politeko farrak,
itzaldurikan begi alaien
dizdizarizko txingarrak.
Aitonak makur, amak auldurik
ta goseak iltzen aurrak,
nola ez daukan zer kendurikan
len tititsu zan bularrak,
zergatik kolko oparotsuak
gelditu diran medarrak.
Lengo arto ta gari soroak
estalitzen ditu larrak,
eta etxean ziran jankaiak
kiskali su eta garrak,
arkiturikan lurperatuak
nagusi eta maiztarrak.
Baleike iñor ontaratzea
munduau bizi bearrak?
Begirotute al bait kupidaz,
o gizon argidotarrak!

Esaten da, ai! bearrezkoa
dala iñoiz gerratea!
Zeñek naiko du bere amari
iñork miñik ematea?
Ez da orduan arrazoizkoa
beraren alde joatea,
balditi oskaitu⁽⁴⁾ al baliteke
egian dioten kaltea?
Bai, au da seme leial guztiak
daukagun borondatea.
Bañan zertako da ipiñtzea
lurra odolez betea
isurtzen dana, geiena bada
gaitzik gabeko maitea?
Ez da ohea beste dierr⁽⁵⁾
bategi artzea parte,
ta egiazko juez egiñik
kulpaduna bereiztea?
Merezi badu, kendu bizia
edo erantsi katea;
gaizkirik egiñ ezduenari
ohea da esatea:
«Zurekiñ ez det zer ikusirik
ta etxera joan zaitea».
Ama leialak, beti naiko du
seme onak izatea,
txarkeri gabe, al baldin bada
arrazoi eramatea,
zergatik gerrick onena baño
beti obe da pakea.

Izutzen gera neguko arrats

ekaiztsu ta illunean,
oñazkarren su errabitsuaz
trumoi t'arrijas unean,
itsasoaren orro-burrunba
iritxitzen zaigunean,
ujola edo sua gallentzen
ikusten ditugunean.
Ikaratuak arkitzen gera
gaitz bat datorkigunean,
sosegu edo lasaitasunik
iñon ez daukagunean,
beldurrez eta larritasunez
beti estutasunean,
gure bizia ain da tristea
pakerik ez degunean!
Ta, ala ere, gañera gerok
gerra piztu azkenean?
Aitor dezagun inundutarrak ez
gudela zentzu onean,
guda, burruka eta bekaitza⁽⁶⁾
maiz darabiltzkigunean.
Bañan, oraindik, sartu gintezke
anbat bide zuzenean,
sinistu eta pentsaturikan
Maisuaren esanean,
begiraturik nola negua
igaro ta ondorean,
itsaso ta lur, landare, lore
denen alaitasunean,
eguzki gaxo, txori joxtallu
aize epel bigunean;
gau izartsuan illargiaren
begirakun txukunean;
errekaxoen mur-mur-soñuan,
nonnai, goian eta bean,
ori guztiya pakea dala
ta askoz gisa obean
gizona aisa bizi leikela
arrazoiztutzen danean,
len txarrerako ainbeste griña
onerako duanean,
armak utzi ta aitzurrak artu
eta soroan lanean,
edo bakoitzak zerbait mesede
egiñ lezakeanean,
aita ta ama, senar, emazte
ta aurrak aldamenean,
otorduetan ta arratsean
bildutzen diradenean,
senide, aide t'adiskideak
maitaro datozenean,
pake santuak elkarganako
dakarren naitasunean,
munduan izan gintezkeala
gu zoriontasunean,
lagun urkoa bear bezela
maitatzen dakigunean.

Otoitz egiñaz bukatutzen det
Jainkoaren izenean,
dollortasun ta gaitzak kendurik
pakezko osasunean
Berak ipiñi gaitzala, arren,
denok anaitasunean.

Gutistea⁽⁷⁾

«Gerrik onena zer da azkenik?».
«Da, doakabetasuna;
biotz gogorren zitalkeria,
pozoiezkotako erantzuna;
arlotegitza ta oñazea,
gosea t'eritasuna;
eriotza eta infernua...»
«Ta, pakea? »

«Osasuna»

- (1) Conciencia. (Otañoaren oarra)
- (2) Conciencia. (Id.)
- (3) Justicia. Derecho. Hacer justicia : Ekadoia egiñ. (Id.)
- (4) Remediar. (Id.)
- (5) Nación. (Id.)
- (6) Envidia. (Id.)
- (7) Resumen. (Id.)

Legazpi aundiari

(1897)

1/ Zure omena baño lenago
desegingo da brontzea,
opa zaiguzu talluntz eder au
maitaro agurtutzea.
Agur, Legazpi, zuk nai zenduen
Urdanetak laguntzea,
guztियon onran elkaturikan
ezpata ta gurutzea.

2/ Kolon ta Magallanes,
Elkano altsuak,
ta beste milla izen
kondairan jasuak,
illak eta biziyak,
lur ta itsasuak,
alaitzen ditu gaurko
egun doatsuak.

3/ Begiratzten diyote
beren lagunari,
Zumarragako seme
ospatsu danari,
Filipinak beretu
zizkana «amari»,
euskaldunen onra dan
Legazpi jaunari.

ARJENTINAKO BERTSOAK

(1898-1910)

Laztan edo musurik onena

(1899)

Musuak beti izan
dute aitamena,
gozo ta eztitsua
da txit amarena,
aurrak igarri gabe
artu lezakena,
bañan pozkidatutzen
du aren barrena,
zergatik au dan izan
leiken ederrena.
Sentitzian far-irri
semetxuarena,
iduriturik dala
esker leialena,
neurririk gabia da
amen zoramena,
bere berdiñikan ez
duben gozamena.
Nola ez du beteko
musuz aur lerdena,
ezpañetan jarririk
biyotz beraaena!⁽¹⁾

Musua gerta leike
atsa ta zekena,
edo faltsua ala
nola Judasena,
ta ondoren tristia
berak lekarkena.
Naitasunik gabeko
musua da azkena,
askok oituragatik
—au ez al da pena?—
begiyak itxututa
ematen dutena,
ez egitiagatik
paper lotuena...
Musua izan leike
ezpañ utsarena,
animarik gabeko
abo otzarena,
au da musu saldua,
musurik txarrena...

Bi biyotz maite bildu-
tzian alkarrena,
o zer poza dan musu
batek dakarrena!...
Argatik eman oi da
al dan azkarrena.
Bañan bada musu bat
laztan aundiyena,
ta musu guztietan

maitagarriyena,
goguan gelditzen dana
musutan geiena,
gizonak aita izan
arte ez dakiyena:
oñazez nabaiturik
emazte zuzena,
berari lagunduaz
al dan gogozena,
eta iritxitzian
trantze garratzena,
argiraturik sano
seme berarena,
irabazirik onla
aita-ren izena,
limurtzen da gizonik
danik zikoitzena...
Ta artuaz arpegi
andretxuarena,
estaliyaz esker ta
malko gozoz dena,
musua da senarrak
ematen dubena,
nik ezagutzen deran
musurik onena.

Amak, barka zazute
nere oroimena,
zergatik izango det
beti aitormena,
amatxoren musua
dala santuena.

Pehuajó, 23 de Febrero de 1899

(1) El más tierno. (Otañoren oarra)

Zugandik urruti

(1899)

Mendi gurtuak, urruti zaute,
ai, au pena aundi eta lotsa!
Ez dakit nola zuek utzita
etorri nintzan ni onontza.

Sagasti, gaztaiñ, aritz, batzarre
ta kanpai alaiaren otsa,
nola sendatu aldegitean
lertu zitzaidan, ai!, biotza?

Gaztea negon ta beregana
deitzen ziran itsasoak;
utzi nituen aita ta ama,
zartutako gurasoak.

Baserri txuri maitean biak
negarrez urtzen gaixoak,
geroztik beti aruntz begira
zabalik dauzkat besoak.

Aita, amatxo ta lur maitea
utzirik urruti junak;
zertako ditut ugaritasun
eta aberastasunak?

Zertako ditut pozik gabeko
gezurrezko ontasunak?
Egarririkan illtzen ez duten
gurutzeko beazunak.

Zu utzitzean, nere biotza
egin zitzaidan bi parti;
geroztik non-nai arkitutzen naiz
doakabe ta bakarti.

Eсна ta lotan, gau eta egun,
zutzaz oroitutzen beti;
Ama, barkatu! (*bis*)
Ni eziñ neike bizi
zugandik urruti.

Urolari

1/ Nere lagun, pakezko
bakardadeak,
estutasun da neke
ta naigabeak,
iduripen gozuak,
izen ...geak⁽¹⁾
eta gizon langille,
anai nereak,
goi eta beak...

2/ Laño eta odeiak,
ur eta suak,
erribera, muño ta
mendi altsuak,
iturri, ibai, itsaso
ta errekatxuak,
goizeko intzak eta
aize maltsuak,
larre dontsuak.

3/ Entzun zaizkidatzute,
lagun gozuak,
euskaldun baten kantzo
maitatitsuak.

4/ Urolatxo zer txatarra sortzen
dan Aitzgorriren kolkuan!
Pozez, lasterka, koskortzen dator
Zumarragaren albuan;
Gero Azkoiti eta Azpeitiya
igaro ta beeraguan,
aundi ta eder oieratzen da
Zumaiako itsasuan.

5/ Aitzgorritikan Zumaiaraño
darama bide guziya,
arrigarrizko mendi ta basoz
bi aldetatik josiya;
gerezi, sagar, intxaur da gaztañ,
aritz ta pagoz jantziya,
masusta gozoz apaindurikan
urritz tarteko sasiya.

6/ Mendi tontorren egal biguñak
luberriturikan denak,
nekazarien beso senduak
gogoz landuta daudenak;
sortzen dituzte arto, gari ta
egoskaririk onenak,
argatik beti maitatzen ditu
bein ikusten ditubenak.

7/ Egokitu zait leku askotan
begiratzea munduba,

ta ikusi det ibaiz, iturriz,
basoz, lorez apainduba;
bañan neretzat ederrena da
Urolaren inguruba,
an jaio nintzan eta an dauzkat
biyotza eta buruba.

(1) Itz onen leenengo bi letrak ezin irakurri ditugu Oñoren esku-idatzietan.

Amari

1/ Aditu degu askok
galdetzen dubala,
jakin nairikan zer dan
euskeraren gala;
eta guk erantzuten
degu beriala
izkuntza zerutar au
gure Ama dala.

2/ Ta nola zor dizugun
geren izatea,
mundu guztiari nai
degu esatea:
biyotza maitasunez
daukagu betea,
gurekin konta zazu,
Amatxo maitea.

3/Ez degu nai beñere
zugandik aldegiñ,
askok egiñagatik
ainbeste alegiñ.
Ill artean euskaraz
nai degu itzegiñ,
gure Ama bakarrik
gelditu ez dediñ.

Nere kabiya

(Baztandar bati)
(1900)

1/ Lenbiziko arnasa
artu zan lekura,
zeñek eztu izango
joateko ardura?
txoriyak kabiya
nai diyon modura,
nik maitatzen det beti
txoko eder ura.

2/ Euskal-erri guztiya
maite det benetan,
nere anayak daude
probintzi denotan.
Bañan Naparroako
mendi alaietan,
an jaio nintzan eta
ill nai det an bertan.

3/ Elizondoko uri
maite ta laztana,
ona seme bat zutzaz
aztuko eztana.
beti eskatzen nago
jaungoikoagana,
ill baño len eraman
nazala Baztana.

Eder bati

1/ Triste ikusten zaitut,
mirabe garbiya,
beti izan zerana
lagunen argiya.
Nora joan zaizu, non da
lengo far-irriya?
Zer gertatutzen zaizu,
aur maitagarriya?

2/ Izar ederrak diz-diz
nola egiten duban,
odeyik gabe urdiñ
daguena zeruban,
zuk oraindaño ala
egiten zenduban;
arantzen bat aldezu
biyotz saminduban?

3/ Zu idukirik orren
triste ta negarti,
nola etzaio egiten
biyotza bi parti,
anbat kulpa guztiyak
dituben norbaiti?
Nik len bezela ikusi
nai zinduzket beti.

Perrando Amezketarra-ren aterakari bat

(1900)

Gipuzkoan dan mendirik politena esan oi da dala Adunako Bulandegi.

Menditxo au zan Perrandoren neguko artzantza lekua.

Lenengo gerra *zibillean*, egun batez, Bulandegi-barrean, Aintzirako bidean, *Artxaia* jenerala (D. Gaspar Jáuregui) zijoan bere gudari taldearekiñ.

Perrando, azekigañean zutik, bere urrotz-makillarekin kontra, zeguan begira.

Bere txikitako laguna *Artxaia* zaldi eder baten gañian iritxi zanian Perrando zegon lekura, onek diosala egiñik eta Artzaia ezaguturik berela zein zan, erantzun ziyon erdi farrez:

-Zer diok, Perrando? *Paziosoen* berririk-eta badek?

Erantzuera:

-Ba, jaune: atzo izandu nitzen Naparroako Gaintzen.
Zazpi edo zortzi errazio billa an zebiltzen.
Beste berreun omen daare Leitzen.
Beok ezpaioe obeto segitzen,
beldur naiz nee ardi txar guzik jan ditzeen.

Pello Mari

Aita-Semeak

(1900)

1/ Lagundurikan denoi
gugatik ill zanak,
seme, azi zaitugu
aitak eta amak,
beti zure gidari
izandu geranak.
Orañ gurutze onen
oñean esanak,
ondo goguan artu
biaituzu danak.

2/ Zu Ameriketara
joatia emendik,
Jaunak ala nai badu,
zer egingo det nik?
An ez dezu izango
aitik eta amik;
baña etzera galduko
noranaira joanik,
ez bazaizu aztutzen
gaur emen esanik.

3/ Gorde zazu buruan
eta biyotzean
aitak zer esan zizun
onuntz laguntzean,
bitarteko arturik
Jesus gurutzean:
Jaungoikua t'ait'amak
batek aztutzean,
ez leike ondo izan
denbora luzean.

4/ Ez nizuke utziko
joaten, egiyetan,
gure erlijiyua
ez balitz an bertan.
Iritxiko baziña,
añ urrutiyetan,
erri ta eleizarik
ez dan tokjyetan,
oroi zaitez Jainkoaz
leku guztiyetan.

5/ Seme, izan goguan
zeure gurasuak,
eta uzten dituzun
senide gozuak;
jayo ziñan tokiko
mendi ta basuak,
euskerazko otoitzak
edo errezuak,
erakutsiyak zure
amatxo gaxuak.

6/ Iritxi da orduba
juan bear dezuna,
badakizu ait'amak
emen dauzkatzuna;
ez dezazula aztu
gaur neri entzuna,
itz baterako au da
eskatzen zaizuna:
izan zaitez non-nai ta
beti *euskalduna*.

Pehuajó, 2 de enero 1900

Zazpiak-Bat

(1900)

1/ Zazpi aizparen gai dan oiala
ebakirikan erditik,
alde batera iru soñeko,
utzirikan lau, bestetik;
goraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oial batetik.

2/ Oialtzat artu zagun euskera,
goraizitzat Bidasoa,
ibai koxkor bat besterik ez da,
utsa balitz itsasoa;
elkarren urbill daude Zazpiak,
muga deitzen da Pausoa
zergatik izan bear ez degu
famili bakar osoa?

3/ Arbola baten zañetatikan
sortzen diran landariak
bezela gera, Bidasoaren
bi aldetako jendiak;
berdiñak dira gure jatorri,
oiturak eta legiak,
Ama Euskerak magal berian
azitako senidiak.

4/ Ama Euskera! Bere semeak
gu Ameriketara zenbat
arkitzen geran! Ta urrutitik
maitiago degu, anbat;
emen ez dago Bidasoarik
ta beste trabik an ainbat;
ama maitia indartu dedin,
bizi bedi «Zazpiak Bat».

Pedro Maria Otañoren sail au Jose Mendiage hazpandar bertsolariaren beste sail bati erantzuteko moldatua da. Ona emen Mendiageren bertsoak :

JOSE MENDIAGUEK, PEDRO M. OTAÑORI
Airea : "Ume eder bat ikusi..."

1/ Felizitatzen zaitugu denek
bihotzetikan, Otaño,
zure parerik ez da agertu
Ameriketara oraino;
fama handiak dituzu bainan
obrak hanitz handiago,
zurea izena ez da galduko
mendeak mende direno.

2/ Zure burutik ateratu da
pentsamendu bat ederra:
Buenos Airesen ikus dezagun

eskuaraz egin opera;
zaharrei hola etorri zaie
gazte denbora burura,
gaztea berriz non sortua den
bihotzez oroituko da.

3/ Loriatuak egondu gira
zure obraren aurrian,
holakorikan ez da agertu
guretzat orai artian;
xoraturikan beti begira
pentsamenduaz airian,
gorputza hemen ginduen bainan
bihotza Eskual Herrian.

4/ Zori onean etorri zira,
Pedro Otaño, gutara,
Ameriketan galdu ez dadin
gure ait'amen eskuara;
guziek esku elgarri emanaz
egin dezagun indarra,
ideia ona ekarri duzu,
badugu zure beharra.

5/ Orai artean ez da agertu
holako obra ederrik,
Ameriketan zu izan zira
egin duzun lehenik;
zure fama ez da zabaltzen
Laurak-Bat-ean bakarrik,
laudorioak hartu ditzazu
zazpi probintzietarik

6/ Zu bezalako asko presuna
jiten bada gure aldera,
emeki emeki urbil gaitezke
guziak elgarretara;
abiatu ziran lanari
beti segitzen bazira,
Ameriketan Euskal Herriak
laster formatuko dira.

José Mendiague
Buenos Aires, 11 Marzo de 1900

«Eskuaraz egin opera», *Artzai mutilla* alegia, aurkeztu berria zan Buenos Airesen. Mendiage ere jende artean izan zan: «loriatuak egonak gira zure obraren aurrian». Eta bertso auen bidez zorionak ematen dizkio Otañori. Onek ordaiñetan or goien ezarri ditugun bertsoak moldatu zituan.

Amerikako panpetan (1900)

1/ Euskal-Erriko lur maite artan
jaio nintzan baserriyan,
itzal aundiko intxaur arbol bat
dago gure atariyan;
aren ondotik irten da noiznai
maldako gaztañariyan,
edo, sagarrik onenak jaten
luberriko sagastiyan,
arbol tartian bizitu nintzan
gazte denbora guztiyan.

2/ Denak utzi ta etorri nintzan,
lur au ikusi nai nuan!
Aritz tantayak, pago lerdanak,
nola ez izan goguan!
Oraiñ artzantzan Ameriketean
arrantxo baten onduan,
eguna pasa larrian eta
jiratzen naizen orduan,
nere begiyak gozatzen dira
aldameneko *ombú*'an.

3/ Ainbestoraño tristetutzen naiz
eremu ⁽¹⁾ zabal oietan,
arbolak, mendi eta errekek
falta diran zelaietan,
non etorri ta eseritzean
ombú-tzar onen zañetan,
edo igo ta osto tartian
bere adar bikañetan,
ene! amatxo! nik nola esan
zenbat gozatutzen detan!

4/ Txabol ondoko *ombú* laztana,
maitatzen zaitut gogotik,
eta biyotza erdibitzen zait
joatian zure ondotik,
nere burura ekartzen dezun
oroimen gozuagatik.
Zure itxura ikusi nai det,
ez dizut eskatzen frutik⁽²⁾,
ni emen bizi naizen artian,
arren! egon zaite zutik!

5/ Nere lagunik maitatuena
ombú laztana, zu zera,
argatik nator zure kolkora
ni malkuak isurtzera,
iduriturik naramazula
atariko intxaurpera...
Beti izango zaitut goguan,
bañan joan nai det osteran,
Euskal-lurreko arbolpe artan
nere ezurrak uztera.

- (1) Desierto. (Otañoren oarra)
- (2) Alortik. (Id. Ez dakigu zer esan nai duan alortik itz orrek.)

Orfeon Donostiarra-ri agur

(1900)

«Agur!» orain bi urte
esan zirazuten,
«Agur, kantaridiya!»
erantzun nizuten;
agur aiek ez ditut
biyotzetik uzten.
Ai, bazeundete txulo
batetik ikusten,
nere animak nola
agurtzen zaituzten!

Urte zar

(1900)

Agur, urte zarra ta
eunki argiduna,
orrenbeste mirari
egin dituzuna.
Ill da zure indarra
ta aunditasuna,
azken orduan zer da
uzten diguzuna?
O, zer atsekabeak!
Zer illuntasuna!

Ongi-etorriya

(1901)

Jaioterri maitera,
Osasun ondoren,
Sortu ziñan lurrari
Eskatzera arren!,
Megope⁽¹⁾ ta gorputza
Aunaturik emen,
Run-run gozuen billa
iritxi ziñaden.

An utzirikan oraiñ
Lagunak ta erriya,
Denai egiñik berriz
Agur mingarriya,
Sendoturik dakartzu
Osasun berriya;
Rezibi zazu nere
Ongi-etorriya.

Acróstico bat egiten du emen Otañok. Lerro bakoitzaren leenengo izkia artu eta goitik beera irakurtzen bada, *Jose Mari Aldasoro* irakurriko baitegu. Jaun ori nor izan zan ez dakigu. Baiña, itxura danez, Arjentinan gaixoturik, Euskalerrira etorri zan osasunaren billa; eta, sendatu eta ara ostera joan zanean, Otañok bertso auekin eman zion bere *ongi-etorriya*.

(1) Megopea : el espíritu (Otañoren oarra.)

Noizbait (Ordañetan) (1902)

1/ Jeronimo Elizegi,
zure «Oroimenak»
pozkidaz bete ditu
gure barrenak;
goitaltxatu gaituzu
Otaño-tar denak,
ingurukuak eta
urruti gaudenak;
bizi geradenak,
ta ill ziradenak,
pozak eta penak
gure kastarenak...
Ar itzatzu eskerrik
bereziyenak.

2/ Elizegi, altxatzen
gaituzu txit gora;
zeiñ ezdute gauz oiek
uzten gustora?
Gaur ez merezi arren
orrenbeste onra,
irabazten saiatu
gintezke gerora.
Guk ortik kanpora,
ai, zenbat denbora
bildu gabe iñora,
lagunen ondora!...
Poza da ekartzia
batek gogora.

3/ Erabaki zerade
modu bikañian
askok iritxiko ez
luken añian,
bederatzi puntuko
doñu apañian;
beragatik zenbaitek
zauzka mingañian.
Nik beiñik beñian,
aiñ gogo fiñian,
agertu danian
euskal jardiñian
lore berri alai bat
arantz gañian.

4/ Gure euskal jardiña⁽¹⁾
arantzaz josirik,
arritzeko da nola
dagon bizirik;
orrenbeste penatzen
Ama ikusirik,

bere semiak eziñ
geundezke geldirik;
guk zabar utzirik,
ez ark merezirik,
daukagu jatxirik
ta eziñ altxarik,
zergatik batzubek ez
duten lotsarik.

5/ Kizkurturik jarritzen
zaizkit atzaparrak,
gogoraturik *Amak*
dauzkan negarrak;
ez eskeñitzekotan
ditugun indarrak,
zertarako gerade
aiñ seme zabarrak?
Ondu bitez txarrak
ta *gizondu auarrak*,
leial ta azkarrak,
puskatu amarrak...
Ez gera esker gabiak
Otañotarrak.

6/ Aita ta anaia ill
ziran ezkeroztik,
bertsuak illunpian
gelditu zaizkit,
nola etzetorkidan
iñondikan pozik,
zure *oroimen* onak
ederki datozkit;
oraiñ ere ortik,
gure sorlekutik,
betiko txokotik,
lagun zarretatik...
Guztiyai eskumifiak
gure partetik.

Pedro M. Otaño
Pehuajó-n, Abenduaren 1-ean, 1902-ian

Bertso auek Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian argitaratu ziran leenengo aldiz, 1902-XII-10-ean

Otañoren bertso auek irakurtzearekin auxe ateratzen da : Jeronimo Elizegi batek bederatzi puntuko bertso batzuk aurretik, eskeiñi zizkiola, Otañotarrak goitaltzatuz; eta Pedro Marik beste bertso auekin erantzun zuala.

Jeronimo Elizegi orren bertsoak *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian argitaratu ziran, 1902-X-31n. Pedro Mariren eskuetara iritxi eta bere auek jarri ordañetan.

Elizegiren bertsoak La Baskonia-k ere agertu zituan, Otañoren erantzunarekin batera eta aldaketarik gabe.

Onela diote :

OTAÑOTAR-ARI OROIMENA

1/ Pedro Mari Otaño
lenbizikotikan
jartzen det paper ontan
goititurikan.
Euskalduna, biotzez
izanagatikan,
juan zan gizarajua
urrun emendikan.
Beti esanikan
egon naiz lendikan:
Euskal-erritikan
aiñ jakintsurikan
ez da sortu amaren
sabeletikan.

2/ Bernardo berriz degu
gizon egokiya,
txit onraduba eta
bertsolariya,
Zizurkildik onera
noski etorriya;
ura izan biar du
jaio zan erriya.
Txit alaigarriya
orren arpegiya,
kantari argiya,
euskaldun garbiya,
Karidade-ko seme
maitagarriya.

3/Periko ta Mikela,
Joxe gaztiena,
ura zan neretzako
launik onena;
txarkeririk etzuben,
ona zuben dena;
edozeñi laguntzen
beti zan aurrena.
Gauzik okerrena
jakindu nubena:
lagun maitiena
Elizegirena
ill zala Amerikan;
ai, ura pena!

4/Ildakua askotan
ezin leike aita,
guztiyarentzat pena
izaten baita.
Barkatuko dirate
artu dedan gaita,
nik emen jarri ditut
argiratu naita.

Aitormena maiz-ta,
aztutzia gaitz-ta,
asko ditut maita
euskalduna naiz ta;
Juan Pello argiña zan
danaren aita.

5/ Bukatutzero nua
fameli danakin,
Jose Beranardo oien
osabarekin.
Sekulan ez du izan
traturik nerekin,
bañan aspaldi nuben
zer zan ori jakin.
Kantu lanarekin
zeiñ jarri arrekin
ta guztiarekin,
naiz izan zerekin:
euskalduna bezela
abarkarekin.

Esan degunez bezela, leenengo bertso sailla Jeronimo Elizegi dalako orrek jarri zuan; bigarrena Otañok, erantzuna emanaz; eta irugarrengo sail bat ere izan zan, Elizegik jarria, onako au alegia:

1/ Zu jaio ziñan lur eder ontan
zenbait euskaldun piñ ta on
pozturik daude dakitelako
ondo zerala Pehuajó-n;
esan izan det eta esango det
zergatik seguru nagon:
il eta gero salda berua
naiz len txit premiyan egon.
Gizon jakintsu aundiyarentzat
orra munduban zer dagon.

2/ Zenbait oi dira izan munduban
gizon jakintsu argiyak
izan diranak euskal letretan
gure erakustariyak;
beste batzubek koraje aundiz
arraxkatubaz biziya
egin dituzte gerra denboran
aziyo izugarriyak;
guztiyarentzat berdin izan da:
ill ta gero gauz aundiyak!!

3/ Ni ori beti esaten nago,
badakit dala alperrik,
ezagutzen det zuzen juatera
ez litzakela okerrik.
Bañan ez al da tristia, jaunak,
gizon bat bakar-bakarrik
zeguan euskera ezagutuba

aiñ jakintsu ta azkarrik,
eta guk ala juaten uztia
bera sortu zan erritik?

4/ Orrengatikan bigaldu ditu,
orain dagon lekutikan,
bertso batzubek esanaz nola
gauden txit ondaturikan;
len lur eder au lore ederrez
zegola apaindurikan,
eta gaur berriz dagola otez
ta arantzez beterikan...
Au da tristia: diyola ez dala
gure kulpa besterikan.

5/ Arrazoi du ark. Zergatik dago
lur au arantzez josiya,
egon leikela len bezelaxe
lore ederrez jantziya?
Uste dezute bizi leikela
baserri nekazariya
izango balitz bere lurretan
gu geran bezin utziya?
Ez! Arrek azkar kendutzen diyo
belar txarrari biziya!

6/ Horrela digu erakutsitzen
nola sortu zaigun miña,
eta gure lur eder onetan
daukagun bizi eziña.
Arrek ara zer lanteri daukan
bere soroan egiña:
belar txar dana kanpora eta
bertan utzi berriz piña.
Obe genduben gu're horrela
saiatu izan bagiña.

7/ Zenbaitek nitzaz esango dute
-ala zait iruritutzen-
beti euskera-kontu naizela
saiatzen iskribatutzen.
Bañan nik onla esango diyet:
«Ez dezue ezagutzen
lapa arrokan dagola pozez
ta antxen dala gozatzen?».
Bada arrokak lapa bezela
nau ni euskerak poztutzen.

8/ Orra nik emen bertso batzubek
al dedan bezela jarri,
bukatutzera nua zergatik
ezin leike beti ari.
Pello, zuk nere partetik eman
or eskumuñak danari,
eta biotzez besarkara bat
artu zure lagunari,
agur, euskaldun pare gabea,

agur, agur, Pedro Mari!

Iñuzente-eguna!

(1902)

Gaitzik gabien egun onetan
jaio zan gure aita zana,
urtiak joanik egun berian
ill zan amatxo laztana;
iru arreba umerik illak,
anai bat berriro joana,
guri kendu ta eraman ditu
Jaungoikoak beregana.
Irakurliak, erreza zagun
denok aitagure bana!

«Urte Berri»

(1903)

1/ Ogeigarren eunkiyan
kristauben bizitzan,
bi urte igaruak
dauzkagu desditxan;
begira dierriyak ⁽¹⁾
zer nola dabilizan,
elkar purrakatutzen
non-nai arakintzan,
aurreratutzen guaz...
txangurruben gisan.

2/ Gizon eta erriyak
dabiltza bildurrez,
elkar zelatatubaz
legorrez ta urez;
itz ederrak esanaz
barrendik gezurrez:
«Zeiñ dirade gaiztuak?
Bestiak bai, gu, ez...»
Indarra nagusi ta
gogorrena juez.

3/ Aurreratu dabela
gizonak lurrian
esaten da mirari
askoren aurrian;
baiñan gizatxarraren
biyotz gogorrian,
eta arro dollorren
zentzu laburrian,
aunditasuna dago
eskumuturrian.

4/ Asko aurreratu da
bañan zertarako,
ez bada naitasunik
elkarrenganako?
Atzaparrak dabiltza
biyurturik kako,
bestientzat bezela
Euskal-errirako...
Ez degu arrazoyik
gutxi geralako.

5/ Gutxi! Jú, jú... Eztakit...
Ala ote gera,
begiratubagatik
askok goitik beera?
Gu ez guaz beñere
besteren kaltera,
ta, zeñek daki nola
gintezken atera,
bilduko bagiñake
zazpiyak batera?

6/ Aundiyak izan arren
Euskaldunak neurriz,
nekatubak gauzkate
gauza lotsagarritz.
Munduban garbiyenak
gu gera jatorriz;
anaiak, poz gaitezen
sortu giñan erriz,
agurtutzen zaituztet
denak Urteberriz.

(1) Las naciones. (Otañoren oarra)

Auntza Iarrera

(1903)

Euskal biursari denai donkituba

Baserri eder bat, aitak utziya, betia zuben. Soro zabalak, baso bikañak, mendi galantak, sagasti oparotiyak.

Ikulluba bei gizenez, txal guri-guriz, eta zekor mardulez betia.

Artalde ugariya larrian, naiko arkume ta gazta, saltzeko, eta aari talkalari aundi bat etxian, ardua eraten zekiyena.

Gañera esan oi zan, bazubela lakari bat urre, eta berak ere etzuban ukatzen.

Bi morroi baserri lanetarako, eta artzai bat, irurak zeññ baño zeññ languilleguak eta itzero jauna eta beori esaten ziyotenak.

Biarko!

Inguruko auzotarrak, (bere maiztarrak batzubek) denak berorika itzegiten ziyoten, aserretu etzediñ.

Etziyon iñori dirurik prestatzen, baño zan conseju emalle izugarriya.

Berrogei ta amar urte zituben eta ezkongai zeguan.

Etxekoandretzat zeukan, irurogei urteko izeba neska zar bat, zeñak egunaren erdiya pasatzen zuban errezatzen, eta beste erdiya erritan.

Martolo jauna deitzen zitzaion gizon oni.

Inguruko baserririk txarrenetako batian bizi zan, Borda izendatzen zan gizon argi bat, berrogei urtekua, bere emazte Opathoni, lau seme eta iru alaba alaien lagunkidan.

Borda au zan bertsolari onenetako bat, eta bizi zan txit arlote, bañan kontentu eta alegere.

Etzan eskatzallia; miñ ematen ziyon iñor biartziak; etzuben nai emalliaren mende jartzia bere libretasuna.

Au bakarrik zan, ingurumari artan, etxealdeko nagusiyari, Martolo Jaunari, zuka itzegiten ziyonik.

Egun batez, otabar batzuek ebakitzen ari zala, aizkoraren kirtena autsi zitzaion gure Borda-ri, eta, nola eskutsik gelditu zan, joan biar izan zuben Martoloren etxera, aizkora bat presta zeioten, kirten berri bat egiteko.

Dan! dan! jo zuben atia, eta, azaldu zitzaion nagusiyara bera.

— Jainkuak dizula egun on, Martolo.

— Bai zuri're, Borda. Zeir zabilta?

— Ementxe. Gurdi bat ote ebakitzen ari naizela, aizkoraren kirtena autsi zait eta, berri bat egiñ ote nezakian nator.

— Ez aldezu otesegik?

— Otabarrak ebakitzen ari naiz ordia...

— Otabarrak edo *otatrabak* maiz izateitu zenbaitek. Beira zazu, Borda, zu gizon on bat zera, gañera famili aundiya daukazu, eta nik pozik lagunduko nizuke askotan, baño, baño...

— Zer da?

— Ze izango da! Bersolariyak txalo asko irabazten ditu, baño diru gutxi.

— Tori! Okolo eskaliak sekulan eztu bertso bat bakarrik moldatu, bañan...

— Zuk berriz geiegi.

— Baliteke.

— Buruz azkarrak zeratelarik, zer umiak zeraten bertsolari denak! Eta zenbat eta obia, ura ta umego. Txoriyai segika dabilen umiak, mandatuba berandu egiten du beti, eta geienian gaizki. Buruba bertsoz betia dabilkin gizonak, maiz izango ditu esku utsak. Zerura begira dabilenak, sarritan egingo du estrapozo. Ametsetako irabaziyak, esnatzian ariyo. Au zuk, nik baño obeto dakizu, Borda. Ez da egiya?

— Ala diruri. Ni beti lanian bizi naiz, dakizun bezela, ez naiz gastatzallia, ta, ala ere, sekulan ez det txanpon bat nere mendian.

— Bertsuak dute kulpa guztiya. Utzi zazu griña galgarri (y) ori alde bat, eta segi zayozu lanari, *lanian pentsatubaz*. Oraiñ, tori aizkora, ar zazu otesega au ere eta zuaz zere lanera. Neri

bertsuak gustatzen zaizkit, bañan zuk bota dituzu naikua. Asko dezu. Nik ikusten badet nere esan onak zintzo egiten dituzula, etzaizu paltako lana ta irabazpidia. Akorda zaite zere familiyaz. Egingo dezu nik esan bezela?

— Sayatuko naiz.

Borda gizagajua, lotsaturik, itzuli zan berriz otelarrera, bero artian esanaz: «Arrazoi ote du gizon orrek? Orain, erortzen naiz kontura, egiaz, ez derala ezagutu bertsolari aberatsik, eta lengo zarrakgatik ere beti entzun izan det, oso pobriak zirala. Ez ote zaio Jainkoari bertsorik gustatzen? Edo, au ote da sari bat, dirubaren orde ematen diguna? Biyak eskatzia anbat geiegi litzake. Martolok diyo, asko derala bertsoz. Proga zagun Martoloren konsejuba.

Igaro ziran zortzi egun, amabost, illabete.

Bordaren etxian etzan sentitzen, len beti oi zan bezela, kanta otsik.

Aita ixildu zanian, mututu ziran ama ta umiak.

Auzuak arriturik zeuden, zer gertatzen ote zan.

Martolo bakarrik zebillen txit kontentu, pozez arrotuba, egiñ zuben azañagatik.

Illabete t'erdi bezela zan, Borda, Martolo-ren konsejubakin burruka zebillela; larunbata zan eta gure bertsolari izanduba joan zan Tolosako merkatura, lau sagarlandare bizkarrian zitubela, aien baliyuarekin, gastuba pagatzeko asmu.

Saldu zituben landariak, bosna errialian, eta bere duro aundiya poltsan zubela, sartu zan amaiketakua egitera, Martolo larunbatero joan oi zan ardandegiyan.

Eskatu zuben kuartillu bat ardo; eskeñi ziyon Martolori, eta onek atera zuben beste kuartillu bat.

Nola Borda gizagajuak etzuben aspaldi artan ardorik progatu, aiñ gogoz eran zuben, non asi zitzaion buruba pixka bat berotzen.

Atera zuben duro aundi eder ura, bere gerrikuaren muturretik, eta esan ziyon tabernariyari:

— Ekar zazu kuartillu bat geiago, eta tori, kobratu nere kontuba.

Aiñ gustatu zitzaion Martolori, Bordaren joera, non beñere ikusi etzitzaion beziñ arpegi alaiarekiñ, rau! altxa zan bere alkitik eta esan ziyon eskuba luzatubaz:

— Bejondaizula, Borda! Ekatzu bosteku ori. Ez nizun nik esaten? Ara or bost peztakua, len txanponik etzan tokiyan. Ai, nere konsejubak lenago artu izan bazindu! Zenbat ontzakoren jabe ote ziñan oraingo!

— Sagarlandarien diruba da au, Martolo...

— Bai, badakit ez dala bertsuena.

— Zuk konsejurik eman baño lenago landatubak ziran, zea, Martolo. Kantari ari nintzala aldatu nitun....

(Ekatzu beste kuartillu bat, tabernariya.)

— Amaiketako aundiskua egin degu, Borda.

— Gure neurtzallia, nor da?

— Ara, ara gure bersolariya berriz piztu.

— Ez dezazula sinistu,
bersolariya ez da ill,
bañan oso gaizki dabill
illabete ta erdi (y) ontan
Ai! Damutu zait prankotan!
— Zerena dezu damuba?
— Zuk sartutako amuba

daukat barrenen gordia;
aterako det ordia,
tximista demoniñu au,
bestela penak ilko nau.

— Beste gizonik ziñala uste nuben, Borda; esker ederra ematen dirazu! Ezagun da dirutu zerala... Aizkorak saltzen dira Tolosan.

— Len ere obe izango zan
emendik eraman banu;
eman dit amaika damu
zure etxetik irtenak,
aizkorak eta kirtenak...
— Gero izan zaitez ona!
— Zaude ixilik, gizona,
eta urrengo batian
konsejubak ematian,
begira ezazu zeñi;
ez neri berriz eskeñi
kirten okerrik zuzentzat,
gorde itzatzu zeretzat.
Biyar goizian atzera
joango'ira zure etxera
aizkora ta otesega.
Eskerrikasko gañera.
Ta konsejubak ordañez,
geldi etzaitezen gañez,
emango dizkitzut aurki,
eta goguan iduki.
Ez pentsatu kalterikan
egingo dizutenikan
neri zuriak bezela,
bildurtu etzaitezela.
Martolo, gaur nere txanda,
lenago zuria zan da.
Odolkiryak ordañetan
izate'ira lur onetan.

(Kantari)

Nola zu jaio ziñan
aberatsengandik,
zerorrek ezertxo're
egiñ gabetandik,
oparo datorkizu
jakin gabe nondik;
bizitzia zer lan dan
ez dakizu oraindik.

Ikustak engañatzen
du bat gogotikan,
begiratutzen badu
beti txit goitikan.
Biria ez da ondo
neurtzen balkoitikan,
pixkabana ikasten da
ibiltzen zutikan.

Konsejubak ematen
kontu biar da txit,
ontzat artutzen ditu
askotatik gutxik;
itzez buruba bete
ta eskubak utsik,
zeñi gustatzen zaio
alako laguntzik?

Martolo, griña txarrik
ez daukat zugana,
ta ez txarrera artu
esan dizudana;
neretzat on ustian
egĩñ dezu dana,
nik ez det gorrotatzen
kulpik ez dubana.

Kontura erortzia
nai nuke beinguan,
eta idukitzia
betiko goguan:
bi gizon igualikan
ez gera munduban,
argatik sentitzen du
nork bere moduban.

Zure konsejubakiñ
burruka, askotan,
naspillatu naiz jua dan
illabete ontan;
iñon ezin bizirik
ez esna ta ez lotan,
ni lertuko nitzake
ez kantatzekotan.

Itotzeko bildurrez
uzteko urari,
nola esango zaio
arrai bizkorrari?
Ez dedilla egaatu
uso azkarrari,
eta ixildutzeko
erretxiñolari?

Amorraia, jatorriz
dijua urera,
uso ta arranuak
odoien aldera;
otsua sasira ta
satorra lurpera,
mitxirrika argira
ta auntza larrera.

Martolok:

Aizu, gizonak ere
orrelatsu gera...

Bordak:

Torizu bostekua,
konturatu zera.

Berri on bat

(1903)

Unamuno-ko Migel
maisu jakintsuna,
ospatsu askok agur
egiten dizuna,
euskal kanta goxuak
siaskan entzuna,
zer da ordia oraiñ
gertatzen zaizuna?
Galtzen dijalako
gure osasuna,
ta sendatu nayian
miñ oñazeduna,
esanaz diguzula
lengo naitasuna,
lepua moztutzeko,
o, Jaungoiko Jauna!
Ez da ori azkenik
eskatzen dezuna,
txit mesedez degula
derizkiyotzuna?
Ara or sendakai bat
ez genekiguna,
ta sinistra erazi
ezin diguzuna.
Zer gogorra dan zure
biribiltasuna!
Salamanka-tik irten
da argitasuna
euskaldun batengandik
—zer edertasuna!—,
ikusi arazteko
onkarri zaiguna,
gureganatutzeko
zoriontasuna!...
Anaiak, poz gaitezen
badator eguna,
erritar altsur batek
bidezten diguna,
ta betiko doatsu
egingo gaituna:
utzi dezagun gure
izkuntza astuna,
jendien arterako
baliyo eztuna,
eta betor erdera
eder eta leuna
—biyak jakitia da
txit gauza illuna!—.
Egin zagun Migelek
esaten diguna,
eta guretzako da
berriontasuna.

Tubal-en kastarentzat
zer etorkizuna!
Euskalduntasuna!

* * *

Edaririk onena
zer da? Beazuna.
Au da semiengandik,
Amatxo kuttuna,
kañaberaren puntan
artu biazuna,
ezagutu dezazun
gure maitasuna.

Migel Unamuno jauna itzaldia egiña zan Bilbon, 1901-VIII-26-an, ez askoren gustokoa ordea, euskerarentzat il-kanpaia jotzen baitzuan; eta Otañok ordaiñetan itz neurtu auek moldatu zizkion. Baita urrengo saillaren bertsoak ere.

Maisubari

(1903)

1/ Esaera zarra da,
iñoiz jakintsubak,
egiñ oi dituztela
txit gauza txatxubak;
zallak dira bildutzen
onra ta protxubak,
nola ez du pentsatu
au gure maisubak?

2/ Guk nai diyogulako
euskerari fidel,
ipiñitzen diguzu
bekoskua goibel?
Asko dakizularik
gaizki zaude, Migel,
ezin biurtu leike
amorrarik igel.

3/ Gerentzako degula
naitasun urriya
ta bestienganako
gutzizko tirriya.
Beraz orren zitala
da Euskal-erriya?
Ain txartzat al daukazu
zere jatorriya?

4/ Ezagun da erritik
urruti zaudena...
Ez da gaitza euskaldunak
eskatzen dutena,
baizik izan dedilla
ongi mundu dena,
ta utzi deigutela
ostu zigutena.

5/ Gutxik letzen dubela
euskeraz ta argatik
izkribatutzen dezu
erderaz-gogotik,
guk ez ta zuk badezun
maitasunagatik,
edo kalte geiago
egitiagatik?

6/ Jakiñik orkuak zer
tirri dabilkiten,
beñere ez dutelako,
egirik jakiten,
etziñan nekatuko
lan oiek egiten,
ez baziña gaurdaño

Bilbaotik irten.

7/Bilbaotik irten ta
Salamanka-raño!...
Noraño joan zerade
zu, Migel, noraño?
Gu etorriyagatik
beste munduraño,
uste det alderago
gudela zu baño.

8/Labur gelditu arren
euskerazko lanak,
badira erderazkuak
zureganuntz joanak;
irakurri itzatzu
al badezu danak,
utzi gabe egiña
Basaldua jaunak.

Amatxo laztana

(1904)

1/ Seme maite bat bere
amaren onduan,
anbat ez da oroitzen
zeñekin dagan;
argandik urrutira
joaten dan orduban,
gogoratzen da amak
zer baliyo duban.

2/ Ama, aita, lagunak,
erri maitatuba,
aiñ nago zuengandik
urrutiratuba!
Eri daukat biyotza,
penaz nekatuba,
eta falta zait emen
zeñek sendatuba.

3/ Ama, ona seme bat
urrutira joana,
ama gabe iñola
ezin bizi dana;
Ama, zuk badakizu
maite zaitudana,
ama, barka zaidazu,
amatxo laztana!

Bidañaia-ko Labaka

(1904)

Bidañaia-ko Labaka'n jai
zan erantz ontan dagueña,
Elola deitzen da izengañez,
Juan Bautista du izena,
nik oraindaño ikusi deran
gizonik egokiyena.
Seme leiala, aita prestuba,
euskaldun on ta zuzena,
mundu guztiyan gaurdaño izan dan
balenkaririk onena.

Urdaneta-ko Andres aundiari bere talluntzaren agerkeran (1904)

Seme jatorrak, o, Urdaneta,
egun pozgarri onetan,
makurtzen gera zure talluntza
goitituaren oñetan;
omen aundiko gizonak beti
izan dira euskaldunetan:
Elkano, Legazpi ta beste asko,
zu bereziya denetan.

Mejikutik joan ziñan
Filipiñetara,
itxumenian zeuden
baztar aietara;
gurutzearen argiz
zuk fedea para,
ta illunpetik irten
ziran argitara.

Urdanetako Andres
jakintsu aundiyak,
Billafrankako seme
aiñ miragarriyak,
ta zure lagun portitz
Legazpi argiyak,
bedeinka gaitzatzute
zerutikan biyak.

Buenos Aires, junio de 1904

Bukatu bedi

(1904)

Milla zortzireun irurogei ta
amaseigarren urtian,
uztaillaren ogei ta bata
nola aztu gure artian!
Egun orretan loitu ginduzten⁽¹⁾
Euskal-erri txit maitian,
gaizkilleentzat mesede gabe
eta guretzat kaltian;
o, euskaldunak, lots au kentzeko
denok alkartu gaitian.

(1) Duda egin diteke, bostgarren lerroan, *loitu* jartzen duan oartan, ez ote zukean *lotu* esan bearke.

Julio 21 de 1876

(1904)

Ogei ta zortzi urte onetan
arrazoi billa negarrez
saiatu gera, eta erantzun
digute burlaz ta farrez.
Nere malkuak agortu dira
ta agintzen dizut asarrez:
«Seme, ar zazu aizkora eta
puska ezazu indarrez».

Beregandua

(Ensimismado)

(1904)

Aita eta aitona
artzaiak nituban,
ta ni ere ala naiz,
zer egingo nuban?
Udan ibiltzen gera
nai degun moduban,
bañan zer bizimodu
tristia neguban!

Egurretan

(De hacer leña)

(1904)

Nere aita ta anaia
joan zaizkit perira,
ta biyak apaltzera
laster emen dira;
surik ez neukan eta
presaka mendira
etorri naiz, egurra
dakuan tokira;
sorta egin det eta
nuan baserrira.

Laurak-Bat

1/ Euskal jauregi onen gañean
or dago Ama Euskera,
etorri dana lotsagarritzko
kate gogorrek austera,
gelditzen zaigun bide bakarra
semeai erakustera,
lagun dezagun izan gaitezen
len beziñ libre ostera.

2/ Euskal-erriyak, etsai
asko garaiturik,
beñere katibatu
ez du mendekorik;
ta besteak indarra
legetzat arturik,
eduki nai gaituzte
ankaperaturik.

3/ Gure etsai zitala
arrazoiz balebill,
gu egongo giñake
ixil eta umill;
bañan altxako gera
txarkeriz baitabill;
katibu bizi baño
naiago degu ill.

4/ Eskatutzen dizutet,
anai ta lagunak,
laster buka ditezen
lotsazko egunak;
Amerika librean
gauden euskaldunak,
lenbiziko ojuba
eman zagun, jaunak.

Batasuna

(1904)

1/ Jakin nayian zein dan munduko
izkuntzarikan zarrena,
au da jakintsu askok zentzuba
nekaturik dakarrena:
len azaletik ibiltzen ziran,
badatoz sartzen barrena
ta gaur geienak aitortzen dute,
euskera zala aurrena.

2/ Geroztik sortu ta indarturik
zenbat izkuntza ez da ill,
gelditurikan lurperaturik
betiko mutu ta ixill!
Euskera galtzen saiatu arren
asko berritxu ta zirtzill,
indar berriyak artzen ari da,
gazte bat bezela dabill.

3/ Mundu guztiyan arkitzen diran
jakintsurik aundiyenak,
ta batez ere, orain Londres-en
eta Berlin'en daudenak,
eman dituzte Euskeragatik
albisterikan onenak;
burlatzen duten ergelak dira
ezagutzen ez dutenak.

4/ Bañan, aldebat utzi ditzagun
ezjakiñen txarkeriyak,
ta euskaldunak izan gaitezen
prestubak eta aundiyak.
Zer egingo du, maisu zitalak
agintzen duten erriyak?
illuntasunak kenduko ditu
datorren egun berriyak.

5/ Bidasoaren bi aldeetatik
anaiak deika elkarri,
ari dirala, jakindu degu
ta bilduko dira sarri,
Lengo oitura onak ostera
nai lituzteke ezarri,
ta «batasunak» bakar-bakarrik
litzake oiek ekarri

6/ Gure Euskal-lur eder maitean
bizi diraden anaiak,
elkarganatu ditu odolak
ta «denak bat» izan naiak;
Buenos Aires'en bildubak daude
euskera indartzeko gaiak;
poztu gaitezen, o, euskaldunak,
badatoz egun alaiak.

7/ «Denak.bat» egin eta saiatu
gaitezen alegiñian,
gure izkuntza eta oiturak
ipintzen beren oñian;
guztiyok egiñ gentzake zerbait
bakoitzak al dun añian,
Jaungoikua ta euskera jartzen
gauza guztiyen gañian.

8/ Batek egiñ nai luken guztiya
nola ez daukan aukeran,
borondatia badaukat baño
asko ez nezake eman;
liburutxo bat izkribatu det
Gipuzkoako izkeran,
zuek esango dezute ondo
edo gaizki egin deran;
irakurliak, barka zazute,
ez badago txit naieran,
eta lagundu dezagun alkar
ia indartutzen geran.

Nere adiskide Bonifazio Latxa-ri sendagaia

(1905)

1/ Bere gaitzaren sendagai billa
neregana dator Boni,
eta nik eziñ uka neioke
al deranik lagun oni;
bañan oinbeste samintasun da
oñaze, sugar ta agoni,
nola nai dezu nik kendutzia
zu bezela banago ni?

2/ Boni, txit ondo ezagutzen det
zuri gertatzen zaizuna,
aiñ aundiya da zuk biyotzian
senti dezun naitasuna,
oroiturikan biziya eta
bularra eman zizuna!
Bañan, ai!, Boni, au ez da gaitza,
au da gure osasuna.

3/ Egiya da, bat eziñ etsiyak
errukigarri jartzen du,
zergatik bere oroitz gozuak
eziñ dituben atzendu;
ala ere, Boni, ez dezazula
arren arantz ori kendu,
kupigarriyak giñake egiaz
naitasunik ez bagendu.

4/ Asko ikusten dira lur ontan
beste aldera emanak,
nun sortu ziran eta nor diran
oroitutzen ez diranak.
Zertako dira naitasun gabe
diru, jan eta edanak?
Zu ta ni baño gaizkigo bizi
dira orrelako danak.

5/ Txorakeriyak dirala oiek
aditu arren askori,
etzaitzela, Jainkuagatik,
alde ortara erori.
Beti nai izan biar diyogu
zuk ondo dakizu nori,
kutun bat balitz bezela gorde
zazu arantz santu ori.

6/ Ez dezagula gugandik utzi,
arantza onekiñ gabiltzan;
ori gaberik biyok giñake
txit negargarrikeritzan.
Egunen batez bera joango da,
Boni, ez bildurrik izan,
lur maiteari muñ ematian
Iparragirreran gisan.

Pello-Mari

Bertso auek Buenos Airesko *La Baskonia* agertu ziran, 1905-V-30ean. Bonifazio Latxa Ubideakoa zan. Ura ere Arjentinara joana, eta *La Baskonia* ortan sarritan argitaratzen zituan bere lanak. Emen ikusten danez, bertsoen batzuk eskeiñi zizkion Otañori, eta onek sail onekin erantzun. Latxaren bertsoak ere *La Baskonia* ortan argitaratu ziran, 1905-V-20an. Onela diote:

NERE ADISKIDE MAITE PELLO MARIRI

1/ Zu zara nere osagillea,
zu, Pello Mari Otaño,
ez det nik beste osagillerik
billatzen emen zu baño,
lur onetara eldu nintzanik
ta gaurko eguneraño,
atara zazu daukadan nar au
sarturik biyotzeraño.

2/ Ezin det gaubaz lorikan egiñ
izanagaiti logura,
bada nar aiek igoten zaizkit
biyotzetikan burura.
Baldiñ zuk, Pello, ez badeustazu
gaur ataratzen nar ura,
laister, bai, laister jua biar det
emendik beste mundura.

3/ Erraz dezu bada ⁽¹⁾
neronen narra atara,
jua naitian egunen baten
nere gustura lotara.
Entzun egizuz erregu oiek,
entzun egidazuz bada,
onetariko zauri gaiztoen
osagillia zu zara.

4/ Zauri gaizto au osatutzeko
erraz edo orpotikan,
ez det billatzen osagillerik
ta osagarririk botikan.
Utsa zan, Pello, sartu banintzan
bakarrik bat edo bitan,
baña sartu naiz beraren billa
hainbeste milla tokitan.

5/ Badakit nun dan zauri onentzat
nik osagarritegiya,
baña... urruti, urruti dago
belar osaki mendiya!
Urrun ta urrun aurkitzen da gaur
nere bizitza erdiya,
zein dedan beti illarteraño
Amatxu Euskal-erriya.

6/ Amatxu arek ezin du eta,
Pello, osatu dezazu:

biyotz onentzat pozkida pixkat
bada arren eman zazu.
Zeure bertsuak entzundakuan
ni osatuko naitzazu,
eta lotxuak esan naiko du:
«Boni, etzaite esnatu».

Bonifazio Latxa eta Agirre

(1) Esan bearrik ez dago lerro ontan zerbait falta dala; itzen bat edo beste, alegia.

Iritzi bat

(Zamarripa-ko Paulo-ri)
(1905)

1/ Zure bertsuak edo biurtsak
niganatu dira, Paulo,
eskerrik asko, lagun maitea,
pozez jotzen dizut txalo;
bañan zertako guk malkoz bete
orrenbeste begi-txulo?
Aurrentzat utzi bear ditugu
negarrak, titiya ta lo.

2/ Eri dan amak ikusitzean
seme larri ta indartsuak,
nola gabiltzan buru-makurka,
umill eta negartsuak,
zer egingo du negar besterik,
zer egingo du gaxuak?
Beste sendagai bat bear luke
miñez dagon gurasuak.

3/ Egunen batez illtzen bazaigu
ainbeste nai diyoguna,
zori gaiztuan etortzen bada
aiñ patu beltz ta illuna,
ordubantxe bai negar samiñak,
orduban, nere laguna!
Bañan bizi dan arte ez da ori
guk egiñ biar deguna.

4/ Seme prestuba, limurtzen zera
Ama ikusirik negarrez,
eta biyotza lertutzen zaizu
miñ garratzaren indarrez;
begira zazu beste aldera,
an dago ugazama parrez...
ta joango dira zure malkoak
asarrearen asarrez.

5/ Gure negarrak kendutzen dizka
bere indarrak Amari,
eta zer poza ematen zaion
ugazama zatarrari!
Utzi ditzagun malkuak eta
jarrai zaiogun lanari,
negarti izana damutan dago
zure lagun Pello Mari.

Buenos Aires-en, 1905-eko Azaroaren 20-an.

Bertso auk Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian agertu ziran, 1905-XII-10-ean.

Leenengo bertsoak dioenez, Paulo Zamarripak jarritako beste bertso batzuei Pedro Marik ematen dion erantzuna dira. Zamarriparenak ere *La Baskonia* aldizkarian agertu ziran, 1905-X-30-ean. Onela diote:

NEGARGARRIAK
(Pedro Maria Otaño-ri donkitua)

1/ Nere maitea negarrez dago,
negarrez dago laztana,
ta bere negar samur-samurra
biraltzen ditu Nigara.
Negar orrekaz busti nai neunke
bular ezker au dan-dana⁽¹⁾,
ia bularrak gero badakar
negarra begiekana!

2/ Aiñbatxo negar sortuten ditu
nire biotza amatarrak.
Benetan! Baiña legortzen deustez
naigabe zitalen garrak.
Beto, bai, beto, Ama maitea,
nigana zure begarrak,
ia negarrez jartzen banabe
zure negarren indarrak!

3/ Erderaturik dakustaz emen ⁽²⁾
gizon euskaldun guztiak,
euskera barik aurririk geienak
lur ontan jaio ta aziak!
Ta esan, euskera: zelan ikusi
eiñ leikez nire begiak,
naigabeturik, negar eiñ barik,
gauza aiñ negargarriak?

(1) Dan-dana : todo entero. (Zamarriparen oarra.)

(2) Dakustaz emen: los veo aquí. (Id.)

«Bukatu bitez gaiztakeriak...»

(1905)

Bukatu bitez gaiztakeriak,
zintzotu bitez eruak,
eta utzi bitza jende zitalak
urte zarreko lekuak;
gu, euskaldunok, naspilla gabe,
izan gaitezen linguak,
unte berriak bekar pakea
eta guretzat Fueruak.

Gaztelu-Gorriya **Oroitza**

(1906)

1/ Aditu det ill dala
Gaztelu-Gorriya,
nere adiskide ta
lagun aundiya;
aiñ zan gizon prestuba
ta maitagarriya,
etzuben ezagutzen
zer zan txarkeriya;
biyotzez garbiya
ta buruz argiya,
txit bertsolariya,
leial geiegiya;
sinisten det arentzat
dala gloriya.

2/ Nere lagun maitia,
mundutik joan zera,
toki ederraguak
ezagutzera;
zeruban irten zaitez
noizik beiñ atera,
San Pedrokekiñ jolas
batzuk egitera,
beiratubaz beera,
gu gauden aldera;
deitubaz orrera,
zure aldamenera...
itxon zazu pixka bat,
laster or gera.

Gaztelu-Gorria bertsolaria, Xenpelarrekin-eta kantatua, Usurbilkoa zan. Pedro Mari azken aldiz Ameriketara joan zanean, an zan bera ere Pasaian, azken agurra egitera etorria. Bertsoren bat edo beste kantatu ere egin zuan, Txirritarekin eta Urnietako Jose Maria Arregirekin batera. Donostia il zan, Esterlines kaleko 10'garrenean, 1905-eko abenduaren 4-ean.

Oroitza

(1906)

Ill omen da Felipe
Arrese Beitia,
euskal biursarien
maisu goitia,
Ama Euskeraren seme
leial ta maitia,
izar argi-emalle
dizdizaz betia;
mundu arlotia
utzi ta joatia
ez da deseitia
zure izatia;
egiñ bedi Jaunaren
borondatia.

Bertso au Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkariak argitaratu zuan, 1906-III-20-an. Felipe Arrese Beitiaren il berri iritxi zan Arjentinarraino ere, eta orduan Pedro Marik bederatzi puntuko bertso au eskeiñi zion. Ezagutu ere egingo zuten aiek alkar, Euskal festaren batzuetan-edo topo eginda.

Felipe Arrese Beitia Otxandion jaio zan, 1841-V-25-ean, eta bertan il, 1906-I-16-an. Oso bertso jartzaille ugaria izan zan, eta bein baiño geiagotan saria irabazia.

Gure Aritza

(1906)

1/ Gernikako arbola
da euskaldunena,
gure biotzak guztiz
maite dubena,
munduban izandu dan
aritzik onena,
Iparragirre zanak
kantatu zubena;
Igartu zan lena,
badu ondorena,
seme berarena,
liraiñ ta lerdena,
aitaren lege bera
dakarkiena.

Eman da zabaldurik
munduban frutuba,
Buenos Aires-en egon
zan landatuba,
Plaza Euskeran bere
seme indartuba,
ikusi degu azi
eta edertuba;
landare santuba
berriz aldatuba,
zañak urratuba
dago igartuba,
Laurak-Bat-en baratzan
txokoratuba.

Bañan *Laurak-Bat*-ean,
Gernikan bezela,
ezagun da *aritz*a
maite dutela;
ikusirikan zarra
illa zeguela,
ordaña jarri dute
gazte bat berela;
ikusi det bera
sasoi dakarrela,
guztiak orrela
jakiñ dezatela
euskera sekulan ill
ez ditekela.

Biyotza

(1906)

*Ara nun diran mendi maiteak,
ara nun diran zelaiak...*
Iparragirrek Endaian

Luziok Altsasun:

Orra iritxi, ementxen gera,
Eujenio, biyok Altsasun,
esan zaidazu zure biyotza
barrenen kabitzen zaizun.
Aurki Tolosan... O, Jaungoikua!
Nik onenbeste ondasun!
Amets ote dan galdezka nago,
ez dakit nola erantzun.

Eujeniok:

Aspaldiyetan biyok gendukan
onera etorri naia,
gure biyotzak pozkidatzeko
oraiñtxen dator garaia;
begira zagun, ara or bertan
Gipuzkoako arraia...
Trena badator, igo gaitezen,
guazen lenbailen, anaia.

Biyak:

Aurki Aralar atzian utzi
ta Tolosan gera laster,
alderatutzen ari gerade
gure Jainkuari esker;
ara or gure Paradisua
ama on bat beziñ eder,
bildurrez nago pozarez pozez
egiñgo ote deran ler.

*Buenos Airesen,
1906-garren urteko Apirillaren 25-ean.*

Bertso auek La Baskonia aldizkarian agertu ziranean 1906-V-10-ean, oar au erantsi zioten.
«*Poesía entregada por Pello-Mari a sus amigos Lucio y Eugenio Cortejarena al embarcarse éstos recientemente en el vapor Orione con destino a Europa.*»

Oroitza

(*Orfeón Donostiarra-ri*)
(1906)

1/ Donostiyako kantaridiya
gallendu dala Parisen
El Pueblo Vasco-n irakurri det
eta zenbat poztu naizen!
Ezagututzen zaituztet eta
ni ez naiz ortzaz arritzen;
penaz bizi naiz ez detalako
zuen kanturik aditzen.

2/ Orra merezi dezuten legez
zuen izena omendu,
len etziñaten orain bezela
mundu guztiyan lenendu;
euskaldun fiñen aunditasuna
iñork ez lezake kendu,
gallen giñake gauza denetan,
elkar artuko bagendu.

3/ Lenago ere nik zuek beziñ
iaiorik ez nuben senti,
egiyaz oraiñ egiñ zerate
ospatsu eta omenti;
eziñ agindu neizukete ta
biurtutzen naiz arrenti:
euskaldun jaio giñan guztiyok
elkar maita zagun beti.

*Buenos Aires-en,
1906-garren urteko Uztaillan*

Iru bertso auek *La Baskonia*-k argitaratu zituan, 1906-VII-30-ean. Leenengo bertsoak dionez, donostiarrak leen saria lortua zuten Parisen; eta Otañok, berri on ori Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkarian irakurritakoan, bertso auek moldatu zituan.

Orra!

(1906)

Nere adiskide maite
On Ramon Artola
paperetan letu det
illa dagola;
sinisten det zerubak
deituko ziyola,
jakiñik aingeru bat
falta zitzaiola.
Agur, maisu ona,
gure letren onra,
igo zera gora
lagunen ondora;
zutzaz Euskalerrriya
oroituko da.

Pello-Mari

Ramon Artola bertso-jartzaille ugaria Tolosan jaio zan, 1831-VIII-31-n. Baiña Donostian egin zuan bere denborarik geiena. Pedro Mari emen bizi izan zan urteetan (1890-1898), alkarren adiskide miñak izan ziran. Bertso-sail ederrik eskeiñi ere egin zioten alkarri. Donostian il zan, 1906-VIII-20-an.

Gu ta guk

(1906)

1/ Noiz izandu zan, nun eta nola
euskaldunen asiera?
Nondikan dator gure izkuntza,
noiztik gure izaera?
Ipuñak dio *Fenix* bat zala
eta beti *Fenix* bera,
egazti ortan, o euskaldunak,
gu bakarrik bizi gera.

2/ Euskalerritik irten da zerbait
mundu korritu dubenak,
ta batez ere Egoaldeko
Ameriketan dagoenak,
ikusten ditu konturatzeko
argibiderik onenak:
non-nai maitaro artutzen gaitu
ezagutzen gaitubenak. ⁽¹⁾

3/ Urte asko da, baña etzait aztu,
beti datorkit gogora,
nola joan nintzan beiñ *motz* batekiñ
Montevideon kanpora;
etxe batean eraman zuten
Motza⁽²⁾ sukalde-txokora,
ta ni maiera deitu ninduten
nagusiaren ondora.

4/ Erriko-seme beltzeran bat zan
nagusiya, ortarako,
ta ez ginduzen ezagututzen
len izan ez giñalako.
Zergatik bada bereizte ori:
bestea txarra zalako?
Ez; aiñ ondo ni artu ninduten
euskalduna nintzalako.

5/ Amerikatar ume batekiñ
nonbait arkitutzen banaiz,
badet oitura galdetutzeko:
«Aizak, mutill, nungotarra aiz?».
Pozez beterik entzun izan det
leku askotan eta maiz:
«Ni kriolloa, jauna; gañera
euskaldunen semea naiz».

6/ Askotan uste izaten degu
gutxi geradela, baña
non argiratu da beste iñor
gure aurrekoak aña?
Ondo egiñak ekarritzen du
nekez bada ere ordaña,
Ameriketan goiturik dago
euskaldunen izengaña.

7/ Ala jauregi goitienetan
nola baztarreko bordan,
naiz etxerikan apañenean
edo mendiko txabolan,
itsasoetan da leorrear,
ondo ta gaizki-denboran,
berez euskaldun garbia danak
ez daki ukatzen nor dan.

8/ Ez da euskera beziñ izkuntza
maitagarririk munduban,
jakiña dago deabru zarrak
nola ikasi etzuban.
Aiñ da santuba, eziñ mintzatu
dezakete infernuban,
orregatikan denak euskeraz
kantatzen dute zeruban.

9/ Alperrikako lana irten zan
deabruaren jarduntza,
eziñ eraman izandu zuben
euskerarikan aruntza;
infernuetan ez leike sartu
birau bageko izkuntza,
mantxa gabea dalako dauka
Jaungoikoaren laguntza.

10/ Beiñ infernuko ateondoan
—berak etzekiela non—,
oroitutzen naiz euskaldun bati
zer egokitu zitzaion:
ango atezai adardunari
diasola egin ziyon,
esanaz: «Eup! —Ni nun ote nabill?—
Jainkuak dizula gabon».

11/ Ori entzunik, ango atezai
muturzikiñ itsusiyak
galdetu zuben: «Zer esan nai du
gizon orren erausiyak?».
Ta lagun batek erantzun zion:
«Jakingo du nagusiyak,
zergatik berak ezagututzen
ditu izkuntza guziyak».

12/ Iñork deitzeko premirik gabe
an agertu zan *Luzifer*,
ta txit aserrez galdetu zuben:
«Zer gertatzen da emen, zer?
Ez al dizutet lenago esan,
gutxienaz milla bider,
nik ez detala euskaldunakiñ
sekulan jakiñ nai ezer?».

13/ Suzko sarde bat atezaiari
sartu ziyon bizkarretik,

ta bota zuben kiskaltzen zegon
tximini-zulo batetik.
«Iñor geiago etortzen bada
—zion— jaun orren lurretik,
nik ikusiko detan baño len
bial zazute aurretik».

14/ Bi adarrakiñ purrustadan jo
ta itxi zuben atia,
esanaz gure erritarrari:
«Ortik urrunduzaitia».
Sarde zorrotza dardaratubaz,
Luzifer, lotsaz betia,
joan zan barrena, purrakatzera
bere mendeko jendia.

15/ Gure anaiak zion beregan:
«Emen gauz onik ez dabil:
au infernuba izan bear du,
surtan eiten dute murgill!
Baña neroni iruditzen zait
oraindik ez naizela ill...
Eziñ antzeman diot iñola,
ametsetan ote nabill?».

16/ Ontan asi zan egaan igotzen
berak jakiñ gabe nora,
tximista baño aguroago
zijoan gora ta gora;
etzuben neurtu bere joaneran
igaro zuben denbora,
goiko lagunak eraman zuten
zeruko atalondora.

17/ Bizarzuridun gizon eder bat
eserita zizelluban⁽³⁾,
begiratuba txit barrenkoaia,
urrezko giltzak eskuban,
arrigarrizko ate izartsu
baten aurrian zeguan,
ta euskaldunak igerri zion
iritxi zala zeruban.

18/ Jaun aundi ura San Pedro zala
bereala ezaguturik,
biotzak salto egiten zion
iñon eziñ gelditurik;
infernuetan egondu zanak,
beldur gabe zutiturik,
«Jaungoikoak diola egun on»
esan zuben makurturik.

19/ San Pedro jauna begiratubaz
maitati eta gozatsu,
erantzun zion: «Oraiñ betiko
egiñ zerade doatsu.
Guazen barrena, o euskalduna,

atoz, eskuba ekatzu;
emen euskeraz itzegiten da
ta lagunak zai dauzkatzu».

20/ Ez da izkuntzik mintzatutzeko,
sartu zanean barrena,
gutarrak zeukan zoriontasun,
pozkida ta gozamina;
alaitasun da eztitasuna,
doatsunde garaiena,
au izandu zan lendabiziko
berak sentitu zubena.

21/ Belaunikatuz, Jaungoikoari
eskerrak eman onduan,
ikusi zuben nola millakak
arrigarritzko doñuban,
Gernikakoa irudi duben
aritz baten inguruban,
kantatzen zuten gure izkuntzan,
ara zer aditu zuban:

22/ «Gernikako arbolak
zeruban du aita,
onek bialdu zigun
guri ondo naita;
biyak bear ditugu
biotzetik maita,
euskera ez da galduko
zerutarra baita».

(1) Azalkaia. (Otañoren oarra)

(2) Mote que se da al que no habla vascuence. (Id.)

(3) Escaño

Arana eta Goiri'tar Sabin zanari bere eriotzaren irugarren urte-mugan

(1906)

1/ Illbeltzak ogei ta sei zituben,
neguba bete-betian,
milla zortzireun irurogei ta
bostgarrena zan urtian,
Abando deitzen dan Bizkaiako
erri pozgarri batian,
seme maite bat munduratu zan
jende prestuben artian.

2/ Arana eta Goiri'tar Sabin
izendatu zuten bera,
ta txit gazterik aurreratu zan
gauz asko ezagutzera;
ainbesteraño maite zituben
euskaldunak eta euskera,
bere biziya emateraño
Jesukristoren antzera!

3/ Leñargitia⁽¹⁾, ziaditsua⁽²⁾
leial da kupidakorra,
biotzberaa⁽³⁾ zan ezin geiago
eta jainkoti jatorra;
guregatikan igaro zuben
bizitza latz ta gogorra,
nola ordaindu euskaldun danok
berari diyogun zorra?

4/ Bera izan zan, Sabin aundiya,
ondokidatu⁽⁴⁾ ziguna,
gaur euskaldunok ainbeste maite
degun dierritasuna;⁽⁵⁾
Jesusen gisan edan zituben
Ospina⁽⁶⁾ ta beazuna⁽⁷⁾,
gaur ez dakit non egongo giñan
euki balu osasuna.

5/ Goitanditasun⁽⁸⁾ neurrigabia
nola zeukan gu denontzat,
ezagutzeko diñ etziranak
iduki zuten erotzat;
bañan bideko arantz ta larrak
artu gabe aintzakotzat,
aurrera joan zan. Ai, gaur bagendu
beste alako gizon bat!

6/ Aberatsa zan, bizi zeikian
lasai losintxak⁽⁹⁾ entzunik,
ez balu izan gureganako
ainbesteko naitasunik;
Galdu zituben ondasun asko
eta biziya azkenik;

esker gabiak ez du merezi
euskaldunaren izenik!

7/ Milla bederatzireun da iruban
gauzak aiñ gaizki zebiltzan...
Azaroaren ogei ta bosta
nola ez gogoan izan?
Sabin leiala kaltarraitua⁽¹⁰⁾
aiñ gogor bere bizitzan,
Sokarrietan ogei ta eme-
zortzi urterekiñ ill zan!

8/ Jaungoikua ta Lagi zarra zan
bere azalkai⁽¹¹⁾ jakiña,
eta gazterik ill zuten penak,
o, euskaldunak, zer miña!
Jaso dezagun bere bandera,
egiñ zagun alegiña,
ez dakitenai erakutsiyaz
maisuzanaren dotriña⁽¹²⁾.

(1) Noble. (Otañoren oarra)

(2) Ingenioso. (Id.)

(3) Piadoso. (Id.)

(4) Fundar. (Id.)

(5) Nacionalismo. (Id.)

(6) Vinagre. (Id.)

(7) Hiel. (Id.)

(8) Sublimidad. (Id.)

(9) Adulación. (Id.)

(10) Perseguido. (Id.)

(11) Lema.

(12) Erakuspena. Ikasbidea. (Id.)

Aitor-en semeak eta Erroma

Ez naute nai lotuak
ni libre aurrean,
ta da ez dakitelako
zeiñ naizen lurrean.
Laño gis libre dana
uztarpera ez dator,
bere odolen sortzalle
izan bazan Aitor.

Egunen batez bear bagendu
bizia eman gurutzean,
kantari joango giñake aruntz,
iñoiz argia da illtzean.
(Ta) gure doaien oroimen ona
eunkietan biziko da,
aztu gaberik ez Gurutzeta
ta ausardizko ill-kantzoa.
Ez naute nai lotuak...

Lañoen gisa
jaun ta libre,
uztarperatu
eziñ leike,
bere zañetan
duna jator
odol noblea
nola Aitor.

GORA

Euskal semeak jaso ditzagun
biyotz elkartubak gora,
eta lenbailen bildu gaitezen
denok elkarren ondora;
berriturikan Lekobideren
eta Lartaunen denbora,
igoko gera gure gaztelu
betiko dan Erniyora.

DIALOGO. ELKARRIZKETA. HITZELKARRA

Erromatarrak txit ausardiyan
sartu ziraden Euskalerrriyan;
indarrarekin, arrazoi gabe,
egiñ nai zuten jaun eta jabe.
Asko ziraden erromatarrak,
eta euskaldunak gutxi bakarrak,
bañan Erniyo an dago zutik
len eta geroztik.

Lekobide ta Lartaun
ta beren lagunak,

guk geren izatea
zor diotegunak,
dira espillutzat artu
bear ditugunak,
euskaldunen odola
zañetan degunak.

ELKARRIZKETA

- 1.º: Erniyo zer da?
- 2.º: Mendi arkaizti tontor aundiya
ta euskaldunen libretokiya.
- 1.º: Gaurko euskaldunak zergatik bada
ez dira joaten mendi artara?
- 2.º: Tontor artara ez leike igo
bidea jarri gabe garbiro.
- 1.º: Zer sasi daude, ta zer naspillak,
orla egoteko mendi-mutillak?
- 2.º: Animan sartzen diran lar latzak,
biotza jotzen duten arantzak.
- 1.º: Baña euskaldunak nola utzi zuten
belar gaiztuak indar artutzen?
- 2.º: Patu gaiztoko ereintzalleak
nastu zituzten ango bideak.
- 1.º: Orain badakit: alkartasuna
da euskaldunai falta zaiguna.
- 2.º: Esku zitalak azi gaiztoa
banatu zuten Euskalerrian;
argatik orain sasiyak daude
loreak baizik etzan tokiyan.
- 1.º: Ez al ditezke baztarreratu?
- 2.º: Bai, nai bagendu denok saiatu;
eta denboraz Euskalerriyak
ager litzake lore berriyak.
- 1.º: Nik izan nai det aurren-aurrena
lan orretara joango naizena.
- 2.º: Ez; bakarrikan joango etzera;
nai dezu guazen biyok batera?
- 1.º: Nola ez det naiko? Ta gogo aundiz,
denok batian, al baldin balitz.
- 2.º: Deitu ditzagun maitetasunez
euskaldun seme guztiyak,

elkarganatu gaitezen denok
azturik zapuzkeriyak.

Los dos

Deitu ditzagun maitetasunez
euskaldun seme jator guztiyak,
elkarganatu gaitezen onez
utzirik lengo zapuzkeriyak.

Los dos

Beti berriyak diran oitura
zar aien amoriyuan,
gure sorterra ta familiya
eukirik beti goguan,
zuzenbideztu ditzagun gauzak
guraso zarren moduan,
euskaldunak zer jende geraden
jakiñ dezaten munduan.

Coro final

Atozte, guazen denok,
anai euskaltarrak,
galdu bañan lenago
fueruen kondarrak;
zerutik txalo joko
digute lendarrak,
Lekobide ta bere
lagun fiñ azkarrak,
Euskalerriyagatik
ill ziraden zarrak.

Zer oitura garbiyak,
zer lege santuak,
arkitzen diran iya
ankaperatuak!
Amatxo, zure begi
malkoz tapatuak
alaituko dituzte
seme maitatuak,
urraturikan kate
madarikatuak.

Coro

Ama, zutitu zaitez
ta semeai deitu,
esanaz euskera nai
dezula aditu;
bat bakarrik joan gabe
ez leike gelditu.
O, Amatxok fueruak
beti bear ditu,
bestela illa dago
galdutzen baditu.

Gora Euskalerriya
ta semeai deitu,
esanaz euskera nai
dezula aditu;
bat bakarrik atzera
ez leike gelditu.
Gure erriyak Fueruak
txit bereak ditu,
ta illko da betiko
galdutzen baditu⁽¹⁾.

Operaren baten zati bat izan ditezke bertso auek. Itxura ala dute behintzat. Beti ere, agertokiren batean talde batek kantatzeko bertsoak. Gaia, berriz, leyenda batetik artua: erromatarrak eta euskaldunak Ernio mendian alkarrekin izan zuten gerra. Baiña bukatu gabeko lana da. Itz auek ez.

(1) Bertso bera bi aldiz idatzia, beraz, batetik bestera zenbait aldaketa sarturik.

Euskaldunak Arjentinan diერი onen lokabetasunaren lenengo eunki-mugan ⁽¹⁾ (1910)

1/ Zer gertatzen da Buenos Airesen,
zer Arjentina guztiyan?
Zeri zor zaio alaitasun au
gure bigarren erriyan,
ta gure seme euskalkumeak
jaio ziraden tokiyan?
A, nola denok ez pozkidatu
gaur ospatzen⁽²⁾ dan eunkiyan? ⁽³⁾

2/ Eun urte dira dieronde⁽⁴⁾ au,
ume zana gizondurik,
lengo gidari eta iñudeak
alde batera kendurik,
zutitu zala kitapetzeko⁽⁵⁾
asmo sendoz goiturik,
ta gaur munduba begira dauka
bera danaz arriturik.

3/ Oraiñ eun urte zan maiatzaren
ogei ta bigarrenengan,
nola erri au besteren mende
txit aspertuba zeguan;
bertako seme ausarditsuak⁽⁶⁾
batzarrean «kabilduan» ⁽⁷⁾
bildu ziraden, menpetasunak
astindutzeko asmuan.

4/ Erregeordeko edo «virreya»,
Españaren aurkeztari,
Cisneros jauna arkitutzen zan
lur onetan agintari;
ta gizon portitz biotztsu aiek
esan ziyoten berari:
«Jauna, loturak kentzera gatoz
gu sortu giñan lurrari».

5/ Gizon gidari zentzudun aiek
ontan zeuden bitartian,
zebillen, «Venticinco de Mayo»
deitzen dan plaza batian,
zintzo ta zorrotz begiratubaz,
kabilduaren atian,
erri geiena, bere biziya
jokatutzeko ustian.

6/ Arkiturikan inguratuba
jende sutsu eta beroz,
ta nabaiturik plaz'aundi ura
estaliya erdi-eroz,
bere buruba eskukatubaz⁽⁸⁾
txokoratu zan Cisneros;

Arjentinak ez du nagusirik
au gertatu zan ezkeroz.

7/ Maiatzak ogei ta bost zituban,
egun goguangarriya!
Ura odolena irakitea,
ura biyotzen larriya!
Sortaldetikan eguzki gozo,
paketsu, maitagarriya,
igo zan geldi-geldiro emen
ixuriz bere argiya.

8/ Gogaikarrizko morroitasunak
alderantzirik goi ta be,
len menpetubak zeuden semeak
arkitu ziran lokabe; ⁽⁹⁾
eguzki alai aren azpiyan,
odolik ixuri gabe,
zer gauz'ederra gelditutzea
beren burubaren jabe!

9/ Eronde ⁽¹⁰⁾ berri bat osaturik
bertatik gizon zuzenak,
bederatzi jaun izandu ziran
izendatutako denak;
oien artean iru gutarrak,
gogoan daude izenak,
euskal odola beren zañetan
garbiro zeramatenak.

10/ Ala gizonak, nola erriyak,
denok dakigun moduban,
geldi-geldika azipuruba
iristen duten orduban,
nagusi edo *jaberik beintzat*
ez dute nai inguruban;
libertaderik gabe ez dago
aurrerapenik munduban.

11/ Ez da iñolaz arritzekua
iru bederatzitatik
buruzagitzat autatutzea
Tubal'en semietatik,
nola jator dan oiek lan ura
ontzat artzea bertatik,
zeren arraz'au beti librea
izan dan asieratik.

12/ Omen aundiko zenbait euskaldun
argiraturik lenago,
zenbateraño goititu ziran
kondairan jarriya dago;
geroztik ere iñor ez da igo
gutarrak bañan gorago,
beren izenak dira lan ontan
jar leizken baño geiago.

13/ Ez Arjentinan bakarrik, baizik
beste diერი askotan,
txit jakiña da euskal semeak
Amerika zabal ontan
beren ekintzaz mirarizturik
nola dauzkaten abotan;
au ikusirik poztutzen gera
gu bein baño geiagotan.

14/ Lege-emalleak ⁽¹¹⁾, araujakiñak ⁽¹²⁾
eta gudari ⁽¹³⁾ trebeak
merkatari ta nekazariyak,
larre ta elejabeak ⁽¹⁴⁾,
otsankidari ⁽¹⁵⁾ ta sendakiñak ⁽¹⁶⁾
langille paregabeak,
lur eder ontan ziran ta dira
beti Aitorren semeak.

15/ Oraiñ eun urte ta askoz geroztik
jatxi ziranak lurpera,
burubak jaso ta begiratu
al balezate onera,
gaur ez luteke sinistatuko
au dala lur ura bera,
zergatik gauzak aldatu dira
arratsetik egunera.

16/ Lengo eremu ⁽¹⁷⁾ zakartsu asko,
gaur jantzirik belar berdez,
ikusten dira beteak zaldiz,
abelgorriz eta artalde; z;
bukaerik ez duten soroak
artoz, gariz, nai dan alez,
inguratubak, beren bordakiñ,
jauregiz ⁽¹⁸⁾ eta etxaldez ⁽¹⁹⁾.

17/ Len txabolikan etzan tokiyan
erri politen biziya
agertutzen da, sal-erosiko
etxe bikañez jantziya;
burnibideak alde danetan,
non-nai uri ⁽²⁰⁾ bereziya,
ta Buenos Aires danen gañean,
euskaldun batek asiya.

18/ Indar aundiyak artu ditu ta
noski ez liteke galdu,
bañan oraindik --ain da zabala!--
lan berri asko bear du;
lur onek daukan etorkizuna
iñork ezagutzen al du,
zenbateraño iritxiko dan
onela jarraitzen badu.

19/ Aurrerapen au otsanditzeko ⁽²¹⁾
lenbiziko eunki-mugan,
ikusten degu mundu guztiyak

zenbat parte artzen duban;
gu, euskaldunok, azaldu gabe
nola geundezke orduban,
aunditze onen indar geiena
arkitutzen bada gugan?

20/ Gure bigarren bizitegiyan
izerdi asko irtenaz,
jarraitu degu txit luzaroan
ondo, gaizki, pozez, penaz;
ondorengoan sorterri ⁽²²⁾ on au
laxtandutzen degu benaz,
beste zenbaitek maitatuko du,
bañan guk ainbat geienaz.

21/ O, Arjentina, erri gaztea,
oraindik atzo zifnan aur,
eta mundubak zure aurrean
txapela erazten du gaur;
nork daki zenbat igoko zeran
emendik denbora labur?
Euskaldun denon biyotzetikan:
«Agur! Agur! Agur! Agur!».

22/ Bukatu ziran emengo leiak ⁽²³⁾
aitu ziraden auziyak ⁽²⁴⁾
ta zer ederki egaatzen duban
libre dagon egaztiyak!
Denok maitaro agurtzen degun
maiatzeko eguzkiyak,
aska ditzala euskal lurra ta
katibu dauden guztiyak.

(1) En el primer centenario de la liberación de esta nación. (Otañoren oarra)

(2) Celebrar. (Id.)

(3) Siglo. (Id.)

(4) República. (Id.)

(5) Redimir. (Id.)

(6) Denodados. (Id.)

(7) Kabildu: reunirse en acción. (Id.)

(8) Manoseando. (Id.) (Jaun onen izen osoa Baltasar Hidalgo de Cisneros zan, eta Arjentinako virrey kargua zeukan, Españiako gobernuak artarako izendatua.)

(9) Libres. (Id.)

(10) Gobierno. (Id.)

(11) Legisladores. (Id.)

(12) Jurisconsultos. (Id.)

(13) Militares. (Id.)

(14) Ganaderos. (Id.)

(15) Músicos. (Id.)

(16) Médicos. (Id.)

(17) Desiertos. (Id.)

(18) Palacios. (Id.)

(19) Granjas. (Id.)

(20) Ciudad. (Id.)

(21) Solemnizar. (Id.)

(22) Patria. (Id.)

(23) Porfías. (Id.)

(24) Pleitos. (Id.)

ARTZAI MUTILLA

(OPERA)

(1900)

ARTZAI MUTILLA OPERA EGINTZA IRUTAN ⁽¹⁾

Iruditegiak aurkestatzen ditu, itsas-ondoko Kantauri-mendiak.

IRUDIGILLEAK / EGINTZALLEAK

ARTZAI MUTILLA: (Patxiko) D. Francisco Argote.

PERU: (Patxikoren aita) D. Matías Echeberría.

IÑAZIO: (etxe-jauna) D. Luis Labadens.

ARTZAI NESKATILLA: (Maritxu) Srta. Matilde Isasi.

ANDRE JOSEPA: (Maritxuren ama) Sra. de Mirabel.

Baserritar erromeritarrak dira Laurak-bateko Euskal kantaridiak, eta damatxuak euskaldun eta euskaldunaren alabak.

(1) *Artzai-Mutilla*-ren operaren musika Felix Ortiz y San Pelayo azpeitiar musikariak sortu zuan. Letra, berriz, Pedro Maria Otañok. Opera ori 1900-II-18-an aurkeztu zan, Buenos Airesko *Teatro Victoria*-n.

LENENGO IRUDIA

Patxiko bakarrik

Iruditegia dago illunpean, eta asiko da argitzen, eguna baletorke bezela.

Agertzen da Patxiko, aitz baten gañean eserita, eskuakiñ buruari elduaz, guztiz pentsati; eta, eguna zabaltzen dijoan bitartean, orkestak jotzen du preludeio edo astelen bat.

PATXIKO:

Euskal lurreko mendi alaiak
ta zero argiz betea,
zer triste zauten ezkutatzean
nere Maritxu maitea!
Zu gabetanik eziñ liteke,
iñon pozik izatea,
biyotz nereko ume kutuna,
arren, agertu zaitea!

Zeru gañetik lurreratu dan
aingeru ego-txuriya,
Jaungoiko onak munduagatik
egindako mirariya;
gorputz liraña, begi iztunak,
arpegi zoragarriya,
argien argiz itsutzen nauan
eguzki dizdizariya.

Bere begien argitasunak
ez du berdiñik munduan,
printza-dun izar ibilkariak
agurtzen dute Keruan;
abo pittiña, ezpaiñ gorriyak
erogarrizko musuan,
lora xorta bat aingerutxuak
bildua Paradisuan.

Far-irri leun jostalariyaz
azalutzean ortztxuak,
ta gero entzun bere bozaren
eztitasun aiñ goxuak,
arriturikan ixiltzen dira
birigarro ta xoxuak,
eta kolkotik irten nai luke,
ai, nere biyotz gaxuak!

Begiramena ipiñitzean
begi eder oietara,
ta iristean doñu gozozko
itzak belarrietara,
sinistutzen da zerutik jatxi
dala mundu onetara...
Bat amoriyoz nol'ez erori
auspez bere oñetara!

Eguzkia badator
zeru urdiñean,

argia banatuaz
mendien gañean;
odoi beltz itsusirik
ez dabill aidean...
Zer poza senti deran
nere barrunbean!

Maritxuk neri atzo
illunabarrean
esan ziran: «Bigar goiz
Itxozu larrean»...
Ardien bat galdu ez
Bazaio birean...
A!... Orra non datorren
Bide txigorrean”...

Beeka datoz ardi
txintxoak aurretik,
aditzera emanaz
Maritxurengatik;
nere biyotzak irten
nai dit barrunbetik,
Jesus, au zoramena!
Non nagon ez dakit!

(Zutitzen da, Maritxu datorren mendi egalera begiratuaz.)

Maritxu!! *(Ojuka)*
Nere laztana!

II-GARREN IRUDIA

Patxiko eta Maritxu

MARITXU:

Emen nator
zuregana!

(Basotik irtenaz)

PATXIKO:

Ai! zenbat luzatu dezun!
Kezka aundian neukazun
zer gertatu ote zaizun.

MARITXU:

Jakin zazu, gaur goizean,
itsasoaren ertzean,
eguzkia agertzean,
zu ikusteko pozez netorren
nere ardien atzean;
ta arkitu naiz trantzean,
Muñopeko arkaitzean,
ardi bat amildutzean.

Estutasunean ala,
ardiaganuntz noala,
zer egin eztakidala,
seme-nagusi Etxegoikoak
lagundu dit bereala;
eskerrak izandu dala
Iñazio aiñ leiala,
Jaunak saritu dezala!

PATXIKO:

Zure ezpaiñtxo txukunetako
itz maitatiak entzunik,
etzait iduri aingeruen bat
barrenen ez daukazunik;
besterik eziñ izan liteke
nik ainbeste nai dizunik.
Bañan kiskaltzen nago, Maritxu,
arren!! eskatzen dizut nik,
ez dezazula berriz aitatu
Iñazioren izenik.

MARITXU:

Nere Patxiko, nola daukazu
barrena kezka betea,
izanik zure amorioa,
ni lotzen nauan katea?
O!! zer samiña dan neretzako
zuk orla itzegitea!
Nere biotzak ez du merezi
miñ garratz au ematea.

PATXIKO:

Eskerrik asko, nere Maritxu,
barka zaidazu beinguan;
ez nekien zer esaten nizun,
naspillatua nenguan;
zure itz mintsu maitagarriak
sartutzen naute zeruan,

urrezko arpak amorioa
kantatzen duten lekuan;
iduritzen zait antxen nagola
aingerutxuen onduan.

PATXIKO eta MARITXU:

Jauregi eder gaiñ-gañekoan,
zauten aur bedeinkatuak,
adi itzatzute gure promesak,
eresi eta botuak;
ona emen bi biotz libreak,
pozez alkarganatuak
amoriozko kate santuak
beti-betiko lotuak.

PATXIKO:

Maritxu nerea!

MARITXU:

Betiko zurea!

(Agertzen da Iñazio baso tartetik, eta ezer ikusi ezpalu bezela inguratzen da.)

III-GARREN IRUDIA

Patxiko, Maritxu eta Iñazio

IÑAZIO:

Egunon, galai gazteak.

PATXIKO eta MARITXU:

Ala izan bedi zuretzat.

IÑAZIO:

Ai, zer goiz giro alai dagon,
alkar maite dutenentzat!...

PATXIKO: (*Murru samar*)

Alaxen iduritzen zat.

IÑAZIO:

Zeru urdiña senti du beti
pozkidaz dagon galaiak;
bañan anima triste daukanak
ikusten ditu odaiak.

MARITXU:

Miñen bat sendi al dezu?

IÑAZIO:

Zuek sendatu zenezateke,
bañan beldur naiz...

PATXIKO:

Itxozu!

Igartzen dizut zer gaitz daukazun,
ta nere bizia bertan,
emango nuke, zuk ez dezazun
penarik izan ezertan.
Baña, Iñazio, baldin bazatoz
amorioaren eske,
ori nik eziñ utzi neizuke,
etsiya egon zintezke.

IÑAZIO:

Bear ez deran gauza eskaintzen
gutziz leialak zerate,
zure itz *prestu* gezurrezkoak
biotza lertu dirate...
Agur, Patxiko, agur, Maritxu,
urrengo aldi bat arte.

(*Badijoa ixilka esanaz:*)

Etxe ta lurren jabea ni naiz,
agindu nezakeana,
Patxiko utzi eta Maritxu
etorriko da nigana,
jakingo dute bestela zein dan

Zabelain-go etxe-jauna.

MARITXU:

Zer ote zaio gertatzen?

PATXIKO:

Ez al diozu igartzen?

MARITXU:

Nik zer jakingo det bada?

PATXIKO:

Ala askoz ohea da!...
Atoz, Maritxu, atoz,
goazen artaldera,
igo gaitezen goiko
barruti aldera.

(Agertzen da Peru, eskuan saskitxo batekiñ, eta gero Josepa.)

IV-GARREN IRUDIA

Patxiko, Maritxu, Peru eta Josepa

PERU:

Gosaldutzeko garaia da ta
ez da agiri. Non ote da?
Anbat ardiyak joango zitzaizkan,
goiko barruti aldera.
Nekatutzen naiz. O, Jaungoikoa!
Orra zer dan gizon zarra,
gazte denboran izandu zana
erbiya beziñ azkarra!

JOSEPA: (*sartuaz*)

Egunon, Peru, egun on...

PERU:

Egunon, andre Josepa.

JOSEPA:

Zarrak aldapa igarotzeko
bero gogorra da au, Peru,
bañan zer egingo degu!
Gure gazteak, zer jango dute
ekartzen ez badiegu?
Onak dira ta merezi dute,
Poz orixen badaukagu.

PERU:

Pobre izanik, aberastasun
aundiak dauzkagu biyok,
seme-alaba obeagoak
ez lizake izan iñork.
Ai, zer *biduna* egiñgo luteken
Maritxuk eta Patxikok!

JOSEPA:

Amaika aldiz neroni ere
bururatu zait orixen.

PERU:

Deitzera noa, ia ojuri
ote diraten aditzen.
Patxikooo! Patxikooo! (*Ojuka*)

(Iristen da Patxiko.)

PERU:

Esazu, seme: non ziñan?

PATXIKO:

Ardiyak larratutzen
goiko barrutiyn.

JOSEPA:
Eta Maritxu nerea?

PATXIKO:
An zebillen artaldean
beste mendi egalean;
laister degu emen bean.

MARITXU: (*sartuaz*)
Nere ama gaisoa
mendi ontaraño!
Asko nai dirazu ta
kontentu naiz, baño
ez dezazula artu
orrenbeste neke,
puska leorrarekiñ
errez pasa naike.

JOSEPA:
Nere alaba ona
ez badet maitatzen...

PERU:
Tira, tira, jan zagus
guztiyok ementxen
urdai azpiko au ta
arto bero auxen.

(Esertzen dira lurrean eta, saskitxotik gosaria aterarik, asten dira jaten.)

JOSEPA:
Karatxe! Au gosari
bikaña da, Peru!

PERU:
Pake ta maitasunak,
dena gozatzen du.

PATXIKO:
Onen guraso onak,
nola izan gerra?

MARITXU:
Auxen da egiazko
bizitza ederra.
Jauregietan bizi
diran aur gaxuak,
noizik beiñ ikusirik
beren gurasuak,
aberats izan arren
oztasun aundiyan...
Nik ait'amen onduan
naigo det mendiyan.

PERU:
Iztun zaude, Maritxu!...

MARITXU:
Nola ez iztundu?
Pozkida aundigorik
mundu onek, nun du?
Zu zera ontasunez
betetako aita,
nere amatxo berriz
aingerua baita.

JOSEPA:
Nola ez maite izan
erotutzerano?

PERU:
Doñu gozoagorik
Maritxuna baño
mendi oiek ez dute
entzun egundano.

MARITXU:
Onegiak zerate
ta orregatikan
ez det txarrera artzen
zuen esanikan.

PATXIKO:
Gauza batek bakarrik
nauka oso triste...

DENAK:
Zerk? (*Alkartzen dira.*)

PATXIKO:
Aditutakoan
arritu zaitezte.
Ingurumari ontan
zabaldur da otsa.
Aitatze utsak ere
ematen dit lotsa!
Lendabizi sarturik
Fueruak lurpera,
gañera galerazi
nai dute euskera.

PERU:
Etzatela orlako
asmorik artu!

MARITXU eta JOSEPA:
Ori eziñ liteke
iñola gertatu.

PATXIKO:
Zertako da egiya
gezurtzat artzea?
Madrildarrak nai dute
izkuntz au galtzea.

PERU:

Ez digute eman nai
buruzpide txarra,
bagenduke bezela
guk aien bearra!
Ez degu besterik nai,
gerena bakarra:
gure izkuntza eta
gure Lege Zarra.

PATXIKO:

Nola erlaundi tzarra sartzen dan
erladi txintxo batean,
ta loikeria alkar garbiro
maite dutenen artean,
ero kukua txantxangorriak
beretzat daukan kabian,
ala sartzen da Gobernoa
gure sort-erri garbian,
begiramenik batere gabe,
gure sentimentuari,
eskubidea ta arrazoaia
kenduaz mendekoari.
Baña egunen bat etorri leike,
nola len sarrazintarrak,
Iberiaren jabe egingo
dirana atzerritarrak.
Orduan ondo ikusiko da
nor geraden euskaldunak,
ta gaztelauak jakingo dute
zein diran beren lagunak.
Gure aitonen gisara joango
giñake laister aruntza,
adiskideai eramatera,
premia duten laguntza,
golde ta aitzur, eskuare ta
laiak utzirikan bertan,
arerioa purrakatzera
Gaztelako ibarretan.
Eta ausardi altsuenakiñ,
Ondarrabi baten gisan,
mintza gintezke, ta ez liteke,
zeñek ukaturik izan;
Guadalete bat gertatu arren
nork begiratzen ez diyo,
nola oraindik tente dagoan
Lekobideren Erniyo?

PERU:

Orixen da jangaña
bazkal bukatzeko!

MARITXU:

Iaioa zaude, Patxiko.

JOSEPA:

Beti goititutzen da
euskalduna bero,
gure Lege santua

ikutu ezkeru.

PERU:

Ordua da joateko
ardien ondora,
bateren bat amildu
ezteñ itsasora.
Bi zarrok geldi-geldi
baserri aldera
joan da otzak zuen zai
an egongo gera.
Bigar arte, Maritxu;
Paxiko, aurki arte.

JOSEPA:

Bigar arte, Paxiko;
Maritxu, aurki arte.

PERU eta MARITXU:

Jainkoarekin zuazte.

(Gelditzen dira ait'amak nondik dijoazen begira.)

PATXIKO:

Amoriotan gabiltzanikan
ez dakite nere ustean...

MARITXU:

Ai, ura lotsa neukan nik, biyak
elkarrekiñ ikustean!

PATXIKO:

Zergatik? Izan bedi
mundua jakintsu
zenbat maitatzen deran
nik nere Maritxu;
zeruak eta lurrak
jakiñ dezatela
Maritxu gabe ezin
bizi nitekela;
bakarrik zuregandik
joango nitzakela,
jakiñik Lege Zarrak,
premia dubela.

MARITXU:

Nola? Joango ziñake,
beraz, ni utzita?

PATXIKO:

Etziñuket utziko,
ez leikena baita.
Eramango zinduket
alako trantzean
emen (joaz) ondo gordeta
nere biyotzean.
Bañan Lekobideren

alabaren gisan
Emakume euskaldunak
bear luke izan;
Lartaun-en emaztegai
onintza ederrak
azkonak zorroztutzen
laguntzen zion berak;
ta ala berean guk
bear degu egiñ,
Euskal-erri maitea
libre izan dediñ.

MARITXU:

Nere buruak diyo
dezula arrazoi,
bañan biyotzak mindu
ta esaten dit, «Oi!».

PATXIKO:

Zure biotz gaxuak
zer diyo, Maritxu?

MARITXU:

Maitatu zaitzadala
leial eta itxu.
Mundu onetan ez da
amoriyorikan,
nik zukanako deran
ainbestekorikan.
Sentitu lezateke
aundiago dana
aingerutxuak beren
Sortzalleagana.

PATXIKO:

Orlaxe ikusi nai
zaitut nik, orlaxen:
menditar onradua
biotzez maitatzen,
ardia beziñ maltsu
oi dana pakean,
baña legoi biurtzen
dana gerratean,
ta esango diona
etsai zitalari:
«Likitsa! Zer nai diok
Euskal-erriari?
Bere berdiñik iñun
ez duben lurrari?
Nai ez badek illtzea
emendik joan ari!»...
Goazen, Maritxu, goazen,
goiko barrutira,
artaldeak larrean
dabiltzan tokira.
Ta nola aurki biyok
banatuko geran,
gaur alkar ikustea

ez dago guregan.
Bigar erromeriya
Erdoiztan nola dan,
joan zaitez eta biyok
batuko gera an.
Oraiñ, agur, Maritxu.

MARITXU:

Ariyo, Patxiko;
sinisten det aztuta
ez nazul'utziko.

(Joaten dira alde banatatik.)

V-GARREN IRUDIA

(Azaltzen da Iñazio zoko batetik.)

IÑAZIO:

Aberatsa izanik
bizi naiz pobre,
zertako det dirua
maitasun gabe?
Geiago det nai,
etxe ta lurrak baño,
Maritxuren «bai».

Naiz etxe-jauna,
ta nerea da aitak
utzi zirana.
Zer ontasunak,
artzai neskatill batek
nai ez ditunak! *(Bis)*

Birautu bat bezela
goian ta bean,
nere anima dabill
bakardadean.
Lur oien jabe!
Zertarako nai ditut
Maritxu gabe?

Orren ederra
zergatikan etorri
ziñan lurrera?
Nago inbiriz
artzai mutiko baten
suerte aundiz. *(Bis)*

(Birpizturik.)

Bañan, zertan estutu
oinbesteraño?
Nik geiago nezake
Paxikok baño,
Aiñ da pobria,
eta aundi naia da
emakumia.

Beragatikan,
ez nuke galdu bear
esperantzikan,
Egiten dit gaitz!
Maritxu ikustera
joan bear det maiz,
eta nerearekiñ

aterako naiz...

Zer da bull'ori?

(Baserritar saill bat dijoa pasatzen Erdoizta aldera, bigarko erromerira.)

VI-GARREN IRUDIA

- JENDEAK:
Egunon, etxe-jauna.
- IÑAZIO:
Egunon, jende ona.
- BATEK:
Nola orren bakar, jauna?
- IÑAZIO:
Bakarti da anima
penatzen daguana.
- SALLEKO BESTE BATEK:
Ez dedilla estutu;
eran beza «gora» (*zatura eskeñiaz*)
eta dijoazela
penak itsasora.

(*Eraten du gogoz.*)
- DENAK:
Orlaxen, bejondaiola.
- IÑAZIO:
Jakin nai nuke iñork
esan ote'izuten,
nola danok Madrildar
egiñ nai gaituzten...
- DENAK:
Ja! Ja! Ja, nagusiya,
ori jostaketa!...
- IÑAZIO:
Ez dago jostaketik,
egia da eta.
- BATEK:
On Iñazio, betor
bere etxeraño,
guk pozik lagunduko
diogu araño.
Gero zerbait arturik
Iturrioz-ko bentan,
egun sentian egon
nai degu Erdoiztan.
- IÑAZIO:
Guazen bada, gazteak,
nai dezutenean;
ardiak bildu dira
borda aldamenean,

beren orrotxoakiñ
aditzera emanaz
ez dutela larrean
gelditu nai gauaz....

DENAK:

Goazen, goazen
Erdoiztara,
jolastera ta
dantzara.
Alkartutzea
ta jostatzea
lengo oitura zarra da.

Nekazari ta
Artzaiak,
guztiok gera
anaiak,
emaztekiyak
ta gizakiyak
paketsu eta alaiak.

Gure izkuntza
maitean,
beti mintzatu
gaitean,
mendi gañetan
ta zelaietan
bizi geran bitartean.

Galerazi nai
duanik
etortzen bada
iñundik,
Lekobideren
arraza emen
zutituko da oraindik.

Etsai zitalak
gudikan,
sortzen badu
iñondikan,
jakiñ dezala,
izan ez dala,
katibu euskaldunikan.

BIGARREN LAUKIA EDO EGINTZA

Iruditegiak aurkestatzen du Erdoiztako ermita, eta urrutitxoan itsasoa.

Irteten dira neskatx ta mutill baserritarrak kapillatik eta ermitako zumardi edo belazean ikusten dira erroskilla eta pontxe saltzalleak.

Orkestak mendi soñu bat jotzen duan bitartean, itzegiten dute aiek elkarren artean.

JENDEDI BATEAN:

- Giro ederra dago.
- Egualdi bikaña.
- Jende asko bildu da.
- Sekulan ez aña.
- Alaitasun onetan egun bat Erniyon bañan ohea eziñ arki leike iñon,
- Mutillak kantatzera eta dantzara, *rrau!*, galdutzen utzi gabe denbora eder au.
- Aldarte txarrak noiznai, jardun gabe eske, guk nai baño lenago etorri litezke.

DENAK:

Dantzara denok, dantzara!

Orkestak jotzen du fandango bat, eta zarrak korro egiten diote dantzari gazteai.

Ontan agertzen dira, ermitaren ondoan, Maritxu eta Patxiko, eta esaten dute:

PATXIKO:

On Iñaziok, zer ziyon?

MARITXU:

Len esan dizut: ezer ez.

PATXIKO:

Aitor zaidazu mesedez.

MARITXU:

Utsa, ta entzun nai ez niyon.

PATXIKO:

Bañan utzakeriya, zer zan?

MARITXU:

Ez dit ezertxo're esan kaikukeriyak besterik; erotu dala uste det nik.

PATXIKO:

Bañan, zer ziyon azkenik?

MARITXU:

Erokeriyak bakarrik.

PATXIKO:

Maritxu, lengo maitetasuna
beldur naiz ote dan joana...
Arrazoi dezu: ni pobrea naiz;
Iñazio, etxe-jauna.

MARITXU:

Ez dezazula gisa orretan
nere biyotza puskatu;
mundu onetan zu besterikan
nik ez nezake maitatu.

(Itz-mozten ditu sailleko batek.)

SAILLEKO BATEK:

Ea, Patxiko eta Maritxu
erten zaitezte plazara.

DENAK:

Bai, egiya da alai gaitezen,
Ta guazen denok dantzara.
Gure Jainkoak eman deiola
euskerari osasuna,
Ernio-mendin beti izan dediñ
Pake ta alkartasuna.

(Berriztutzen da dantza, eta au bukatzean:)

IÑAZIO:

Gure oitura onak
nai dizkigute ill,
etsai dollorra oso
arroturik dabill.
Zer du gorrotatzeko
orla guregana?
Besteren ontasuna,
eziñ eramana!
Bañan gure aitonen
illobak bagera,
eziñ utzi gentzake
galdutzen euskera.
Guztiok biyotzetik
eman zagun itza
zutik idukitzeko
euskaldun aritza.
Oraiñ, zar eta gazte,
anai eta lagun,
euskal-kantzoa denok
Kantatu dezagun.

EUSKAL-KANTZOA

DENAK:

Pakean bizi nai degu bañan
guda baletorke anbat,
Euskal-erriak ez du galdetzen
nondik datozen ta zenbat.

Munduan ez da beste erririk
egin duenik guk ainbat,
argibidetzat izan ditzagun
Lauburu eta Laurak-bat.

DENAK:

Betoz gure fueroak
legez ta pakean,
ez degu gerrarik nai
anaien artean;
bañan etsaia sartzen
bada lur maitean,
guazen labururekin
gu Laurak batean.

BUKAERA

IRUGARREN EGINTZA

Iruditegiak aurkeztatzen du aurrengo egintzaren lenengo laukiko toki bera. Peruk eta Andra Josepak, gosari-mokaru bat beren saskitxoetatik aterarik, prestatzen duten bitartean, Patxiko eta Maritxu dabiltz, zokondian ageri dan itsasalderontz begira.

LENENGO IRUDIA

MARITXU:

Zer itsaso ederra!
Zer aunditasuna!

PATXIKO:

Nere biotzak zuri
dizun maitasuna
da, ori dena baño
askoz aundiago;
ta bagak purrakatzen
dira gogorrago
urditza ortan baño
nere barrenean,
Iñazio burura
datorkidanean.

MARITXU:

Bañan barka zaiazu!
Izazu erruki!
Berdiñ etzenezake
kezkarik iduki,
Jakiñik ez naizela
zu gabe biziko.
Ori baño geiago,
zer naizu, Patxiko?

PATXIKO:

Egiya da, ez det nai
orixen besterik.

MARITXU:

Orduan, zertarako
izan gorrotorik
gazte bati, ez badu
egiñ beste gaitzik,
bera nai ez duben bat
maitatzea baizik?

PATXIKO:

Asko dezu, ala da, (gozokiro)
nere aur kutuna!
Nol'ez da limurtuko
aditzen dizuna?
Entzunik zure doñu
erotzen naubena,
nere borondatea
zurea da dena.

(Maritxuk eta Patxikuk izketa au daukaten bitartean, Peru eta Andra Josepa mintzatzen dira

onela:)

A. JOSEPA:

Bakarrik uzten gaitu
gazteen ezkontzak,
gu biyon sukaldeak
aurki, ai! ,zer otzak!
Ta Iñaziok dauka
aiñ biyotz gogorra,
jakiñ ta ere ezin
sinistu det, orra,
bere aita prestu ta
ona ikusirik,
dortu zezakeala
orlako piztirik.

PERU:

Gauden lasai. Gazteak
bizi bitez ditxan,
eta gu ere gaizki
ez gintezke izan.
Iñaziok beregan
Daukan gorrotua,
Ez da arritzekoa,
aiñ dago lotua,
Zergatikan bizi dan
itxutasunean;
bañan sendatuko da
noizbait azkenean,
konturatuko dala
dudik jartzen ez det,
jakiñik ez dubela
kulpik berak bestek.

A. JOSEPA:

Baliteke; tira, asi
gaitean gosaltzen.

DENAK:

Guazen, bada, guazen.

(Esertzen dira eta, jaten astearekin bat, azaltzen da Iñazio txit triste.)

BIGARREN IRUDIA

IÑAZIO:

Zer erabaki ote dezuten,
jakiñ nai det oraingoan...

PATXIKO eta MARITXU: *(Zutitzen dira, elkarri gerritik elduaz eta Iñaziori arpegi emanaz.)*

Elkar maitatzen jarraitutzea,
betiko amorioan,
bide gabeko zatitzeari
ta oñazeai eutsiaz,
maitasun garbi azken gabea
zeruai adieraziaz.

Beti maitatzen, -o, zoramena!-
zertako bizi bestela?

(Elkarri kantatuaz.)

Maite gozoa, miñ-azgarria,
ez niteke zu gabetu;
beti-betiko zuretzako naiz,
egite'izut juramentu.
Jakin bezate zeru ta lurrak
zer dan biyotz euskalduna,
nola maitatzen duben zeruak
ematen diyon laguna.
Adi ezazu, nere Maritxu:
Adi ezazu, nere Patxiko:
ez da miseri ta penik
zureganako amorioa
neri kenduko diranik.

(Bitarte ontan diyo Iñaziok:)

Nik eztakit zer gertatzen zaidan
gorrotoz eta mirariz;
aiñ dira onak, merezi dute
nai izatea milla aldiz.
Aitortutzen det dirala prestu,
leial, onradu, nobliak;
Erdoiztak eziñ eska litzake
seme-alaba obiak.
Ori jakiñik, asko alditan
nik nai nituzke saritu;
bañan anima minberatuak
ezin du geigo sufritu,
ta eskatzen dit, aserreturik,
ez dezadala barkatu;
aingeru orrek egin dizkiran
gaitzak biaizkit pagatu.

(Denbora berean, Peruk eta Andra Josepak.)

PERU eta A. JOSEPA:

Biyak maitatzen badute alkar,
-ikusitzen dezu nola!-
zure txarkeri zitalagatik
guri zer digu ajola?
Jakiñ biazu emen bakarrik
ez dala jaten ogiya,
beste lekutan ere Jainkoak
azaltzen du eguzkiya.
Zabiltza beti, o etxe-jauna!
prestu, al dezun geiena,
eta zerorrek izango dezu
mesererik aundiyena.
Denok ibilli gintezke ondo
ori egingo bazendu,
ta zukanako griña leiala
iñork ez leiguke kendu;

begiramena, opakizuna,
eskerra ta aitormena,
zuk igaroko zenduke emen
bizimodurik onena.

IÑAZIO:
Zertan gelditutzen gera?

PATXIKO:
Zertan? Oraindik zatoz
ori galdetzera?
Elkar maitatzen, beti,
emen eta non nai.

MARITXU:
Maitatzen beti, bai.

(Iñaziori begira)

IÑAZIO:
Jaunak nai dezala, ez
damutzea biyai...

DENAK: *(Iñaziori)*
Beste gizamodu bat
zan etxe-jaun zarra,
etzera zu etorri
oñordeko txarra!
Agur, ez dizugu nai
zere lurrik kendu,
Jaungoikoak eguna
Non-nai zabaltzen du.

IÑAZIO: *(nola dijoazen begira)*
Agur, denak, agur.

(Iñazio gelditzen da txit beregandua, eta ernatzen du, inguratzen datorren itari talde baten oiartzunak.)

(Itariak sartzen dira, beren itaiak bizkarrean dituztela, kantari, onela:)

KANTARIAK:
Bizi bitez, Kantauri
mendi burni-dunak,
eta Iturriotz-ko
egal kutunak,
Jaungoikoak guretzat
eman zizkigunak;
emen aginterikan
ez du erdaldunak.
Maite ditugunak
gera euskaldunak
baletozke egunak
izan beagunak
lanean bezelaxe
gerran lagunak.

IÑAZIO:

Gazte adiskideak,
gañean da gerra,
zergatik fuero gabe
gelditu gera;
oitura onak eta
izkuntza ederra,
denak kendu ta jarri
nai dute erdera.
Arrotzen sarrera
Lartaun-en lurrera,
arrazoia bera
botarik lurpera!
Bizi bedi Lauburu,
goazen aurrera!

DENAK:

Zer esaten diguzu?

IÑAZIO:

Egiya bakarrik.
Zertako da biziya
ez bada onrarik?
Zertarako baliyo
degu euskaldunak,
izkuntza ere kentzen
badigute, jaunak?

PERU: (*sartuaz*)

Etzazutela gerrara deitu,
ez asi jende eskean,
jakiñ artean garailariak
gero irten gintezkean.
Zarra nago ta ez det beldurrik
ikaratitzat artzeko;
badakizute nere denbora
joan zala gerran sartzeko.
Argatik diot: «Gazte maiteak,
garaia datorrenean,
Lege zarrari zutik eustera
zuazte ordu onean,
bañan aurretik al dan guztiya
pakean saia gaitean,
itzaldu zaigun izar ederra
argitu ote leikean.
Ebrotik aruntz bizitzen diran
Iberiako lagunak,
gure anaiak dirade eta
pakea zor diegunak.
Gu bezelaxen oñazepean
arkitzen diran jendeak,
denok ekarri gaitu ontara
Gobernu lotsik gabeak.
Agintaritzat auta ditzagun,
zuzenago ta obeak;
adi dezagun alkar pakean
ta betoz lengo legeak.
Euskal mendiak oiartzutean
berriz fueroen kantua,

ezetu eta ostotuko da
gure arbola santua.

DENAK:

Peruk arrazoi ematen digu:
anaiak burrukatzea
bañan obe da, al baldin bada,
pakean alkar artzea.
Guk naiagatik ontasunean
eziñ badegu iñola,
bear danean ixuritzeko
prest dago gure odola.

TALDEAN:

Oraiñ, lagunak, guazen itara,
abuztu ona biltzera,
joango giñaken bezela denok
fueroakgatik illtzera.

(Badijoaz kantatuaz, sarreran bezela:)

Bizi bitez Kantauri
mendi burnidunak, etc.

(Gelditzen dira Peru eta Iñazio.)

PERU:

Iñazio, nik eskatzen dizut,
adi zaidazu ondo ta bare.

IÑAZIO:

Entzuten nago, esan zaidazu,
gauza minkatza baldin bada're.

PERU:

Zuk Maritxuri nai diozula
ikusitzen det, fiñ ta onradu.
Bañan zertako, berak zugana
amiorik ez baldin badu?
Baldiñ ezkondu ta emaztea
badago penaz eta negarti,
premirik gabe doakabeak
zerate oraiñ, gero ta beti.

IÑAZIO: *(zeken)*

Beti!

PERU:

Orduan, maite badezu,
ona ta fiña dala jakiñik,
errukigarri, zertan biurtu,
zere burua ala egiñik?

IÑAZIO: *(gozokiroago)*

Zaude, Perutxo, nik ondo dakit,
nere aitari aditurikan,
ez dala Peru Txabolatxiki
beziñ presturik eta onikan.

PERU:
Beti egin det dagokidana.

IÑAZIO:
Badakit, Peru, ta zuregana
beti izango det aitormena,
itzala eta begiramena.
Bañan, ezin det! Barka nazazu;
maitatutzen det ainbesteraño
aingeru ori, sinistra zazu,
nere burua erotzeraño;
nere izate guztia baño
neurrik gabe askoz geiago.
Nik zertarako nai det biziya
Maritxu gabe illtzen banago?

PATXIKO: (*Burrundaran sartuaz*)
Etxe-jaun, arrokeriz
puztu ta betea,
ikusten nazulako
onen arlotea,
iduritzen al zaizu,
arraie zikiña,
anbat ni ez naizela
Maritxuren diña?

PERU:
Zaude nere semea,
geldi-geldi bertan.

IÑAZIO:
Sua baldin badago
zure erraietan,
txinparta gutxiago
ez da nerietan.

PERU:
Geldi, Iñazio, geldi,
zaute geldirik or.

IÑAZIO:
Ze geldi ta ze bizkor!
Beira gero neri!

(*Artzen du arri bat, Patxiko jotzeko asmoan. Ontan, ixtilu bizian sartzen da tartean Maritxu.*)

MARITXU:
Zer egitera zuaz?
Patxiko illtzera!
Nik maitatzeagatik?
Erotu altzera?
Iduritzen al zaizu,
Patxiko illtzean,
Maritxuk ez dubela
zañik biyotzean?
Andre euskaldunaren
jatorriya izan,
eta aztu al zaizu

zure ama zein zan?
Emakume euskaldunak
maitatzen du benaz,
eta ukatu baño
len illko da penaz,
zergatik naitasuna
biotzean dauka,
eta au ez da saltzen
urrearen truka.
Ez da aiñ sustraitua
Erniyoko aitza,
nola dan guk benetan
emandako itza.
Gure amorioa
jakin zazu dala
itsasoa dan beziñ
aundi ta zabala.
Alperrik da losintxan
iñor ibiltzea,
zergatik naigo degu
goseak illtzea,
ezeztatu baño len
juramenturikan,
eta nik Patxikori
daukat egiñikan.
Nola itz'eman nion,
maite detan bati,
beretzat izan nai det
beti, beti, beti.

IÑAZIO: (*Triste ta ixurti.*)

Nere amets ta irudipenak
bukatu dira betiko;
joan zaizkit poz ta alaitasunak
nere denbora guztiko;
baña ez dizuet, naiz miñez lertu,
dítxarik galeraziko;
elkarrentzako jaio ziñaten,
Maritxu eta Patxiko.
Euskaldun jator, prestu, nobleak
egiñik senar-emazte,
izan zazute nitzaz kupira!
Miñ onek illko nau laiste!
Baña nola, ez dezuten kulpik,
kezkarik gabe zuazte.
Agur Patxiko, agur Maritxu,
doatsu bizi zaitetze.

PERU:

Bejondaizula, ez nezakean
zugandik gutxigo uste.

IÑAZIO: (*joanaz*)

Agur!!

(*Iruditegikoak gelditzen dira izketa bizian baleude bezela. Ontan sentitzen dira, datorren baserritar talde baten oiartzunak.*)

DENAK: Betoz gure fueroak, etc, etc...

BUKAERA

LORA

(OPERA)

(1907)

LORA

IPUIKANTA IRU EGINTZATAN ⁽¹⁾

EGILLEAK

ARAZ: mutill gazte alai bat.

GAINTZA: seme askoren aita, alabik gabe.

LORA: neskatx gazte umezurtza, Gaintzaren alabordekua.

AGIRI: erriko dontzella bat, Arazen emaztegaia.

ALDUN: erriko etxe on bateko semia, Loraren senargaia.

KASKAR: erriko emakume bat.

(1) Lora izeneko operarekin *Artzai-Mutilla*-rekin bezela egin zuten : Felix Ortiz y San Pelayo azpeitiar musikariak musika, eta Pedro Mari Otañok letra. Baiña ez dirudi opera au iñun aurkeztu zanik.

LENENGO EGINTZA

Iruditegiak aurkeztatzen du Elizondoko erriko plaza Baztango Balleran.

Santiago erriko patroiaren⁽²⁾ eguna da, eta illunabarra, festako jendia aldegiten asi dan orduba.

Aditzen da fandango baten azkena, eta neskatx eta mutillak urruntzen dijuazen bitartean, kantatzen dute onela:

LENENGO IRUDIA

Guazen, lagunak, goazen,
illunabartu da;
goazen, festa eder au
goguan degula.

BATEK:

Gaurko pozezko dantzak
bat ez du nekatzen.

BESTE BATEK:

Mutillak, berandu dek
ta etxera goazen.

TALDE BATEK, 1º:

Elbetarrak nekatu dira

BESTEAK, 2º:

ta Gartzaingoak geiago,

BESTE, 3º:

Lekaroztarra deitutzen danik
aspertzen ez dala nago.

BESTE, 4º:

Bejondaiola Iruritari
guziyak baño gorago,
errikoetxean beren izena
mill'aldiz jarriya dago.

1º, 2º, 3º:

Baztandarrak badira
ez da zer esanik,
ez baita bat atzera
geldituko danik;
naiz festan, berdin gerran,
noranaira joanik,
eriotzari ere
bildur gabetanik.

BATZUEK:

Ara, izarrak agertu dira,
otzaro dator aizian,
eta geiena maite dubena
gure zai dago etxian.

DENAK:

Egiya da, orain ta len
amak zer onak diraden,
biotza barren-barrenen;
penik eman gabe, arren!,
mugi gaitezen lenbailen;
berriz ere festak emen
laster ditugu izanen,
goazen, bada, goazen, goazen.

(Alde banatatik joanaz, taldeka)

Kantatu itzatzute,
napar menditarrak,
sorterri ederraren
glori antziñarrak,
ondo irabaziyak
len guraso zarrak,
biotz eta burudun
euskaldun azkarrak.

Bizi bedi Naparra
doatsu ta pakez,
bere fueruakin da
bere borondatez;
norbait miñdutzen bada
gure libertadez,
berendu dezatela,
guk bezela, legez,
ta ez guri kendu ta
berentzat ezerez.

Oitura on eder au
zeñek ez du naiko?
Mundu onetan ez da
oberik jarriko;
beragatikan gorde
dezagun betiko,
beñ galtzen bada berriz
ez da etorriko.

(Festazaleen kantu-oiartzunak urruntzen dijoazen bitartean, gelditzen dira iruditegian Agiri eta Araz.)

II-GARREN IRUDIA

Araz eta Agiri

AGIRI:

Zergatik da zu triste
gaur egotia?

ARAZ:

Ai, Agiri, nago txit
 kezka betia.

AGIRI:
 Zer da, ordia?
 Zergatikan zu etzaude alai?
 Ez al dirazu len bezela nai?

ARAZ:
 Animan ekaitz beltzak
 baitit eraso,
 ezin det azaldu ta
 ezin det jaso...

AGIRI:
 Esan Araz,... o!
 Ordu gaiztuan nago ikusten
 zeluak lotu ote zaituzten.

ARAZ:
 Ez, Agiri maitia,
 maite kutuna;
 ez da nere miña zuk
 uste dezuna
 orren illuna;
 bañan zertan itzegiñ? Zergatik?

AGIRI:
 Zerbait gordetzen dezu, ez dakit...
 Esan zaidazu Jainkuagatik

ARAZ:
 Bai; amorezko su bat
 garturikan dena
 da emen
(biotza señalatubaz)
 txit barrenen
 gordeta dagoena,
 nere biziyarentzat
 gauzik biarrena,
 eta nere anima
 kiskaltzen dubena.

AGIRI:
 Lorerik politena
 zugatikan beti
 badakizu ipintzen
 detala maitati,
 nik aingeru bati?
 Ezerk ez nau poztuko
 zugandik urruti.

AGIRI:
 Urrutira al zuaz?

ARAZ:
 Uste det ala,
 badakizu biotzez
 nai dizudala,
 eta neretzako zu
 dena zerala,
 o, aur leiala,
 ta zuri eskeintzeko

deus ez derala.
Ez det dirurik,
ez eta etxerikan,
ain gutxi lurrik,
ta doatsu ikusi
nai zinduzket nik.

AGIRI:

Araz, maite nazu ta
aski dut ori.

ARAZ:

Bañan nik ditxa eman
nai dizut zuri
eta, agur egiñaz
sorterriyari,
banua sarri,
bear dana kentzera
Amerikari;
andik etorri
ta jauregi batean
nai zaitut jarri
erregiñ bat bezela.
Bañan, Agiri!
Denbora luzian ez
banaiz agiri,
itxoingo al dirazu
benetan neri?

AGIRI:

Ait'ama onraduben
alaben gisan,
nik itxedongo dizut,
ez bildur izan,
naiz emen, naiz an;
eta illko baziña
zere lankintzan,
otoitz elizan
egingo nuke beti
bakar-bizitzan,
Jaungoikuak zeruban
elkartu gaitzan.

BIYAK:

Urte luzeak, urte samiñak,
garratzak eta zikoitzak,
leunduko ditu, maite laztana,
barrengo biyon oroitzak;
lasa joan zaitez, itxoingo dizu
lasa joango naiz, itxedongo dit
erru gabeko biyotzak,
beti zugatik egiñaz nere
beti nigatik egiñaz bere
erregu eta otoitzak.

(Bikida iya bukatu danean, agertzen da txokoan Lora, oiturazko gozotasunean.)

III-GARREN IRUDIA

Lengoak eta Lora

LORA:

Araz gizagajua,
Agiri gaixua,
ai, kendu al baneza
zuen arazua!

AGIRI-ARAZ:

Lora, zu beti ona,
zu beti gozua.

LORA:

Onak zer baliyo du,
ez bad'indartsua?

ARAZ:

Asnas berri pizkorra
da nekatubentzat
eguzki gozatsuba
ekaitz gogorrentzat,
argi dizdizariya
illunpearentzat,
iturri pozgarriya
egarriarentzat,
ta laguntza bakarti
triste daudenentzat.

LORA:

Nola onak zeraten,
adi nazazute:
aita zai dago eta
joan ordu dezute;
gaur emen itzegiña
neurdu ezazute,
baldin gero damuba
sortzen bazaizute,
illdakorik malkoak
piztutzen ez dute.
Goazen, goazen, galaiak,
lagun nazazute.

(Joaten dira txokotik.)

IV-GARREN IRUDIA

(Gaintza, bakarrik, irteten da eskuitik.)

GAINTZA:

Gazte oriek nun ote daude?
Gauz onek miñ ematen dit!
Baña zer egiñ, alabearrak
patu au ekarri badit?
Gure Jainkuak ainbeste seme
maitagarri eman dizkit
eta, Berari eskerrak, denok
ondo arkitzen gera txit;
bañan Arazen bizilekuba
nola billatu ez dakit.

Nik ez nuke nai Araz iñola

nere ondotik bialdu,
Amerikara joan nai dubela
esana izan biar du;
neregatikan etorkizuna
berak ez dezala galdu,
debekatzia gaizki deritzat
saiatu nai baldin badu;
aberastutzen ez bada ere
bizi dedilla onradu.

O, Jaungoikoa! Zenbait seme on
zor dizkitzun gurasuak
eskatzen dizu begiratzeko
errukiz beren pausuak;
Gaintza zarrari argitasuna
giyatutzeko gaixuak,
noranai joanda izan ditezen
garbi eta fedetsuak,
gaitzik gabeak ta onradubak,
beti euskaldun prestuak.

V-GARREN IRUDIA

(Gaintzak bukatzean, agertzen dira Lora eta Araz.)

LORA-ARAZ:

Aita maitea, non zabiltz?

GAINTZA:

Zuen billa etorri naiz.

LORA:

Goazen orduban etxera
elkarrekiñ apaltzera.

DENAK:

Guazen apaltzera.

VI-GARREN IRUDIA

(Aditzen da barrenen, ardandegi batian balitz bezela, kantu au:)

Aditzen al dezute
soñu eder ori? (bis)
Saratik eldu zaigu
gure Muñagorri. *Rau!*
Rau, rau, rau, rakataplau!
Au dek umoria,
utzi alde batera
euskaldun jendia.

(Bitartean agertzen da Aldun, Lora eta Arazekin Gaintza joan dan beste aldetik.)

ALDUN:

Loraren ibiltoki
bedeinkatubak,
entzun zaizkidatzute
nere kantubak.
Ai, baleraki
nik zenbat nai diotan,

bañan ez daki!
Eta aur alaiak
ainbeste maite ditu
aita t'anaiak;
gañera berriz
Gaintzaren etxe ona
pozez et'argiz
dauka betia.
O, aur laztangarriya,
Lora maitia!
Nola neretu zure
borondatia?

(Aditzen da berriz ardandegiko euskal kantua; iruditegia dijua illuntzen, eta jarraitzen du Aldunek:)

O, aingeru zerutar
Lora garbiya,
Elizondoko kutun
erogarriya,
mirabe fiña,
udaberriko lore
urrez egiña;
zu gabetanik
eziñ izan nezake
bizitze onik;
zeru goitiyak,
leortu itzatzute
nere begiyak,
ta zenbat nai diotan
esan, mendiyak.

O, izar dizdizari,
gordeka zeruban
zabiltzana, lañuak
baño goraguan,
ikusi zazu Lora
lotan noiz dagan;
eta esan zaiozu
amets gozaruian,
bulla gabe, ixilka,
belarri onduan,
jakiñ dezan Aldun-ek
zenbat maite duban.

VII-GARREN IRUDIA

(Eguna zabaltzen ari da, eta gaugaltarrak irteten dira ardandegitik.

Egiten da aldaera bat eta aurkeztatzen da Pasaiaiko kaia

Gaintza, Lora, Agiri, Araz eta onen anai eta adiskide batzuek, eta Amerikarako ontzira dijuan jendia.

Orkestak jotzen du zerbait.)

1 ° TALDEA: Buenos Airesa zuazte, beraz?

2° ID.: Ala nai genduke beintzat.

1 ° ID.: Aize bigun ta itxas geldiya izan dedilla zuentzat.

EMAKUME BATZUEK:
Asko ikusten ditugu joaten
Amerikako aldera,
bañan txit gutxi etortzen dira
berriz sorterra maitera.

GIZONAK:
Ez degu zispuru ta
negar biarrikan,
euskaldunak ugari
daude Amerikan;
gaur ez dago iñolaz
lengo konturikan,
joan-etorriya errez
egiten da andikan.

DENAK:
Euskal-errira laster,
orañ zuaztenak,
pozkidaz etortzia
nai genduke denak,
aitak, amak, anaiak,
arriba zuenak,
ta beste biyotzetik
maite zaituztenak.

GAINTZA: (*Arazi*)
Agur, seme on biyotzekua,
izazu zeruba lagun,
ta Jaungoikuak eman deizula
bear ainbat argitasun;
etzaitzela Beraz ta nitzaz
aztuta okerrera jun,
pobre bai, baño badakizu zer
izen garbi daramagun.

Suerte txarrez ondasunikan
eziñ badezu ekarri,
arrote bizi zaitia baño
ez iñon mantxik ezarri;
Elizondotar Gaintzako seme
bezela prestu ta garbi,
etzaitzela sekulan izan
erriyaren lotsagarri.

Araz maitia, seme laztana,
elkar utzitzera guaz,
estura ontan aita zar batek,

bere biotza lertubaz;
eskatzen dizu: zere lanetan
ondo naiz gaizki bazuaz,
ez gero aztu Euskal-erriaz,
aitaz eta Jaungoikuaz.

Eta, zabiltzan leku guztiyan,
ezagutzen zaituztenak,
zu ikustean esan zatela
egiya maite dutenak,
oroiturikan euskaldun zarrak
utzi dituzten omenak:
«Aitorren seme kantauritarrak
dira jenderik onenak,
beren izena loitu baño len
noiznai illko lirakenak».

ARAZ:

Nik juramentu egiten diyot,
o nere aita maitia!
Non-nai ta beti jarraituko det
berorren borondatia.

LORA ETA AGIRI:

Agur, nere anaia,
Agur, Araz, agur;
etzaitzezela aztu
non uzten nazun gaur.

(Joaten dira ontzira balijoaz bezela Amerikara dijuazenak, eta iruditegiyan gelditzen diranak esaten dute:)

Agur, euskal prestubak,
joan zaitetze ongi,
ondo pasa zazute
itxas zabal ori;
emandako itzikan
ez aztu iñori,
zori on bat dedilla
zuengan erori,
ta zeren lur maitera
lenbailen etorri.

(Dijoazenak kantatzen dute barrenen:)

Agur, Euskal-erria
ta zure almenak,
asnasa ta argiya
eman zigutenak;
agur, txoko gozo ta
mendi alaienak,
baso, arkaitz, iturri,
zuaizti lardenak;
agur, guregantikan
triste zaudetenak,
agur, gure biyotzen
maitagarrienak,
agur, mundu ontako

gauzarik onenak;
Jainkuak nai dun arte
agur, agur, denak.

(Burtiña erortzen dan bitartean, iruditegian daudenak astintzen dituzte beren esku-zapi eta txapelak, dijoazenai agurka.)

LENENGO EGINTZAREN BUKAERAN ERASKIÑA

(Pasaian)

ARAZ:

Agur, aita laztana,
Lora, izan ongi;
agur, adiskideak,
urruti nua ni.

Eta zuri, Agiri,
nola esan egiya?
Ikusten dezunian
goiz egunsentiya,
leiotik gelatxora
datorren berriya,
gozoro banatubaz
zeruko argiya,
ta gero igotzean
sutan eguzkiya,
alaitubaz landare
intz-malkoz bustiya,
sinistu zazu dala
gauz ori guztiya
nik zukanako detan
naitasun aundiya.

Ta gero eguzkiya
goititzen danian,
argiya zabaldubaz
mendiya gañian,
soro zabaletan da
baso illunian,
oroitu zazu Araz
zure barrenian,
gogora zaitetz beti
nere izenian.

Eta illargi txuriska
zeruban goratzen
ikusten dezunian
argiz dizdiratzen,
ni bezela zu ere
zaude begiratzen,
biyon begiratubak
an bildu ditezen.

Txor-txor aditutzian
iturritxoari,
eta *mur-mur* soñuba
errekatoari,
edo aize jostallu
zuzmurlariyari,
esan biar diyozu
zere burubari:
«Araz-en biotzeko
kantuba da ori».

Itxas-ertzean noizbait
bakar zaudenian,
bagak leun ta geldiro
datozkitzunian,
artu biar dituzu
maitetasunian,
zergatik joango dira
nere izenian,
muñ ematera zure
ointxoen gañian.

Oiuz edo ixilka,
nola edo ala,
uste badut zugana
joan ditekeala,
zernai gauzi esango
diot bereala:
«Zuaz, mintza zaiozu,
maiz entzun dezala
Araz bere maiteaz
aztutzen ez dala».

O, Agiri kutuna,
nere itxumena!
Zurekin gelditzen da
nere biotz dena.

(2) Zuzejaunaren. (Otañoren oarra)

BIGARREN EGINTZA

Iruditegiak aurkeztatzen du Gernikako ostatu bateko gela bat, eta aritz donetiarren⁽¹⁾ azpian ekondetzera⁽²⁾ dijoa probintzi Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako ekautuen⁽³⁾ bilguma edo batzarrea⁽⁴⁾.

LENENGO IRUDIA

Gaintza, Lora, Agiri eta Aldun

GAINTZA:

Ona, nere maiteak,
lur argidotarra,
nere betiko amets
t'animako arra;
ara or aritz santuba
azalkaj⁽⁵⁾ gutarra,
orren argitasuna
ta bere indarra
daukagu mundu ontan
zabaldu bearra:
Jaungoikoa, euskera
eta Lege Zarra.

LORA:

Kulunkatzen ninduzun
siaska maitetik
asi ta geroztikan,
biotz-biotzetik
beti eskatzen nuben
egun onengatik,
eta azkenean orra
iritxi zugatik.

ALDUN:

Gure maitetasuna
jaio zan ordutik,
guk enegutu degu
benaz ta gogotik
elkarrekiñ ementxen
bildutzeagatik.

AGIRI:

Araz gizagajoa
aiñ bide luzian
joan da nol'ote dabill
leku arrotzian?
Zerubak, argizute
nere biotzian,
ikusiko al det, ai!,
berriz etortzian?

GAINTZA, LORA eta ALDUN:

Araz etorriko da
indarberriturik,

sorterriya len baño
geigo maitaturik;
Amerikan gutarrak
daude beroturik,
eta aritz santuba
legetzat arturik,
aurki emen degu ta
ez euki ardurik.

AGIRI:
Emen zeren zai gaude?

ALDUN:
Batza bukatu zai.

LORA:
Onenbeste denboran!
Oraindik ere bai?

(Sentitzen da barrenge festa-murmurra.)

GAINTZA:
Or gauza txit astunak
dabiltza tratatzen.

LORA:
Eta ots oiek?

ALDUN:
Orain
dijoaz bukatzen.

GAINTZA:
Laster jakingo da zer
erabaki duten.

AGIRI:
Goazen, bada, goazen.

BIGARREN LAURKA EDO AGERPENA

(Aurkeztatzen da Batzartegiko plazatxoa, eta dagokizkan karrikak. Soñulariak euskal doñu batzuek jotzen dituzten bitartean, jasotzen da aldaera egiten duban burtiña.)

DIANAGUSIAK⁽⁶⁾:
Entzun zazute, euskal prestubak,
zer erabaki dan emen.

DIAK:
Aditzen gaude, jauna, guztiok,
esan bezaigu lenbailen.

DIANAGUSIAK:
Arazo eta neke askoren
ondorenean, Madrillen,
jakin zazute euskalzaleak
nola irten diran gallen.

DIAK:

Goitaitxatu ditzagun
gure ekautuak⁽⁷⁾.

DIANAGUSIAK:

Araba ta Bizkaia
eta Gipuzkuak,
beren esku dauzkate
zor eta artzekuak.

DIAK:

Beraz, irabazi du
lege bidezkuak.

DIANAGUSIAK:

Bañan au da Fuegoen
zati bat bakarra,
eta guk osorik nai
degu Lege Zarra.

DIAK:

Orduban zertarako
zatiya baimendu,
guri askoz geiago
baziguten kendu?

DIANAGUSIAK:

Batzarreak orixe
nai luke zuzendu.

DIAK:

Ta zer eskatzen du?

DIANAGUSIAK:

Beti txartzat artzeko,
bear dan bezela,
Gobernu zital baten
ausardi ergela,
esanaz euskaldunok
zuzen gatozela,
lengo gure oiturak
biur ditezela,
ez degula izango
pakerik bestela.

DIAK:

Berokiñ guaz denok,
bejondaiotela!

DIANAGUSIAK:

Gipuzkoan, Araban
ta Bizkaian sarri
lauburu goititurik
bear degu jarri.

GAINTZA (erdira irtenik)

Ta nappar senideaz
antzi al ziñaten?

TALDEAK:

Eziñ aztu gintezke
Naparroaz emen;
guk ez degu okerrik
zuekiñ izaten,
oitarauko⁽⁸⁾ anaiak
nola baitzeraten.

ALDUN:

Oitaraukoa da Napparroa
lenbizikoak diran aÑean,
bere semeai esanaz beti
onela bere alegiÑean:
«Jaio zerate Euskal-erriko
egal berezi ta bikaÑean,
Jaungoikoa ta Lege Zarrari
eusteko gauza danen gaÑean».

Ebrotik aruntz bizi diraden
anai biurri batzuek baldiÑ
gaizki jarri nai baginduzkete
gure odola daukatenakiÑ,
erantzun bedi garbi ta leial:
«Napparrek ori ez du nai egiÑ,
baizikan gogor joango gerade
noranai gure senideakiÑ,
Euskal-erria bein ankapetik
irten da zutik agertu dediÑ».

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa
eta Napparra leial daude or,
lau senideak besarkaturik
iÑori ezer ez diote zor;
beren araude oiturazkoa
nai dute onez baldin baletor.
BaÑan diote: «BetoZ Fueroak,
gure Lege Zar maitia betor».

TALDEAK:

Bizi bitez napparrek,
gure senideak,
besarkatu gaitezen
Aitorren semeak;
betoz lengo Fueroak
edo araudeak,
gure guraso zarren
betiko Legeak.

Estalitako izar
ederren bir-bira,
odei beltzak urratu
eta ozgarbira
laster agertuko da
zeruben erdira,
mendi eta zelaiak
irtenik argira;
eta mirarizturik
gauz oiei begira,
denak esango dute
«Fuerotarrak dira».

DIANAGUSIAK:

Eresi oiek denbora gutxi
barru osatu ditezen,
lendabiziko gallenaldiya
festan ospatzera goazen;

ez da pauso bat besterik izan
bañan au eman da zuzen,
ta patu onak lagunduko du
dena gureganatutzen.

(*Joaten dira, bilgobailla⁽⁹⁾ eraztubaz, leku emateko lendabizi makildantzari eta urrena ezpata-
dantzari. Eta, onetan dabiltzan bitartean edo geldiuinetan eta len, aditzen dira txaloak eta
aupadak.*)

TALDEAK:

Gora ekautak! Fuero
santubak aurrera!
Beti bizi dedilla
gurekiñ euskera,
Aitor eta Lartaunen
izkuntza ber-bera!

(*Dantza bukatzean kantatzen da otsankida bat.*)

Euskal seme maiteak,
egon ernaiturik,
beñere utzi gabe
izkuntz au azturik;
beste gauzak ez dira
--zaute sinisturik--
irudipen igeskor
batzubek besterik;
euskera galtzen bada
ez dago fuerorik.
Mintza gaitezen bada
geron mesedian
guraso zarrak eman
ziguten legian,
eziñ kontaala etsai
gogorren aurrian,
iñoiz erori gabe
arrotzen mendian,
oju egiñaz gure
izkuntz ederrian:
«Mutillak, aurrera ta
gogor sabelian»⁽¹⁰⁾.

(1) *Santo*. (Otañoren oarra.)

(2) *Efectuar*. (Id.)

(3) *Diputados*. (Id.)

(4) *Junta*. (Id.)

(5) *Lema*. (Id.)

(6) *Presidente*. (Otañoren oarra)

(7) *Diputados*. (Otañoren oarra)

(8) *Oitaraukoa*: foral. *Oitaraua*: Fuero. (Otañoren oarra)

(9) *Corro*. (Otañoren oarra)

(10) Ernio mendigo *leyenda* edo kontakizunetan esaten danez, erromatarrak eta euskaldunak, alkar ezin menderaturik, erabaki au artu zuten: eun gizonek eun gizonen aurka iru bider burukatzea, eta bitan irabazten zuana gallen gelditzea. Leenengo burruka Ernion egin zuten, eta euskaldunak garaitu. Bigarrena Erroman izan zan. Asi ziran eta euskaldunak larri. Jotzen zituzten kolpeak, erromatarrak burnizkojantziak baitzituzten, alperrikoak ziran. Baiña euskaldunen

buruzagia, Oiartzungo Lartaun, erromatarren jantzia gerritik beera aulagoa zala oartu zan, eta orduan onela oju egin zien bere mutillei: «Sabeletik ! Sabeletik !». Euskaldunak ara zuzendu zituzten andik aurrera beren kolpeak, eta Orduña nagusi atera. Bi bider garaile gertaturik, etzan irugarren burrukarik izan. Euskal mutil batzuk Erroman gelditu ziran bizi izaten, eta aietatik omen du jatorria *Sabelio* abizeneko familiak. Lartaunen oiu ori oroitarazten du Otañok bertso onen bukaeran.

IRUGARREN EGINTZA

Iruditegiak aurkeztatzen du Agiriren etxeko baratz, zeñean dabillen bera (Agiri) aruntz-onuntz, zoroburdituba.

AGIRI:

Eziñ nezake geiago
ta bildur aundiya daukat:
Araz aspaldiyan anbat
nitzaz azturikan dago.
Bekaitz⁽¹⁾ illunak gogora
erruki gabe datozkit,
erraiak puskatzen zaizkit
ikusirik pozez Lora.

Lora ona txit
dala badakit,
bañan bere pozak
miñ ematen dit.

Gaizkita⁽²⁾ gabe, ai oiek lanak,
nik emen barrenen dauzkadanak!
(*Bularra*⁽³⁾ joaz)
Araz urruti, (*aruntz begira*)
nitzaz azturik agiyan beti,
begiratubaz beste norbaiti!

Ni bakarrikan
zuk lajarikan,
emen nago eziñ
alaiturikan.

Ikusitzen det, nekerik gabe
Lora egiñik Aldunen jabe.
Sasi-txermena!
Aitik ezagutu ez dubena,
t'ama zein duben ez dakiyena.

Lora doatsu, ni doakabe,
bera Aldunen lagun ta jabe,
bera aberats, ni ezer gabe,
bera etxekoandre ta ni mirabe?
Eziñ leike, ai!, ez, iñola're.

Nere animak onenbeste miñ,
bere naitasun aundiyaekiñ,
naparrak degun odolarekiñ?
Gora biotza ta gogor egiñ,
Aldun zugana etorri dediñ.

Amodiozko gudan, Agiri,
izan zaitia zu garailari,
bildurrik gabe zer esanari;
zergatik nonai aberatsari
barkatzen zaizka gauz oiek sarri.

BIGARREN IRUDIA

Agiri eta Aldun

(Aldun sartzen da txokotik.)

ALDUN:

Agiri ona, beti
Arazen pozkidan,
maitatien ametsak
zer gozuak diran!

AGIRI:

Araz aztu da nitzaz.

ALDUN:

Nondikan dakizu?

AGIRI:

Ez al dezu asmatzen?

ALDUN:

Ez. Nork esan dizu?

AGIRI:

Zarrengandikan iñoiz
ez al dezu entzun
amoriyuak nola
oi diran erantzun?

ALDUN:

Bai.

AGIRI:

Eta su bat dala
gozo ta leunena,
bi anima batean
gartzen ditubena?

ALDUN:

Bañan eziñ antzeman
dizut zertan zauden.
Etzaude Arazentzat?
Esan zazu, arren!

AGIRI:

Lengo maitetasunik
ez daukat barrenen.
Gaurgero ez diyo nai
Agirik Arazi,
beste su baten garrak
du onetarazi.

ALDUN:

Arriturikan nago
eziñ antzemanik,
etzait buruban sartzen
au egiya danik.
Nola entzun nitzake
gauz oiek zugandik,

Araz gizarajua
bizi bada oraindik?

AGIRI:

Eta zuk ez dakizu
zerorrek autuba
arkaitz baztar batian
nola dan sortuba.

ALDUN:

Gaintzaren alaba da
nere maitatuba.

AGIRI:

Zuk ez dakizu ezer,
Aldun gizajua!

ALDUN:

Nai al dirazu esan?

AGIRI:

Ez dakizu? Orra!

ALDUN:

Esazu zergatikan
oraindik...

AGIRI:

Gerora
txit ondo jakiteko
badezu denbora
zer sasi-jatorrizko
alaba dan Lora.

ALDUN:

Ez nezake sinistu, (*zalantzan*)
etzazula esan,
zergatikan bazabiltz
emen gezurretan...
Bañan, bai, esan zazu
azkar orain bertan.

AGIRI:

Onen gai benazkoan
gezurrari toki
nola emango diot?
Ez bildurrik euki.
Loraren jatorriya
iñork baño obeki,
berak jaso zuben ta
Gaintzak berak daki.

ALDUN:

Aski da, Agiri.

Biyak

ALDUN:

Mendakaturik⁽⁴⁾ utzi bear dut

oinbeste pena tan lotsa,
ill bear badut illko naiz baño
egiñik len eriotza.

Nere izen garbia
loiturikan dena
utzitzea da noski
emen nai dutena.

Atozte subak eta
beroko indarrak⁽⁵⁾,
purrukatu nai ditut
korapillo txarrak;
atozte ta ikusi
zazute, baztarrak,
nola txokoratutzen
ditugun zakarrak,
garbi jaio giñaden
napar menditarrak.

AGIRI:

Egia da, nik eresitzen dut
naitasun ori neretzat,
bañan ez dut nai artu nazaten
emakume gaizkilletzat.

Maitatzen baldin banau,
Aldunen izena
agertuko da beti
emen goitiena.

Zer doatsu Aldunek
maite baninduke!
Araz etorri arren
bildurrik ez nuke,
ainbesteraño elkar
maiteko genduke;
ta Lora aiñ da ona,
barkatuko luke,
eta laguntzalleak
izango lituke.

(Joaten da Aldun, eta onen ondoren Agiri.)

ALDAERA

III-GARREN EGINTZA II-GARREN LAURKA EDO AGERPENA

*Iruditegiak aurkeztatzen du Gaintzaren etxeko gela bat, zeñean ikusten dan Lora, egatsiguntzi⁽⁶⁾
bat eskuban dubela, aldagarriak⁽⁷⁾ txukuntzen.*

III-GARREN IRUDIA

LORA:

Zer ederki bizitzen dan
erri txiki politetan,
aundinaiaaren arantzik gabe,
bartzartxo pozgarrietan,
elkar maitatubaz bertan!

Ez da igotzen ardura
ta odol txarrik burura,
baizik denbora irristatzen da
iturri garbiko ura
ixuritzen dan modura.

Emen beti alegere
lanean da festan gaude;
apirilleko lore tartian
bezela bizi gerade,
buruko miñikan gabe.

Badator negu gogorrik,
guk ez diogu bildurrik,
zergatik ez du ezerk oztutzen
naitasunaren indarrik,
ez beñepein baztandarrik.

Uda txit bero badator,
utzirik belarrak legor,
usai gozo bat banatutzen da
esanaz bigun ta gogor:
«Euskaldunak zerate or».

Emen uda eta negu
elkar maitatutzen degu;
aberats danak beartsuari
otz-bero gogorrek kendu,
orrek dena edertzen du.

Argatikan arloterik,
beartsu edo pobrerik,
ez da ikusten gure artean
aberatsak menpeturik;
ez da onlako lekurik.

IV-GARREN IRUDIA

Loraren artzai-kanta bukatzean, sartzen da Aldun, itxuragabetuba; eta, aterdian gelditurik, esaten du:

ALDUN:

Zu, emakume lotsa galduba,
zergatik saldutzen nazu?

LORA: *(txit sentituba, baño aserre bage:)*

Zer gertatzen da? Ai ene, bada!

Aldun, zer da? Esan zazu!

ALDUN: (*Lorari eltzera dijoa*)
Zertako esan? Geigi dakizu.
Etziñala emen sortu
ez al dakizu?

LORA:
Ez dakit ezer,
bañan bildur naiz erotu
ote zeraden. Aldun, zaude or!
Ez gero Lora ikutu!

ALDUN:
Sasikume bat, ait'amik gabe,
gezurretan da losintxan
ni atzipetzen⁽⁸⁾ ibilli zera.
Zertan ez egiya esan?

LORA:
Nere aita ez dala
Gaintza, Gaintza bera,
eta ni ez naizela
Arazen arreba?
Jesus! Gaur etxe ontan
zer gertatutzen da?
Esan zaidazu, Aldun:
itxutu al zera?

ALDUN:
Emakume txuriska,
aski da gezurrez,
on itxuran zabiltza
naitasun laburrez,
bartzandar onradu bat
atxitzeko ustez.
Zergatik etzirazun
esan alde aurrez
izengaña zer dezun
ta nor zeran legez?

LORA:
Eziñ ezagutu det
zer gertatzen zaizun,
argatikan ez dakit
zuri zer erantzun;
bañan Jainkuagatik,
zaude lasai, Aldun.

ALDUN:
Aitzakiz ta palakuz
nai nazu lasaitu,
zere barrengo arrak
salatutzen⁽⁹⁾ zaitu.

LORA:
Gaurdaño gaitzik egiñ
ez diot iñori,
zergatik ez dirate

aditu nai neri?

ALDUN:

Nik ez dizut sinisten
ezertxo're zuri.

LORA:

Aldun, adi zaidazu.

ALDUN:

Betor gezur ori.

LORA:

Nik zure naitasuna
garbi eta txukun
gorde det. Zer eskerra
ematen dirazun!

ALDUN:

Doatsutzen ninduten
maitetasun aiek,
urratu dizkit ume
salkindari batek.

LORA:

Aldun, zaude pixka bat,
aditu zaidazu.
Nik ez det gaitzik egiñ,
zertan illtzen nazu?

ALDUN:

Zeñen alaba zeran
zuk ez badakizu,
galde, galde Gaintzari,
ark esango dizu.

LORA:

Aldun, joan dira zure
naitasun maitiak,
ai zer gogorak diran
Loraren katiak!

ALDUN:

Nere maitetasuna
zuretzat zan dena,
zergatik nintzan beti
sinisten nubena
zure gaiztakeriyak
esaten zubena;
au da nere anima
lertutzen dubena.

LORA:

Jesus! Utzi nazazu
bakarrikan, Aldun. (*Negar samíñez*)

ALDUN:

Joan nadilla diozu?
Ongi da, nai det jun,

zergatikan zu ta ni
ez gerade lagun.
Agur, agur, gezurti,
ta ia berriz nun
sinistu nai dizun bat
billatutzen dezun.
Agur, betiko agur.

V-GARREN IRUDIA

(Lora, negarti, Aldun dijoan aldera begira.)

LORA:

Ikaragarriya da
gaur gertatzen dana,
ez dakit zein dan garbi
esango dubana.
Zergatik dator orren
asarre nigana,
gaur goizian ainbeste
maite nindubana?

Bañan denborarekiñ
jakingo da ori,
nola nik ez diotan
egiñ gaitz iñori;
argatik erregutzen
diot Jainkuari,
izateko kupida
Lora gaixuari.

(Joaten da ezkerretik.)

VI-GARREN IRUDIA

(Gaintza irteten da txokotik Loraren billa; eta, au ez ikustean, esaten du:)

GAINTZA:

Non zaude, Lora kutuna,
ume gaitzik ez dezuna?
Ikusitzen det galdu dezula
erritarren naitasuna,
zitalkeri bat izan dalako
Aldunek egiñ dizuna.
Badezu nork erantzuna.

Erriyan Aldunen itzak
nola dauzkaten egitzat,
gaur edo bigar damaturikan
alderatuko balitzat,
entzungo luke: «Prestuez, txarra,
emendikan aldegiñ zak,
bazekik zer egiñ Gaintzak».

VII-GARREN IRUDIA

Gaintza eta Lora

GAINTZA:

Lora, mesedez.

LORA:

Ai, nere aita!

GAINTZA:

Ez izutu, ez.

LORA:

Zurea naiz ta!

GAINTZA:

Adi zaidazu, Lora,
zure izen garbiz
jakiñaren gañean
dago Aldun egiz.
Eta txit damaturik
arkitzen da berriz,
emen zurekiñ egiñ
zuban umekeriz.

LORA:

Bañan ez al naiz zure alaba?

GAINTZA:

Bildur naiz esateko, ai!

LORA:

Nik jakiñ nai det; erruki zaitetz!

GAINTZA:

Ta gero ez banazu nai?

LORA:

O, nere aita, esan zaidazu
aiñ ixilik daukazuna,
ta neri etzait iñoiz galduko
zukanako naitasuna.

GAINTZA:

Adi zaiozu, estutu gabe,
ainbeste nai dizunari,
umezurtzatxo, alabordeko
artu ziñuzen aitari.

LORA:

O, aita! Esan dena,
ez egon bildurtti.

GAINTZA:

Neretzat aingeru bat
izan zera beti.

LORA:

Esan Jaungoikuagatik.

GAINTZA:

Egun batean esan ziraten,
an agiri dan goiko larrean
nola bi lagun arrotzak zeuden
eriotzaren mende, lurrean.
Ekadoia eta apaizarekiñ
joan nintzan aruntz al zan lenena,
eta aur eder bat billatu nuben,
zu ziñan, Lora, antxe zeudena!
Zure ait'amak, biyen gorputzak,
illak, elkarren aldamenean,
animak beste mundura joanik
Jainkuak deitu ziotenean.
Ta zu jostatzen, aingerutxo!,
kezkarik gabe illen onduan.
O zer ikuskai negargarriya
goiko larrean arkitu nuban!
Jakiñ genduben ill zitubela
ustekabe gaitz izugarriyak;
jakiñ genduben beren izena,
zeiñ ta nongoak ziraden biyak.
Urtebetez len Mena de Paz-en
ezkondurikan zeuden munduban,
ta geroztik or daude gaixuak,
maiz joaten naizen kanposantuban.
Zure guraso illai, biotzez,
malko samiñen ondora,
esan nioten: «Zaudete pakez,
ta nik aziko det Lora».

LORA:

Zergatikan lenago
esan ez dirazu?

GAINTZA:

Bildur nintzan nerekiñ
oztuko ziñan zu;
aita baten biotza
zuregan daukazu;
ta, gaizki egin badet,
barkatu zaidazu.

LORA:

Nola deitzen diozu
barkazioari,
biziya zor badiot
zure biotzari?

GAINTZA:

O, zer itz pozgarriak
sentitzen ditudan
zure ezpaintxo eta
abo maitatuban!
Badirudi sartutzen
nautela zeruban,
nere animak zenbat

gozatutzen duban!

LORA:

O, nere biotzeko
aita eta ama,
umezurtz au utzi ta
Jainkuagana
joan ziñatenak!
Ona zuen alaba
jaso zutenak
Euskal-erriyan,
miñ guztiyak gozaten
diran tokiyan,
pozkiatuba.
O, jende leiala ta
lur maitatuba!
Izan dedilla beti
bedeinkatuba!

(Aditzen da jende askoren murmur otsa.)

GAINTZA:

Murmur oriek zer ote dira?

LORA:

Zeñek daki eztan Aldun,
damuturikan datorkiguna
barkatzen ote diogun?

GAINTZA:

Ark egiñ zigun billaukeriyak
ez du merezi gauz onik;
baldiñ onera etortzen bada
erakutsiko diot nik.

(Murmur otsa azitzen dijoa. Lengoak, Araz eta erriko jendea.)

LORA:

O! Begira, begira:
Araz da emen!

GAINTZA:

Zer atsegintasunak
gure barrenen!

LORA:

Oratutzen dutenak
iriñ ona len,
ogi zuriya noizbait
dute izanen.

ARAZ (bideko jantziyarekiñ, erriko jendiaren atzetik):

Aita, arreba Lora,
maite gozuak,
nere barrengo kutun
biyotzekuak,
izan zaitezte zuek
lenbizikuak,

estutzen zaituztenak
nere besuak.

LORA:

Agirigana nua
ikusi dezazun.

GAINTZA:

Zer egitera zuaz?
Etzaitezela jun;
Agirik Arazentzat
biotza galdu zun.

ARAZ:

Bai; jakindu det, esan dirate
nere zai aspertu zela,
eta Lorari siñu egiñaz
galdu bat balitz bezela,
losintxari ta ezti-jariyo
Aldunekin dabillela.

GAINTZA:

Ta Lorak etzekien
oraindik deusikan,
zergatik ez nion nik
esaten itzikan,
ez egiteagatik
berari gaitzikan.

LORA:

Agiri izandu da

GAINTZA:

mingain luze duna.

ARAZ:

Bai, eziñ eramanik (*Lorari*)
zure ontasuna,
ainbeste burukomiñ
ekarri dizuna.

TALDEAK:

Egiya da esaten
dezuten ori;
emen denok kontuban
gera erori
nor dan Agiri,
ta nola egiñ dizkan
milla txarkeri
orrek Lorari;
bañan ondo damutu
zaio berari.

ARAZ: (*aitari*)

Lora nere arreba
ez baldin bada,
o, aita, izan bedi
zure alaba.

LORA:

Nola ordian?

GAINTZA:

Jaungoikoak zuentzat
zeuzkan gordian
pozak ainbeste;
nola biyak zaudeten
libre ta gazte,
izan zaitezte
anai-arreben ordez
senar-emazte.

ARAZ:

Nik txikitandik,
barren-barrendik,
zukanako naitasuna
sentitzen nuban,
maite zindudan,
au da esan ez nizuna,

zergatik uste
nuban ainbeste
anai-arrebak giñala,
ta beste gauzik
senide baizik
izan ez gintezkiala.

Oraiñ zerubak
biyon eskubak
batu nai dizkigu onla,
ta saldinkari
gezurtiyari
Jainkuak lagun deiola.

Izan dezala
Aldun senarra
ordu onean beretzat.
Lora ederra,
nere izaera
beti-betiko zuretzat.

LORA:

Nik ere ala,
aurra nintzala,
biotzez maite zindudan,
bañan naitasun
beste bat nizun
anaia ziñalakuan.

Aldun sutuba
ta asarretuba
nik jakin gabe zergatik,
aitzaki pillen
billa zebillen
nigandik joateagatik.

GAINTZA:

Gure Jainkuak
sari autuak
leial bizitzen danari
ematen dizka,
denai aldizka;
emen ikusten da garbi.

Nola somatu,
zeñek asmatu
aur gertatzea Lorari?
Eziñ zeikian,
ez gentzakian
izan orrenbeste argi.

Lora gaixuak
miñ beltz pisuak
Arazen jaioterriyan
igaro ditu,
ta gaur alaitu
da lengo miñen neurriyan;
orra sariya
irabaziya
arpegi eder garbiyan.

ARAZ: (*erriko jendeari*)

Erri prestuba, lagun leialak,
ikusten zaituztet alai,
gaur nigatikan, adiskideak,
egiten dezutela jai.
Pozkidaturik galderatxo bat
oraiñ dizutet egiñ nai:
kantu maite bat Buenos Aires-en
Plaz'Euskeran euskaldunai
aditu eta nik ikasiya
bialdu nizuten danai;
esan zazute: badakizute
nola kantatutzen dan? Bai?

- (1) *Envidia, celos.* (Otañoren oarra).
- (2) *Culpa.* (Id.)
- (3) *Pecho.* (Id.)
- (4) Mendakatu: Vengar. (Otañoren oarra).
- (5) Duda egiten degu Otañoren esku-idatziak emen zer dion: *beroko ala basoko.*
- (6) *Plumero.* (Otañoren oarra).
- (7) *Muebles.* (Id.)
- (8) Atzipetu: *engañar.* (Otañoren oarra).
- (9) Salatu: *delatar.* (Otañoren oarra).
- (10) *Traidor-a.* (Otañoren oarra).
- (11) *Juez.* (Otañoren oarra).